

## Aratusteei ongi etorria egin diete

Txapel Txin itxura aldatuta etorri da | 12



Herritarak Txapel Txinekin. | A.M.

Aretxabaleta zuhaitzekin txukuntzen dihardu talde batek | 2



Hazizurri agerraldia egon bada ere, txarrena pasatu da | 4



Estepan Plazaolarekin gazteen hizkuntza ohiturez jardun dugu | 7



## Santa Ageda bezpera degu...

...Euskal Herriko eguna. Eta aspaldiko ohiturari eutsiz, debagoiendar ugari aterako da gaur kantuan. Aramaion, zapatuan atera ziren, ahalik eta herritar gehien batzeko asmoz. | 29

Adin guztietako 50 bat lagun batu ziren zapatuan Aramaion.

IMANOL SORIANO



Zapatuan manifestazioa Bergarako San Martin plazara iristen. | MONIKA BELASTEGI

# Gaur epaituko dituzte lau debagoiendarrak

Asteburuan babes handia jaso dute Korrikan preso en argazkiak eroateagatik auziperatutakoek | 4

## Aloñak eroan zuen atzo UDaren aurkako derbia

0-1 emaitzarekin Oñatira joan ziren hiru puntuak | 22



Gaizka Irizarrek egin zuen gola. | J.A.

Kontratazioa nabarmen jaitsi zen iaz bailaran eta langabeen kopurua %20 igo zen | 5

943 71 48 45

[www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)

**Zure konfiantzako garbiketa enpresa**

Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegia, anbulatorioak, eta abar.

Intxaurtueta 16 Behea • ESKORIATZA • [hemen@hemen-garbiketak.com](mailto:hemen@hemen-garbiketak.com)



Aitzurrarekin lanean, lagun bat, eta zuhaixka ipintzen, bestea. | ARGAZKIAK: ARETXABALETAN LANDAKETA BOLONDRES TALDEA



Portasol inguruan lanean.

# Aretxabaleta zuhaitzez bete gura dutenei dei egiten diete

- ▶ Bi urte daroa boluntario talde bat landatze-lanetan
- ▶ Otsailaren 16an eurekin ibiltzeko gonbidatu dute
- ▶ "Daukaguna hobetu behar dugu", esaten dute

**LEIRE KORTABARRIA** | ARETXABALETAN  
Herriko inguruneak zuhaitzekin txukuntzeko lana bere gain hartu zuen iaz aretxabaletar talde batek. Udalarekin koordinatuta eta haren baimenarekin eta laguntzarekin, aste bukaeretan batzen dira, Aretxabaletan beharra ikusten duten tokietan zuhaitzak edo haziak landatzeko. Aretxabaletan Landaketa Bolondres Taldea dira eta euren proiektua zabaltzeko eta gura duten guztiei parte hartzeko garaia heldu zaiela erabaki dute. Horregatik, deialdi zaba-

la egin dute otsailaren 16rako, zapatua, ingurumenarekin kezkatuta dauden herritar guztiak eurekin landatzera joan daitezten. Horretarako ez da ezer berezirik

eroan behar -lanabesak, Udalak erositakoak, eurek ipiniko dituzte- eta bakarrik "gogoa" behar da, antolatzaileen esanetan. Baldintza hori betetzen dutenek

## KONTAKTUA

**landaketataldie@gmail.com**

Otsailaren 16an zuhaitzak eta haziak landatzen ibili gura duten aretxabaletarrei goiko e-mail helbidean izena ematea eskatzen dute antolatzaileek, dena antolatu ahal izateko.

## "Landaketa masiboa" autobidean

Datozen hilabeteotarako helburuak baditu Landaketa Bolondres Taldeak: aurtan, inguruko basoetako zuhaitz gazteak hartu eta autobideko maldetan "landaketa masiboa" egin gura dute; neguan, zuhaitzak sartuko dituzte herriko periferiako hainbat lekutan; eta Udalarekin batera, bi ekintzatan parte hartuko dute: zuhaitz egunean eta erreka garbitzen.

kiroldegi ondoan, 09:30 aldera dute hitzordua. Autobideko maldak eta Txarapea ingurua aukeratu dituzte egun horretan landatzen ibiltzeko.

Joan gura dutenei alde zuzenetik jakinaraztea eskatzen diete, landaketa ondo antolatzeko. Horretarako, honako e-mail helbidea dute: [landaketataldie@gmail.com](mailto:landaketataldie@gmail.com).

### Inpaktu "izugarria"

"Aretxabaleta industria gunez inguratuta dago eta herriaren erdigunean ere etxebizitzek industrialdeko lantegiak bat egiten dute. Bestalde, azken hogeitaz urteetan eraiki den etxebizitza eta auzo kopurua handia izan da, eta duela gutxi eraikitako autopista gehitu behar zaio horri. Hazkunde eredu horrek zenbait ataletan onurak ekarri baditu ere, Aretxabaletako urbanismoan eta paisajismoan izan duen inpaktua izugarria izan da", esaten dute taldekideek. "Gure belaunaldiari ez dagokio Aretxabaleta eta bere ingurunea mantentzea, hobetzea baizik. Eta horretan jarri nahi dugu gure hazia", borobiltzen dute.

Orain bi urte inguru hasi ziren herritar horiek batzen. Udalarekin batzartzen dira urte hasieran, eta urteko programa egiten dute. Udalak eman dizkie lan-tresnak orain bertan erosi ditu 20 aitzur-eta lur-orotariko autoa uzten die. Zuhaitzak, batik bat, Udalarenak

diren baso eta lursailetatik ateratzen dituzte eta beste leku batzuetan landatzen dituzte.

Aurtan, honako gauzak egin gura dituzte: neguan, Aretxabaletako periferiako leku jakin batzuetan zuhaitzak (urkiak, elorriak, gorostiak, lizarrak...) sartu; eta Udalarekin bi kolaborazio: Zuhaitz Egunean parte hartu eta, udan, erreka garbitzen ere bai.

### Urte osoko lana

Landaketa Bolondres Taldekoek urte osoan egiten dute lan: udazkenean, adibidez, haziak biltzen dituzte. Eta haziak zaintzea, hori da beste zereginetako bat. Hori propio prestatu duten hazitegian egiten dute, Udalak emandako lur-sail baten. Martxi Perez taldekideak honako dio: "Sustrai guztiak egoten ez direnez, interesgarria iruditu zitzaigun hazitegia egitea. Hemen, zuhaitza hazitik hazten dugu; eta zuhaitzak txikiak zirenean loreontzietan gorde izan ditugu, hemendik urte batzuetara autobidearen magaletan sartu ahal izateko". Loreontziak Ekilorek eman dizkie.

Udazkenean bildu izan dituzten hazi guztiekin eta Udalak emandako laguntzarekin, berak emandako lur-eremutxorako lur-sustratua eta bandeja batzuk erosi zituzten, eta han, arte, haritz, pago, urki, artelat... haziak landatu zituzten. Izotzak hil ez dituzten, orbelaz ondo estalita daude. "Datorren udaberrian loraldia izango



Autobidearen maldatan badago zeregina.



Aretxabaletako irteera aldeko lurretan ere ibili dira.

dute eta zentimetro batzuk hartuko dituzte. Batzuk datorren urteko udazken eta neguan landatuko ditugu, eta beste batzuk porte handiagoko zuhaixka izan arte utziko ditugu".

Hazitegiak lan handia dauka, urte osoan zaindu behar delako: "Udan, batez ere, ureztatu egin behar da; batez ere, uda oso sikua baldin badator. Horretarako, Udalak 1.000 litroko depositua eman zigun. Lan hori egiteko jende gehiago bagina, txandak antolatu ahal izango genituzke. Ahal duguna egiten dugu", esaten du Iñigo Iñurrategik.

Arrazoi berarengatik, datorren urtera begira, hazi eta loreontzi gehiago izan ditzakete, baina, lehenengo, hazitegi handiago bat kudeatzeko gertu zenbat jende dagoen ikusiko dute.

Horri gehitu behar zaio taldeak landatu dituen zuhaitzei eta haziei jarraitzeko lana.

**Egun baten ibiltzea nahikoa da** Epe luzeagorako helburuak eta asmoak ere baditu Aretxabaletako landatze-taldeak: Aretxabaletako herriko eta periferietako zuhaitz masa handitzea; lorezaintza-irizpide batzuk Udalarekin batera zehaztea; Aretxabaleta, "hein handi batean autonomia izan dadin" eta horretarako aurrekontuak txikitzeko, Udalak lagundutako zuhaitz-haztegi bat sortzea; ikuspegi didaktikoa sendotzeko, herriko eskolekin kanpainak bultzatzea; eta boluntario-sarea antolatzen joatea.

Helburu garrantzitsuena, eurendako, jendearengan kontzientzia piztea eta horrek fruitua ematea da. Izan ere, Laura Perez taldekideak honakoa dio: "Beste herri batzuetan, arbolek duten masa eta tamaina harrigarriak dira; Aretxabaletan ere, beste bisio bat sortu gura dugu".

Gaineratzen duenez, landatze-lanean hasteak –egun bakarrean ibiltzea nahikoa ei da– kontzientzia pizten du: "Leku baten, beharra ikusten duzu, eta horrek beste leku batzuetan ere premia ikustera bultzatzen zaitu. Askoz arreta handiagoa ipintzen duzu", esaten du Laura Perezek. Lan horretan hasi zirenetik, "Aretxabaletan beste behar asko" ikusi dute: "Gu hasi gara arbolak sartzeko eta konturatu gara lurraz metro erdi duela eta beste guztia obra-hondakina dela. Buruari buelta batzuk eman behar zaizkio, etorkizunean gauza horiek denak konpontzeko".

DATUAK
<b>300</b> ZUHAITZ Bi urtean, 300 zuhaitz baino gehiago eta "milaka hazi" landatu ditu boluntario taldeak.
<b>20</b> AITZUR Udalak 20 aitzur erosi berri ditu taldearendako; lur-orotarikoa ere uzten die euren irteerarako.
<b>1.000</b> LITRO Hazitegia ipintzeko lursaila utzi die Udalak, eta hura ureztatzeko 1.000 litroko depositua eta mangera.

Eskolekin, umeekin ere lan egin gura dute. Momentuz, otsailaren 16ko deialdia ez dago hain justu umei zuzenduta, baina hazitegiaren inguruan umeekin egiteko asmo batzuk badituzte. Gainera, herriko eskoletara kanpaina zabaldu gura dute etorkizun hurbilean. Zentzu horretan, Zuhaitz Eguna eta antzeko ekintzak oso egokitzat ikusten ditu Iñigo Iñurrategik: "Eskolatik lantzea inportantea da. Oraindik ez da gure lehenetasuna, baina nahiko genuke, Aretxabaletan dinamika bat sortuko balitz, eskoletara ere zabaltzea".

Neska-mutikoak dagoeneko joaten dira zapatu batzuetan, baina "momentu honetan" lanerako gertu dauden helduak behar dituzte gehien. Umeekin lan egin gura du taldeak, "baina horretara ez gara ailegatu oraindik", esaten dute taldekideek.

#### Udalarendako kostu barik

Helburuen artean jasota duten beste bat hauxe da: Aretxabaleta herri autonomoa izatea landaketari dagokionez. Iñigo Iñurrategik hauxe dio: "Egia da hainbat txoko txukundu ditugula eta Udalarendako ia kosturik gabe –aitzur bat 11 euro kostatzen da–, baina interesa ez da horrenbeste dirua aurreratzea; gehiago da jendea sentsibilizatzea".

Herritarrek borondatez hasi ziren biltzen, baina Udal Hirigintza eta Ingurumen sailekin koordinatu nahi izan zuten "hasieratik": "Gure burua eskaini genuen lan horretarako, baina ez dugu gure kontura ibili nahi izan", esaten du Iñurrategik.

Udalak ematen dien laguntzaz gainera, materialik ez dirurik ez dute, eurek azpimarratzen duten moduan: "Gure aurrekontua asteburuetan elkartzen garen jendearen denbora eta lana da nagusiki".

## IÑIGO IÑURRATEGI | LANDAKETA TALDEKO PARTAIDEA

# "Auzolana da gure ideia: geuk gauzak egitea"

Otsailaren 16rako deiarekin bat egitera animatzen ditu aretxabaletarrak Iñigo Iñurrategik.

#### Zer egingo duzue herritarrekin otsailaren 16an?

Askotariko lanak egin daitezke: aitzurrarekin zuloa egin da lan bat, baina beste bat da zuhaitza landatzea, hazia landatzea...

#### Nondik ibiliko zarete?

Autobideko magaletan, batetik; hor urteetarako lana dugu. Eta kiroldegi aldean, Txarapea azpiko maldan, bestetik.

#### Autobide inguruetan asko ibili zarete, ezta?

Bai. Inpaktu handiko obra bat da autobidea. Autobide magal barrenetan-eta, haziak sartu ditugu; autobide eta herriaren artean zuhaitz-masa bat sortzea da hel-

burua, inpaktua txikitzeko. Autobidea ekainean inauguratu aurretik, bezperan, landare piloa sartu zituzten, diru piloa gastatu zen honetan, eta maiatzean sartutako zuhaitzak, uda sikua izan zenez, sikatu egin ziren.

#### Zenbat zuhaitz landatu duzue dagoeneko?

Etaz bi urtean, 300 baino gehiago. Eta haziak, milaka!

#### Zergatik egin duzue orain deialdi hau?

Orain arte ez dugu zabalkunde handirik egin; batak besteari, ingurukoei esanda batzen zen jende gehiago. Orain, beste herritar batzuk etorri daitezene gura dugu;



ARRITXU BARRUSO

eta, ikusten bada gogoia dagoela, beste gauza batzuk egin ahal izango genituzke: erreka inguruak garbitu eta horrelakoak. Auzolanaren kontzeptua da gure ideia; herritarrok antolatu eta gauzak egiten hasi.

#### "Orain, beste herritar batzuk etorri daitezene nahi dugu"

#### Zuen helburuetako bat Aretxabaletako Udalarekin irizpideak zehaztea da... Azaldu diezagu kezu hori?

Oñatin eta Bergaran, herrian, zuhaitz handiak ikusten dituzu, inauteko beste modu bat dute... Hemengo ohitura urtero zuhaitzak kaskamotz uztea da. Guk proposatzen duguna da, etxeen fatxadatik gertu ez dauden kasuetan, arbolari hazten eta bolumen bat hartzen uztea. Nahi duguna da auzo berri bat edo espazio berdeak diseinatzen direnean, zuhaitzak beste modu batera tratatzea eta, ahal den neurrian, bizilagunei traba egin gabe, hazten uztea arbolari.



Auzipetuak pankartarekin Maite Aristegik hitz batzuk egiten dituen bitartean, manifestazioaren ondoren. | M.B.

# Mila bat pertsonak esan zuten elkartasuna ez dela delitua

Gaur dute epaiketa Madrilen Korrikan presoek irudiak eroateagatik auzipetu dituzten lau debagoiendarrek

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

*Epaiaketa politikorik ez! Elkartasuna ez da delitua! Euskal presoak Euskal Herrira* lelopean mila bat lagun batu ziren zapatuan Bergaran Amaia Osa, Sebas Etxeberria, Iñaki Manuel eta Joseba Garitaonandiaren aldeko manifestazioan. 2011ko Korrikan presoek irudiak eramateagatik epaitu egingo dituzte gaur, astelehena, Madrilen, Auzitegi Nazionalan. "Terrorismoaren apologia" egitea leporatzen die akusazioak eta 15 hilabeteko kartzela zigorra eta zortzi urterako inhabilitazioa eskatzen dute.

Bada txingor, haize eta euriari aurre eginez, hori guztia salatu eta babesa erakutsi zieten zapatuan Bergaran Debagoiena osotik joandako herritarrek, euskal presoek eskubi-

deak aldarrikatzearekin batera. Gainera, manifestazioa amaierara iristen ari zela, solidarioz jantzitako hainbat lagunek, adierazpen askatasuna ere aldarrikatu zuten Korrika irudikatuz.

## "Errepresioarekin jarraitzen da"

San Martin plazatik abiatu eta herriko kaleak zeharkatu ostean plaza berean amaitu zen manifestazioa eta ondoren ekitaldia egin zuten. Txalapartaren doinuaren ondotik Maite Aristegi Amaiurreko diputatuaren hitzak etorri ziren: "Espainiako Estatuak jarrera faxistak izaten jarraitzen du. Ustelkeria eta errepresioa da Madriletik datorkigun bakarra. Francok sortutako estatu ereduarekin ez dute apurtu eta estatua erabat ustelduta egoteaz

gain, euskal herritarrok konponbiderako dugun gogoari erantzun positiboa eman beharrean errepresioarekin jarraitzen du. Presoekiko elkartasuna ezin daiteke delitua izan", esan zuen.

Txerra Bolinaga Eleak mugimenduko bozeramaileak ere hartu zuen hitza. Besteak beste esan zuen "herritarren esku-bide zibil eta politikoen aurkako erasoak gelditzeko beharra egunero handiagoa" dela eta "gero eta eraso gogorragoak jasan orduan eta erantzun zabalagoak antolatu" behar direla, eta Bergarako jarri zuen adibide moduan.

## Gaur mobilizazio gehiago

Gaur, epaiketa eguna izanik, mobilizazio gehiago daude aurreikusita, eta autobusa ere abiatuko da Madrilerako. Lau inputatuek 10:00etan dute zita-zioa eta ordu horretarako elkarretaratzeak deitu dituzte lan-tegi aurrealdeetan.

Horrez gain, Bergaran geldialdiak ere deitu dituzte ikastetxeetan eta 12:00etan manifestazioa abiatuko da San Martin plazatik.

Arrasaten, ere elkarretaratzeak egingo dituzte, auzipetuetako biren lanlekuen aurrean: Fagor Arrasate kanpoan, 13:30etan; eta Txatxilipurdiko egoitzaren aurrean, 15:00etan.

Iluntzean mobilizazio gehiago ere egongo dira. Hain zuen, 19:00etan, auzipetuei harrera egingo diete eta elkarretaratzeak ere egingo dira Arrasateko eta Bergarako plazetan.

## Arrasaten hazizurri agerraldia egon bada ere, "potoloena pasatu da"

Urtarrileko bigarren astean 45 kasu zenbatu dira, guztiak 20-25 urteko gazteen artean

U.M./M.B. | ARRASATE

"Hazizurri (paperak) agerraldia- ren okerre pasatu da, Arrasaten behintzat". Horixe da Gipuzkoako Osasun Lurralde Zuzendaritzatik helarazitako mezua, lasaitasunerakoa, beraz. Izan ere, urtarrilean, Arrasaten hazizurri agerraldia egon den arren, "potoloena pasatuta" dagoe- la azpimarratu dute.

## 20-25 urteko gazteengan

Iaz, Gipuzkoan, agerraldi bat gertatu zen; 1.408 kasu zenbatu ziren. Horren aurreko epidemia 2007an gertatu zen. Bi agerraldiak alderatuta zera ikusi da: 2007an intzidentzia handia izan zuten herrietan, 2012an ez zuela eraginik izan. Hala, Debagoienara etorrita, 2007an Bergaran eman ziren kasu gehien eta 2012an, berriz, Oñatin. Bestalde, itxarotekoa zen, 2013an, Arrasateko kasu-kopurua ere igotzea; eta 2013ko 2. astean gertatu da igoe- ra hori -urtarrilaren 7tik 14ra-: 45 kasu zenbatu dira. Ondorengo bi asteetan ere eman da kasu- ren bat, baina beheranzko joera nabaria da intzidentzian.

Gipuzkoako Osasun Publi- kiko Epidemiologia Unitatetik jakinarazi dizkiote datuok Goie- nari. Maribel Larrañaga bertako zuzendariordeak emandako datu gehigarrien arabera, Are- txabaletan ere atzeman dituzte bospasei kasu; eta guztira, 56 bat izan direla esan du. Kasu guztietan, gainera, 20-25 urteko gazteengan izan dela gaineratu du.

Agerraldiok ziklikoak dire- la ere azaldu du Larrañagak: "Bospasei urtetik behin ematen dira. Izan ere, batetik, txertoa hartuta izan arren, haren erag- ina ahultzen joaten da; eta bestetik, behin birusarekin kon- taktua izan ostean, defentsak indartu egiten dira, baina bos- pasei urteren ostean, hori ere moteldu egiten da. Beraz, zikli- koki, birusak agerraldia izaten du". Hori horrela, txertoaren garrantzia azpimarratu dute: "Hartuta dutenek ez dute-eta ia batera konplikaziorik izaten gaixotuz gero, baina txertoa hartu ezean, ospitaleratu beha- rra ere gerta daiteke, adibi- dez".

## Era bateratuan aplikatuko dituzte kontratazioetako hizkuntza irizpideak

M.B. | BERGARA

Administrazio kontratuetako hizkuntza baldintzen proze- durak adostu dituzte Foru Aldundiak, UEMak eta Gipuz- koako 36 udalak, tartean Are- txabaleta, Arrasate, Bergara, Eskoriatza eta Oñatik. Hiz- kuntza irizpideek obra kon- tratuei, herri-lanen emakidei, zerbitzu kontratuei, zerbitzu publikoak kudeatzeko kon- tratuei eta hornidura kontra- tuei eragingo die. Adminis- trazioarekin eta herritarrekin izan beharreko erabilera arau- tzeaz gain, hizkuntza paisaia

eta gaitasuna ere neurtu dira. Beraz, Gipuzkoako 36 udalen eta Aldundiaren kontratazio publikoetan, enpresek hiz- kuntza irizpideak bete beha- ko dituzte aurrerantzean.

## Tresna garrantzitsua

Udalen kontratazio politikan tresna garrantzitsua izango dira irizpideak. Izan ere, orain arte, hizkuntza irizpideak bere era- ra erabili izan ditu udal bakoit- zak. Orain, modu bateratuan adostutako protokoloen bidez, erakundeen lana eraginkorra- goa izango da.

SEBAS ETXEBERRIA | AUZIPETUA

## "Animoz beteta goaz epaiketara"

### Zeirakurketa egiten duzue auziaz?

Garbi dugu aspaldi- tik datorren dinami- ka dela elkartasuna delitu bilakatu nahi izatea, eta orain guri tokatu zaigu. Mar- txoan Korrika dator eta uste dugu sententzia ere Korri- karen aurretik aterako dela. Apro- betxatu nahi dute herritarrei gerta ahal zaienaz abisatzeko.



MONIKA BELASTEGI

### Eta astelehenean epaiketa.

Animoz beteta goaz, herri oso batekin atzetik, baina erre- zeloarekin ere bai. Egungo egoerak itxa- ropenerako bidea ireki arren, ez gara fidatzen, egoera hori baliatu deza- ketelako gu zigortzeko.

### Babes handia jaso duzue.

Bai, eta oso eskertuta gaude.



Aldundiko Etxeburua, UEMako Belastegi eta udaletako ordezkariak. | GOIENA

# Kontratazioak nabarmen egin zuen behera 2012an Debagoienez

Urte kaxkarra izan da 2012a enpleguari dagokionez: langabeen kopurua ia %20a igo zen eta kontratu gutxiago egin ziren orokorrean ibarrean

ZURIÑE V.D.M. | DEBAGOIENA

Toki guztietan igarri da krisialdia eta 2012an langabeziak Debagoiena ere astindu zuen, modu gogorrean, gainera. Izan ere, abenduko datuek erakutsi dutenaren arabera, ia %20an egin zuen gora langabezia tasak 2011-ko datuekin alderatuta.

Mankomunitateko Garapen Agentziako zuzendari Koldo Azkoitia hala azaldu du egoera: "Egia da 2012a enplegurako oso txarra izan dela 2011rekin alderatuta, %19,7 egin baitute gora zifrek. Krisialdiko bilakaeraren urte txarrenetarikoa izan da".

## Azken urteetako datuak

Azken urteetako langabezia datuen erreposoa ere egin dio Azkoitia Goienari. "2007ko irailean 1.500 langabetu inguru zeuden ibarrean; urtebetera aldiz, 2.500 ziren".

Garapen Agentziako zuzendariak, baina, aldirik okerrena 2008 urtearen amaiera eta 2009. hasiera izan zirela adierazi du, zifrak izugarri igo baitziren sasoi hartan: "2009ko martxoan 3.400 langabe zeuden Debagoienez".

Azkoitiaren esanetan, 2010-2011 urteetan joera baretu egin zen; 3.000 pertsona inguru zeuden lanik gabe orduan Debagoienez. "Baina 2012an, tamalez, 3.600era igo da zifra. Kopuru kezkaigarria eta txarra, benetan".

## Kontratazio joerak behera

Langabezia tasen gorabehereaz gainera, kontratazioen joeraz ere egin du berba Azkoitia: "2007an 21.000 kontratu egin ziren gutxi gorabehera Debagoienez, eta 2012an berriz, ez zen 13.000ra iritsi kopurua".

Kontratazio kopuru txikiagoa eta kontratu mota ezberdinak.

Izan ere, azken aldirian hauek aldatu egin direla ohartarazi du Debagoineko Garapen Agentziako zuzendariak: "Kontratu mugabeak edo behin-betikoak ez dira %5etik pasatzen. Egiten diren kontratuak epe motzekoak dira, eta baldintzak, beti ere lan kontratuak markatzen dituenak". Azkoitiaren esanetan, nahiz eta

zifretan agertu ez, "suposatzen da baldintza horiek okerragoak direla".

**Gizarte segurantzako afiliatuak** Aipaturiko datu negatibo horiek Gizarte Segurantzako afiliatuen datuetan ere eragina izan dute.

"Horretan ere beherakada nabarmena eman da. Afiliatuak 1.000 pertsonatan jaitsi dira gurean, eta hala, gaur egun 26.000 debagoiendar inguru daude Gizarte Segurantzara afiliatuta, datuek adierazten dutenez".

Etorkizunari begiratuta, epe laburrera behintzat ez dirudi gauzak aldatuko direnik. Mankomunitateko Garapen Zerbitzuko zuzendariak esan duenez, abenduan egoerak hobetze alde egingo zuela uste bazuten ere, enpresariekin-eta hitz eginda, motelagoa izango da joera. Denborak esango du.

KOLDO AZKOITIA | GARAPEN AGENTZIako ZUZENDARIA

## "Gipuzkoan baino bi puntu txikiagoa da langabezia tasa Debagoienez"

Mankomunitateko Garapen Agentziako Zerbitzu buruak egoera azaldu digu.

### Ez da une ona. Baina zer etorriko da?

Aurreikuspenak ez dira oso onak. Ez dakigu bilakaera zein izango den. Ematen zuten abenduan gauzak zuzentzen ari zirela, baina enpresek diote hasiera ez dela batere ona izan. Beraz, ikusi beharko da datozen hilabeteetan eskaerekin eta industria enpresen egoerarekin zer gertatzen den.



### Nolakoa da bailara-ko egoera Gipuzkoako beste tokietan alderatuta?

Tasak begiratuta, langabezia tasa Gipuzkoan baino 2 puntu txikiagoa da; alde horretatik hobeto gaudela esan daiteke. Azken urteetako bilakaerari begirata, aldiz, egoera txarragoa dela esangenezake. Langabezia %20an igo da eta Gipuzkoan ez da zenbaki horietara heldu. Orokorrean baina, oraindik ere abantaila txiki bat mantentzen dugu.

DATUA

3.600

LANGABETU

2012a urte txarra izan zen Debagoienez langabetu kopuruari dagokionez.

# Asteon hasiko dituzte GI-632 errepideko lanak Antzuola eta Bergara artean

Gipuzkoako Foru Aldundia urtarrilaren 30ean elkartu zen Antzuola eta Bergarako herritarrekin proiektuaren berri eman eta kezka argitzeko

G.A. / Z.V.D.M. | ANTZUOLA

Asteon hasiko dituzte Antzuola eta Bergara arteko lanak eta zati horretako kaltetuekin elkartu zen Aldundia urtarrilaren 30ean Antzuolan, bai egitasmoa bera aurkezteko eta baita herritarren eskakizunak entzuteko ere. 60 bat herritar izan ziren bileran.

Moyua eta Antzibar enpresek egingo dituzte Beasain eta Bergara arteko GI-632 errepidearen azken zatiko lanak. Antzuolako lotunea izango du abiapuntu eta, hain justu, Antzuolako eta Bergarako herritarrei lana aurkezteko bilera irekia egin zuen hilaren 30ean Gipuzkoako Foru Aldundia Antzuolako Olanan etxean.

## 25 hilabete lanak egiteko

Hastear diren lanek, bi urte eta erdi inguruko iraupena edukiko



Herritarrek, Diputazioko ordezkarien azalpenak entzuten. | GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

dutela aurreikusi dute obren bultzatzaileek. Lizitazio aurrekontua 63.653.851,90 eurokoa zen eta lana egingo duten bi enpresek bi enpre-

sek 40.038.272,84 euroren truke egitea eskaini zuten kontratuaren esleipena egiteko orduan aurkeztutako proposamenen.

Lan horiek inguruan eragin handia izango dute eta Aldundiak herritarrei zuzenean eman nahi izan dizkie azalpenak: "Herritarren kezka eta kezka entzutea garrantzitsua da Aldundiarentzat, eta haiei erantzuna ematen eta bideratzen saiatuko da". Joseba Altube Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturarako zuzendariak azalpenak eman, herritarren galderak erantzun, eta haien eskakizunak jaso zituen. Jesus Mari Ertza Bergarako eta Inma Beristain Antzuolako alkateak ere aurkezpenean izan ziren, Aldundiko teknikariek batera.

## Eskaerak aurkezteko bulegoa

Obraren zuzendaritza tekniko egingo duten Girder eta Saitec enpresetako ordezkariak ere izan ziren bileran, eta lan inguruko zenbait azalpen eman zituzten.

Bi enpresa horietako ordezkariak obraren lekuan bulegoa izango dute, eta herritarrek dituzten eskaerak bulego horretan aurkezteko aukera izango dute, uneoro. Enpresak eskaerak jasotzeaz gain, Udalarari eta Foru Aldundiari ere emango dio horien berri.

# Registered Education Provider agiria jaso du MUK

MAIDER ARREGI | DEBAGOIENA

Mondragon Unibertsitateak, proiektuen kudeaketa eta zuzendaritza prestakuntza eskaintzeko nazioarteko ziurtagiria eskuratu du; hain zuzen ere, horrelako ziurtagiria eskuratzeko lehen euskal unibertsitatea izan da.

Registered Education Provider (REP) izeneko egiaztagiria jaso du; hau da, proiektuen kudeaketaren alorrean erakunde akademiko aitzindariak aitortzen dituen titulua lortu du. Egiaztagiri hori Project Management Institute (PMI) enpresa eta proiektuen kudeaketarako nazioarteko sare ospetsuak aitortzen du.

Izan ere, sare hori nazioarteko erreferentzia da ezagutzaren garapenean, hezkuntzan eta proiektuen kudeaketa profesionalizatzean. Mondragon Unibertsitateak PMP Ziurtagirirako Programa eskaintzen du; hain zuzen, proiektuen zuzendaritzan gaitasun profesionala egiazteko nazioartean aitortzarik handiena duen ziurtagiria. Ziurtagiri horren VIII. edizioa datorren otsailaren 1ean hasiko da, Bilboko Merkataritza Ganberan.

## PMP lortzeko prestatzea

Kudeaketa-alorreko trebezia egokiak falta dituztelako (adibidez, helburuak ezabatzea, langileak motibatzea, aukera berriak identifikatzea, antolatzea, planifikatzea, erabakitzea, kontrolatu eta informatzea, etab.), proiektuak egoki zuzendu eta gauzatzeko gai diren profesionalak falta dira.

Egoera hori konpontzeko, duela bost urte Mondragon Unibertsitateak programa bat jarri zuen abian, ikasleek PMP (Project Management Professional) Ziurtagiria eskuratzeko prestatze aldera. Proiektuen egiaztagiri hori da nazioartean ospetsuena, eta horixe eskatzen diete munduko erakunde nagusiek eurekin lan egin nahi duten proiektu-zuzendariari.

Dagoeneko ehun pertsonak eskuratu dute ziurtagiria Mondragon Unibertsitateak antolatutako programari esker eta, hain zuzen, oraintxe jarriko da abian VIII. Edizioa Bilboko Merkataritza Ganberan, maiatzera arte iraungo duena.

REP ziurtagiriari esker, gainera, maila hori eskuratu duten pertsonen ziurtagiriari eutsi ahal izango diotela bermatuko die Mondragon Unibertsitateak; izan ere, ziurtagiri horrek exijitzen duenez, hura eskuratu ondoren ere etengabeko prestakuntzari eutsi behar zaio, eta hiru urtean behin ezagutza berriak egiaztatu beharra dago.

# Udarako lan-eskaintzak argitaratzen hasi da Gazte Informazio Zerbitzua

Maroko, Malaga, Tenerife eta Mallorcako hoteletan lan egiteko aukera dago

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Gipuzkoako Gazte Informazio zerbitzua hasi da udarako lan-deialdiak jasotzen, atzerrirako zein bertarako. Horietako gehienek ostalaritzarekin, turismoarekin eta aisialdiarekin dute zerikusia. Uda aldirako lanpostuak dira eta, gazteez gain, udan herri-tik irteteko asmoa dutenendako edo horretarako gertu daudenendako dira egokiak.

Informazio osoa, Interneteko loturak... honako webgunean daude: [www.gipuzkoangazte.info](http://www.gipuzkoangazte.info).

Hoteletan lan egiteko deialdien artean, honakoak daude: Frantziako Club Med hotel-kateak Marokon duen resort baterako harreragileak, zerbitzariak eta animatzaileak kontratatuko ditu; denetara, 11 langile. Ingelesa edo frantsesa ondo jakitea eskatzen dute.

Bestalde, Palia Hotel kateak turismo-suspertzaileak behar ditu Malagan, Tenerifen eta Mallorcan dituen hoteletarako. Ingelesa ondo jakitea eskatzen dute, beste baldintza batzuen artean. Horretara aurkezteko epe-muga martxoaren 15a da.



Mutikoa, Marokoko hotel baten aurrealdean. | BENJAMIN VANDER STEEN

## Ruta Quetzalen, boluntarioak

Hezi Zerb elkarteak aisialdirako begirale tituludunak behar ditu Gipuzkoako hainbat hirirako. Bestetik, 24 urte baino gehiago eta 28 baino gutxiago dutenek

2013 Ruta Quetzalen begirale boluntario gisa lan egin dezakete. Unibertsitate-titulua eta sorosle titulua izan behar dituzte.

Arrasateko gazte informatzaile Dorleta Kortazarrek Arrasate

Irratian esan zuenez, aurten beste urte batzuetan baino goizago hasi dira lan-eskaintzak ailegatzten. Dena dela, egunean eguneko lan-eskaintzak ere batu eta argitaratzen dituzte.

# Etxeko laguntza zerbitzua udalek hartuko dute, eta egoitzak, Aldundiak

Mendekoak atenditzeko sarea berrantolatu egingo dute, eta 1.000 lanpostu berri iragarri dituzte

L.K. | ARRASATE

Mendekotasunaren Arreta Hobetzeko Plana 2013-2016 aurkeztu zien joan den astean Foru Aldundiak udalei eta Batzar Nagusiei. Mendekoak atenditzeko sare publikoa neurri baten berrantolatzea dakar horrek. Gizarte Politikako departamentuak kalkulatu du horrek denak 1.000 lanpostu sortuko dituela, horietatik 750 zaintzaile profesionalendako.

Helburua da mendekoek etxean jarrai dezaten ahalbidetzeko politikak hobetzea.

Udal egoitzak eta eguneko zentroak Foru Aldundiaren eskutara pasatuko dira eta erakunde autonomo batek kudeatu eta finantzatuko ditu, eta Gipuzkoako 88 udalek bere gain hartuko dute etxeko laguntza zerbitzuaren finantziazioa. Etxeko laguntza zerbitzuari 189.000 ordu gehituko dizkio Foru Aldundiak, mendekotasun larrietarako graduatan zerbitzua %40 handitzeko.

Horrez gain, udalek mendekotasuna duten pertsonak etxean laguntzeko zerbitzua jarriko dute abian, baita zaintzaileei jarraipen bat egiteko ere.

## 750 profesionalendako lana

Horrek guztiak zaintzaren arloan Gipuzkoan mila bat lanpostu sortzea ekarriko luke, lau urtean. Honela banatuko lirakeke lanpostuak: etxeko laguntza zerbitzua hobetzeko, 130 lanpostu berri, 189.000 zerbitzu ordu gehiago emateko; 12.000 pertsonari jarraipena egiteko eta laguntzeko taldean, 100 langile berri lanaldi osoz, hilean ordu beteko bisita egin dezaten; eta laguntzaile pertsonalerako prestazio ekonomikoa garatzearen eraginez, zaintzaile profesionalendako 750 kontratazio inguru, %20 onuradun gehiago atenditzeko.

Mendekotasunaren Arreta Hobetzeko Plana 2013-2016k Gipuzkoako udalendako 5,8 milioi euroko gastua eskatuko luke, lau urtean; Aldundiarendako, 7 milioiokoa.

## Langileen baldintzei "eutsi"

Bestalde, Adegik eta Laresek, nagusiendako erresidentzien federazioak, erresidentzien lan-hitzarmeneko baldintza ekonomikoei eustea proposatu diete sindikatuak. Foru Aldundiak tarifak handituz ekartzeko gertu dagoen dirua egoitzetan plazak eta lanpostuak sortzeko erabilteko proposatu dute.

# Kooperatibisten erretornoak aitortu egin beharko dira

L.K. | ARRASATE

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean joan den martitzenean argitaratu zen behin betiko baja hartu duten bazkide kooperatibistendako erreforma fiskala onartzen duen foru araua. Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak ebatzi du berau, urtarrilaren 15eko 16/2013 Foru Agindua.

Hain zuzen, bazkide kooperatibistek ekarpenen itzulketak (erretorno) gisa jasotako diru kopuruen fiskaltasuna aldatu egiten du arau horrek. Aldaketa handiena hau da: baja hartzen duten kooperatibistek -gehien kasuan, erretiroa hartzen dutenean- errenta aitortpenean aitortu egin beharko dituzte aurreantzean kapitalaren itzulpen horiek.

## Eskuz aldatzen direnean ere

Foru aginduak esaten duenez, itzulkin kooperatibo kapitalizatuak sortu baino beranduzago tributatu dira, harik eta ekarpen sozialak eskuz aldatu edo bazkideari itzuli arte. Momentu horretan, ondare-bariozio moduan tributatu dute aurrerantzean.

Gainera, bazkideak baja hartu baina ez-aktibo gisa alta hartzen badu, ulertuko da bazkide langile gisa dagokion partaidetza eskuz aldatu dela, eta irabazia edo galera momentu horretan likidatuko da.

# Enplegua suntsitzen jarraituko da, eta martxorako 52.000 langabe iragarri ditu Adegik Gipuzkoarako

Testuinguru ekonomikoaren aurtengo analisia aurkeztu zuen egunean Adegik patronalak, eta ezin txarragoa da bere iragarpena: 2013an enpresa gehiago deuseztatuko direla eta 3.000 langabe gehiago izango direla iragarri zuen.

Krisia hasi zenetik, Gipuzkoan 2.000 enpresa eta 27.000 soldatapekoren lanpostu desagertu direla esan zuen du Adegik. Bada, 2013an, Gipuzkoaren Barne Produktu Gordina %0,7 inguru txikituko da eta beste 3.000 pertsona lanik gabe geratuko dira; martxoan, horrenbestez, 52.000 langabe baino gehiago izango dira Gipuzkoan. Gipuzkoako enpresen %21,4k esan dute langile gutxiago izatea aurreikusten dutela; %71,3k langile kopuru berbera izateko gai ikusten du bere burua.

# Norberaren aurrezkiak helburu etikoak darabiltzaten erakundeetan uzteko eskatu du Setem-Hego Haizeak

Setem-Hego Haizea GKEko teknikari Edurne Pujanak Fiare banka etiko proiektua eredutzat jarri zuen, norberaren aurrezkiak helburu etikoekin erabili daitezkeen nahi dutenendako banku moduan. Oñatiko Elkar Hezi ikastetxeak ikasleendako antolatutako hitzaldia egin zuen Pujanak joan den astelehenean.

Setemeko teknikariaren esanetan, hainbat banku eta aurrezki kutxa tradizionalak negozio militarretara eta armen mundura bideratzen dute bezeroen dirua. Setem-Hego Haizea, baina, finantza etikoen inguruko kanpaina dabil sustatzen. Horren barruan, Edurne Pujanak erakutsi gura izan zuen "badaudela alternatibak" bezeroen diru hori banka etikoaren barruan sartu eta helburu etikoak dituzten proiektuak bultzatzeko.

# Euskadik %5,3ko absentismo-tasa dauka, Adeccoren arabera; Espainiakoa baino handiagoa da

Euskal Autonomia Erkidegoak %5,3ko absentismo-tasa dauka, absentismoaren gaineko I. Adecco Txostenaren arabera. Hego Euskal Herriko eta Espainiako absentismo tasak neurtu ditu Adeccok, eta Euskadirena da handiena. Nafarroak %4,5eko tasa dauka. Tasa handienak Euskadin, Kantabrian (%4,7), Nafarroan eta Galizian (%4,5) antzeman ditu Adeccok, joan den eguaztenean txostenaren aurkezpenean esan zuenez. Tasa txikienak erkidego hauek dituzte: Balear Uharteak (%3,3), Extremadurak (%3,4), Andaluziak (%3,6), Madrilak (%3,7) eta Valentziako erkidegoak (%3,7).

Bilbon aurkeztu zituen emaitza horiek Javier Blascok, Adeccoren lege-aholkularitza zuzendariak, lan-erreformaren aplikazioaren inguruko jardunaldi baten.

Estepan Plazaola | Bergarako Udaleko Euskara teknikaria eta Goienako presidentea

# "Gazteak euskarazko hedabideetara ekartzeko modua da eurentzat egin ordez eurekin egitea"

- ▶ Jaurlaritzak dio 9-14 urteko ikasleek geroago eta gehiago jarduten dutela gaztelaniaz
- ▶ "9 urtekoen erabileratik 14 urtekoen erabilerara jaitsiera nabarmena dago"

ENeko AZKARATE | BERGARA

Gaztetxo eta nerabezarok, adinean aurrera egin ahala, gaztelaniaz aritzeko geroago eta joera handiagoa dute. Hala ondorioztatu du Eusko Jaurlaritzak 9-14 urteko ikasleekin egindako ikerketa batek. Aisialdian, eskolaz kanpoko jardueretan, hedabideetan... eragin beharraz mintzatu dira agintariak. Bergarako Udaleko Euskara teknikari eta Goiena Komunikazio Taldeko presidente Estepan Plazaola ere iritzi berekoa da.

**Eusko Jaurlaritzak ezagutzera eman duen txosten batek dio 9 eta 14 urte bitarteko gaztetxoek geroago eta gehiago egiten dutela gaztelaniaz eskola giroan. Atzera egin dugu azkeneko urteotan?**

Ikerketak ez du azaltzen aurreagoko datuekiko konparaziorik, baina bai adierazten du 9 urtekoen erabileratik 14 urtekoen erabilerara jaitsiera nabarmena dagoela. Hau da, ikasle gehienek kasuan adinean gora egin ahala euskararen galera prozesu bat dagoela. Hori da kezkarria.

**Horren arrazoiak era askotakoak izango dira, ezta?**

Bai, baina bat azpimarratzekotan honakoa azpimarratuko nuke: ume edo gazteak zer ingurune duen, zer hizkuntza elikabide duen. Azken finean, umearen lehen urteetan familiak eta eskolak hartzen dute pisu nagusia, baina adinean gora egin ahala gizarteko beste eremu batzuen presentzia nabarmen hazten da: eskolaz kanpoko jarduerak, hedabideak eta kultur produkzioa, lagunak... Kontuan hartu behar dugu 14 urteko gazte batek esna pasatzen dituen orduen %60 inguru aipatu ditudan hiru eremu horietan ematen dituela eta hor gaztelania dela nagusi. Horri gehitzen badiogu hainbat familian ere ohikoa dela ume txikiei euskaraz egin eta nagusitutakoan gaztelaniaz egitea, ondorioa garbia da: gazte batzuek euskaraz egiten duten apurra eskolan egiten dute.

**Azkeneko 30 urteotan, euskararen erabileran, aurrera ala atzera egin dugu, oro har?**

Nik esango nuke, oro har, azkeneko 30 urteetan hobera egin dela. Adibide bat jartzearen, Bergarako kaleko erabileraren neurketak hartzen baditugu, konturatuko gara orain dela 30 urte zaharrak zirela euskaraz gehien egiten zutenak eta gazteak gutxien egiten zutenak. Emaitza horiek galbidean zegoen hizkuntza bat erakusten zuten. Gaur egun hau-

rrak eta gazteak dira euskaraz gehien egiten dutenak eta zaharrrak gutxien egiten dutenak. Berreskuratze-prozesu bat izan du. Hala ere, kezkatzekoa da azkeneko urteetan berreskuratze-prozesu hori nolabait geratu edo, gutxienez, moteldu izana.

**Hurrengo 30 urteei begira, errezetek berdinak izan behar dute?**

Ez, ezin dira berdinak izan. Hasteko, azkeneko urteetan gizartea nabarmen aldatu da: familiaren pisua apaldu eta hedabideena nabarmen hazi da, lagunartea bera ere sare sozialekin aldatu egin da, beste hizkuntza batzuen presentzia handitu da, etorkinen etorrera ere hor dugu... Bestalde, orain arteko ibilbideak ere zerbait erakutsi digu, besteak beste, eskolak bere mugak dituela eta bere lana osatu beharra dugula: eskolak eta eskolaz kanpoko munduak elkarrekin jardun behar dutela. Ikaskizun horiek ere kontuan hartu behar dira.

**Patxi Baztarrika Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak azpimarratu du aisialdian eragin behar dela. Hala uste duzu?**

Bueno, aisialdia oso eremu garrantzitsua da. Eskolaz kanpoko jarduera antolatuak eta lagunartea hartzen baditugu, gazte baten bizitzaren zati handia hartzen dute. Baina lehen aipatu ditudan beste eremuak ere oso garrantzitsuak dira: familia, hedabideak eta kultur kontsumoa, lagunartea... Gertatzen dena da non eragin erabakitzerakoan kontuan hartu behar dugula arlo bakoitzean eragiteko dugun aukera eta erraztasuna ere, eta, seguruenan, eskolaz kanpoko mundu antolatutako horretan eragitea errazagoa izango zaigu, etxeko hizkuntza erabileran edo hedabide handien arloan eragitea baino. Bestalde, aisialdiak badu oso ezaugarri positiboa: hizkuntza ondo pasatzearekin, gozatzearekin, lotzen duela eta hori behar-beharrezkoa dugu, euskara gehienetan eskolarekin, nekearekin... lotzen dugulako.

**Bergarako Udalean ere badiharduzue gogoeta estrategikoa egiten. Zein aurreikusten da izan litekeela hurrengo urteetarako lehentasuneko arloa?**

Arlo bat baino gehiago izango dira baina nagusia aipatu dugun horixe izango da: gazteen aisialdiko erabilerarena, ahozko erabilera informala. Horren inguruan Soziolinguistika Klusterrarekin batera 4-5 urteko proiektu piloto bat jarri nahi dugu abian.



Estepan Plazaola, Bergarako udaletxeko arkupeetan. | ENeko AZKARATE

**Kirol mundua euskalduntzeko plan berezi bat lantzen ere badiharduzue. Kontatuko diguzu zertan den?**

Kirol munduan hainbat ekimen ditugu, batzuek bailara mailan eta beste batzuek Bergaran. Alde bate-tik, Udalak berak eskaintzen dituen kirol ikastaroak euskaraz eskaintzea. Bestetik, berriz, kirol-klubekin batera bideratzen dihardugun lana dugu. Lan horren helburua da 4-5 urteko epean 18 urtez azpiko ume eta gazteei eskaintzen zaizkien entrenamenduak euskaraz eskaintzea. Horretarako, klubekin urtez urteko helburuak adosten ditugu eta horiei jarraipena egiten diegu. Era berean, Aretxabaletako Kirol Elkartearen hasitako Esku proiektua ere bailarako beste herrietan zabaltzen hasi gara aurtan.

**Hedabideak ezinbesteko baliabide dira normalizazioan?**

Hedabideen pisua oso handia da gaur eguneko bizitzan. Ume edo gazte batek askoz denbora gehiago ematen du hedabideen aurrean eskolan baino. Hiztunen arteko komunikazioa aurrez aurrekoa izan liteke edo beste medio batzuen bidezkoa (hedabideak, Internet...) eta garbi dago urteen joanean bigarren horiek gero eta pisu handiagoa hartzen ari direla: hedabideen bidez jakiten ditugu berriak, hedabideetan entzun edo irakurritako gainean berba egiten dugu, hedabideetara jotzen dugu gozamen bila, Internet bidez komunikatzen gara lagunekin... Hedabideak eta Internet gero biziaren erdi-erdian daude. Euskarak etorkizunik izango badu, ezinbestekoa da mundu horretan ere euskaldunok hiztun komunitate sendo bat osatzea.

**Euskarazko hedabideak kontsumitzen dituzte gazteek?**

Bai baina erdarazkoen nagusitasuna handia da, bereziki telebistaren kasuan. Datuek esaten digutenez, beste euskarrietan (prentsan, Interneten...) gaztelania nagusi izan arren, emaitzak hobeak dira.

**Zela eragin liteke arlo horretan?**

Ez da erraza, beste hizkuntza batzuetako baliabideak eta eskaintza ikaragarria delako. Hala ere, pentsatzen dut baditugula aukerak. Adibidez, euskarak Interneten presentzia handiagoa du hiztun gehiagoko munduko beste hizkuntza askok baino. Hori komunitate bizi eta partehartzaile bati esker da. Gazteak euskarazko hedabideen eta Interneten mundura ekartzeko bidea hortik etor liteke, partaide bihurtzetik: eurentzat egin ordez eurekin egitetik.

**"Gazte batzuek euskaraz egiten duten apurra eskolan egiten dute"**

**"Halere, haurrak eta gazteak dira euskaraz gehien egiten dutenak"**

**"Berreskuratze-prosesua moteldu izana kezkatzekoa da"**

**"Euskara gozatzearekin, aisialdiarekin, uztartu behar dugu"**

## ZABALIK

AITOR BIAIN  
http://goiena.net/iritzia/



## Zazpigarrena sukaldatzen

Egungo gizarteak datuekin bere egoera konparatzeko joera du. Eta datu kezagarrienetako bat Estatuko *eskola-porrota* da. Espainiak oso datu altua dauka, Europako beste lurralde batzuekin konparatuz. Denok gara-dira kontziente honetaz, eta zein erremedio hartzen da? Beste hezkuntza erreforma bat ezartzea. Demokrazia ezarri zenetik, zazpigarrena izango da Gobernu sukaldatzen dabilena. Zein da helburua? Datu hauek hobetzea: eskola-uzte tasa %26,5 da, Europaren bikoitza; gazteen %24k ez dute lanik egiten, ezta ikasi ere; Europan goi mailako hezkuntza gora doa, Espainian izan ezik. Datu kezagarriak dira, eta horrek lurraldeari ez dio hazten uzten. Baina normala da hainbeste hezkuntza erreforma? Zazpi? Horrelako planek kutsu ideologikoa daukate atzetik: 96 (Logse, PP), 02 (Loce, PPK proposatu) ez zen aurrera eramanean, 05 (LOE, PSOE)... Eta orain, zazpigarrenaren txanda izango da. Zer egingo du erreforma honek? Hizkuntza, matematika eta zientziak bultzatu, aukera askeko ikasgaiak gutxitu eta etapa amaiera bakoitzak ebaluazio bateratu bat izango du titulazioa lortzeko. Datuak hobetuko dira? Ez dut uste. Hezkuntzan aldaketa sakonagoa behar da. Honoko rollek aldatu beharra daukate:

-Familia: familiaren parte hartzea hezkuntzan garrantzitsua dela esango nuke. Ez autoritatea sortzen, baizik eta etxea bizikidetasun eta ikasketa puntu bihurtzen.

-Eskola: matxakatea ez litzateke helburua izan beharko (azterketak, notak...). Eskola ikasketa puntu eta esperimentalitate litzateke gakoa.

Finlandiako modeloa egokia da: modernoa, librea, malgua eta pertsonalizatua da, non haurrak zoriotsu, irizpide propioarekin eta beraien talentu propioetan konfiantzadunak hezten baititu.

Erreforma berriak zerbait aldatuko du? Ziurrenik ez dugu aldaketarik nabarrituko, eta hurrengo gobernuak beste bat ezarriko du, eta hurrengoak beste bat...

"Finlandiako modeloa egokia da: modernoa, librea, malgua..."

## USTEAK USTE

MAIDER ARREGI | marregi@goiena.com


## Eta zu, kazetaria al zara?

Aspertzien hasia nago. Baina zu kazetaria zara, ezta? Eta ez zeneukan horren berririk? Jakin beharko zenuke ba... Ba bai, kazetaria naiz; eta ez, ez dakit ezer horren inguruan. Ez naiz orojakilea, zer egingo diogu ba? Eta ez daukat uneoro munduko edozein bazterretan gertatzen ari denaren berririk, ezta gaitasunik ere analisi sakona egiteko... zer egingo diogu ba!

Zuetako askok seguru kazetariren bati bota diozuela horrelako galderaren bat. Eta bai, kazetariak 24 orduz izan behar du kazetari... eta hala izaten saiatzen gara! Nahiz eta batzuetan arreta gustukoaren dugun gaietan soilik jarri. Ez duzue uste?

## KALE INKESTA

Zer egiteko asmoa duzu aurtengo Aratusteetan?



JONE ALBENIZ BERGARA

"Oraindik ez dut erabaki zertaz mozorrotuko naizen, baina ganbaran aurkitutako arrokekin mozorrotzen naiz urtero".




MIKEL VELASCO ARRASATE

"Aurten kanpora noa egun batzuk pasatzera, eta ez naiz mozorrotuko. Baina gustuko dut Aratusteetako giroa".



EIDER BELOKI ARRASATE

"Lehenengo, ikastolan dantza egin behar dugu, eta ondoren, lagunekin katuz mozorrotuta aterako naiz kalera".



JULEN CUCALÓN ARRASATE

"Lagun guztiok berdin jantzita atera behar dugu. Sortzen den giroa asko gustatzen zait, Arrasate berpiztu egiten baita".

## HANDIK ETA HEMENDIK

## Urdailek kalte erreparaezinak

Aritz Galarraga  
http://berria.info/blogak/ekografiak/

Inuxente eguna pasatu zen, apirileko arrainerako dezente falta da; baina gaur jarraituko dugu adarjotze diruditen telebista berriekin. [...] Hara: Intereconomia kateak Canal Catala kateari alokatuko dio arratsaldeko programazioaren zati bat. Arazo ekonomikoak ditu Intereconomiak: hainbat saio bertan behera utzi dira, hainbat pertsona ezagunek katea utzi dute, eta 200 langile inguru kaleratuko dituen espediente bat onartu da. Pentsa, teleikusleei dirua eskatzera iritsi dira. Hain dira diru arazo larriak, katea itxia ere ez dutela urruti —eta nik dakidan bat baino gehiago tristetuko litzateke—. Orduan ez da hain arraroa programazioaren zati bat beste kate bati alokairuan ematea. Arraroa da maizterra Canal Catala izatea, kate ustez katalan independentista bat. Are, jabeak asmoa "anti-Intereconomia edota Intereconomia katalan bat" egitea zela esan zuenean elkarriketa batean.

Baina badu logikarik: Canal Catalak ikusi du bide bat bere mezua Espainiako sektore intrantsigenteenei helarazteko. Sedukzioaren estrategian sakontzea erabaki dute: ea pedagogia apur batekin konbentzitzen duten ahalik eta espainol gehien, ez hainbeste katalanen kausa besarka dezaten, baizik eta haien bidean oztupo gotor izan ez daitezten. Hartara, alokatutako tarte horretan Dali, Miro, Picasso —bai, dena berenganatzen dute katalan horiek— eta gainerako artisten bertuteak erakutsi ditzakete, butifarra, pa amb tomaquet edota alioliarenak. Barsaren partidak etengabe ematea ere ez litzateke aukera txarra —ezen ez gaitezen engaina, Barsaren jokoak abiatu zuen independentzia prozesu hau—. Tira, azkenean ematen du *Queremos opinar* izeneko eztabaida saioa emango dutela.

Eta estrategia okerra da. Ez eztabaida saio hori ematea, Canal Catalak Intereconomiako tarte bat alokatzea baizik. Ez litzateke askoz hobe independentista katalanak dozenaka sortuko lituzkeen zerbait egitea? Ez da hain zaila: aski lukete Intereconomiako saioaren bat [...] Canal Catalan arratsaldero

ematea. Listo. Eszeptikoenak ere Kataluniako askatasunaren gurdira igotzeko makina ezin hobe iruditzen zait. Nahiz teleikusleen urdailek kalte erreparaezinak jasateko arriskua izan.

## Bourgeois Ttipiak

Erramun Turutarena  
http://goiena.net/blogak/turutene/

Noiz itzali zen gurasoen etxeko pasiloan pintura zuriz zikindutako kabletik zintzilak zen bonbila kaskilo soila eta argi alogeo ilara piztu? Zein momentutan ahaztu genuen hilabeteko soldatarekin estu bizi ginen kontzientzia politiko arineko langileak ginela, bi mila euroko hamalau pagadun ezkertiar sutsu bihurtzeko? Zergatik ez zen gure zorientasuna gure patrikak bezain beste loditu? Zergatik beldurtzen gaitu etorkizun ezegonkor ezberdin batek? Zergatik sumintzen digu kolona, gorritzen eta erauzten aurpegiko larruazala? Zergatik gure gizalarrua zuritzeko behar hau? Kreditu-txarteldun hippie gara, garaiko lankide burgesak, burkide gezak.

Autonomo beharrean automata dirauguneino.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkarte  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA

**Lehendakaria** Estepan Plazaola  
**Zuzendari nagusia** Iban Arantxabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate  
**Erredaktore burua** Ubane Madera  
**Sailietako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Asteburuko edizio arduraduna**  
Monika Belastegi  
**Maketazioa** Kepa Martelo, Imanol Soriano  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziortza Martin, Imanol Elortza  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate  
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER**  
ARRASATE 20500:  
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**  
ARETXABALETA 20550:  
E05 Basabe Poligonoa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09


**Publizitatea** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.com

**Legu Gordailua:** SS-0088/04  
**ISSN:** 2173-707X  
**Tirada:** 5.000 ale  
**Difusioa:** 4.383 ale



**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Urtarrilaren 31tik  
otsailaren 28ra, zatoz

# Gorbeiaiko Pagotxen bila

Izugarrizko beherapenak  
gai asko eta askotan.

Salgaiak bukatu arte bakarrik!

**Adibidez:**

**DECATHLON**



BIZIKLETA FREERIDE  
ROCKRIDER  
ER1  
Lehen 1.299,95€ **ORAIN 1099,95€**

**Carrefour**



GIZONEZKOEN GALTZA  
TXINATARRAK  
Lehen 25,00€ **ORAIN 7,50€**

**merkál calzados**



SPORT ZAPATILAK  
NEURRIAK: 24-27  
ADIDAS  
Lehen 31,00€ **ORAIN 15,50€**

**BRICO DEPOT**  
PRECIOS BAJO TODOS LOS DIAS



BAINUGELAKO ALTZARIA  
Lehen 86,95€ **ORAIN 60€**

**CÓCTEL**  
haurrak




2-12 URTE  
HAURREN BAKEROAK  
Lehen 20,99€ **ORAIN 6,29€**

**CORTEFIEL**




GIZONEZKOEN TRAJEA  
Lehen 459€ **ORAIN 179€**

**LOW COST**  
novia y fiesta



EZTEI SOINEKOA  
Lehen 1.470€ **ORAIN 850€**

**pim kie**



JAKA BELTZA  
Lehen 32,99€ **ORAIN 12,00€**

... eta beste asko

Aukera gehiago ikusteko: [www.centrocomercialgorbeia.com](http://www.centrocomercialgorbeia.com)



**GORBEIA**  
[www.centrocomercialgorbeia.com](http://www.centrocomercialgorbeia.com)

## UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

**Txema Fernandez** | Gatzagako Hautesle Elkarteko zinegotzia Leintz Gatzagan (1995-1999)

- ▶ Hirigintza zinegotzi jardun zuen, besteak beste, Gatz Museoa egin zuteneko sasoian
- ▶ Lau urte egin ostean, ez luke errepikatuko, "denbora luzea" kentzen duen lana delako
- ▶ Edozelan ere, zinegotzi izana positiboa dela uste du, batez ere, herritarrak ezagutzeko

## "Ez zegoen politikarik Udalean, orduan ez genuen ezta mozio politikorik aurkezten ere"

MIRARI ALTUBE | ARETXABAETA

Txema Fernandez (Aretxabaeta 1959), Leintz Gatzagan zinegotzi izan zen 1995tik 1999ra. Hirigintza Saileko zinegotzi izan zen. Guztira, lau zinegotzi eta alkatea ziren, eta gainera, batek dimititu egin zuen, eta lau geratu ziren. Laurok egin behar izan zuten, beraz, gaur egun zazpi lagun artean egiten dutena:

### Lan asko izaten zenuten?

Mordoa. Ordu mordoa sartzen genituen. Zerbitzuetan ere ez zegoen inor, bakarrik *Pequeño* zegoen, gizon nagusi bat. Eta elurra egiten zuen bakoitzean, adibidez, hiru egunez inkomunikatuta geratzen ginen, eta *Pequeño* traktorearekin eta neu berarekin, ibiltzen ginen hiru egunez 08:00etatik 20:00ak arte bideak garbitzen. Jaiak herritarrekin antolatu behar genituen... gogoan dut zela behin Felix Inurrategi ibili zen taula muntatzen.

### Denetik egin beharra zegoen...

Bai, nire sasoian Hirigintza esanez gero, barre egiten zuen jendeak: Zer egiten duzu Gatzagan Hirigintzan? Ba sasoi hartan Gatz museoa egin zen, plaza ingurua bukatu zen eta Gaztainuzketako etxeak egin ziren. Dirua zegoen. Otsoa eta biok Diputaziora joaten ginen, eskatzera. Leku guztietan ezagutzen gintuzten.

Orduan egiten zena zen enpresak sortu dirua eskuratzeko, gero haiek Udalean eragin positiboa izan zezaten. Gaztainuzketaren kasuan, alokatu, eta dirua Udalera bueltatzen da, baita herriko garajeen edo ehiza postuen kasuan ere... Dirua zertan gastatzen edo inbertitzen den ikusi egiten da Leintz Gatzagan.



Txema Fernandez zinegotzi ohia. | MIRARI ALTUBE

### Zelako giroa zegoen udaletxean?

Ona, ez zegoen arazorik. Taldea egiten zen, ez zegoen politikarik. Orduan ez genuen ezta mozio politikorik aurkezten ere, adibi-

dez. Nik uste dut galdu egin dela herriaren izpiritua. Lehen herriaren aldeko lana besterik ez zen. **Interes pertsonalik bazen?**

Batere ez. Are gehiago, kasu batzuetan dirua galdu ere egiten genuen, ze batzar asko Arrasaten egiten ziren eta ez genuen dietarik pasatzen, eta dirurik ere ez genuen kobratzen. Gainera, erabaki batzuen ondorioz, herritar batzuekin haserreak ere sortzen ziren. Adibidez, nire kasuan urak ekarri behar ziren, eta hori egiteko lursail partikularretatik pasa behar zen, eta lur-jabeek espero zuten konpentsazioa eta Diputazioak ematen zuena, ez zetorren bat; Udala erdian zegoen, eta azkenean jendeak albokoaren kontra egiten du. Desatsegina ere bada, ze trago bat hartzen duzun

guztietan bakoitzak bere arazoei buruz berba egiten dizu. Politika egiteko oso modu zuzena da.

### Ze obrarekin geratuko zinen?

Gaztainuzketarekin. Gatz museoa

**"Politika egiteko oso modu zuzena da Leintz Gatzagakoa, gertu-gertukoa"**

**"Esperientzia ona da Udalean jardutea, baina inork ez du eskertzen"**

oso ondo egon zen, baina plaza-rena ez: guztia eginda zegoen alde aurretik. Eta nire ustez txarto egin zen: material eskasa, itoginak zeuden, boladizoa berre-raiki egin behar izan zen...

### Zer egin ez izanak ematen dizu pena?

Urak ekarri genituenean, Euskaltelek esan zigun beste obra zibila eginez gero, zuntz optikoa ekarriko zuela. Guztia egin arren, gero Euskaltelek ez zuen aurrera egin. Eta pena da, ze Gatzagako teilatuak antenaz beteta daude, eta Erdi Aroko herri bat horrela izateak pena ematen du. Guztiondako antena bakarra eraikitzekeo ideia ere izan zen, baina...

### Kuriosoa da Udaletik pasatu zareten guztien artean inork errepikatu ez izana Otsoak izan ezik...

Bai, nire aldetik kunplitu dut. Eta ez nintzateke berritoki ere sartuko, baina aho txikiarekin esaten dut hori. Orain ez daukat denborarik. Esperientzia moduan ondo dago, baina denbora asko kentzen dizu, eta inork ez du eskertzen, gainera. Atari handi bateko burua izango bazina moduan da.

### Hala ere, gomendatuko zenuke udal batetik pasatzea?

Bai. Beste ikuspuntu batekin begiratzen duzu gero. Lan hori gehiago errespetatzen duzu.

### Zer ikasi duzu lau urte horietan?

Udala bera ezagutu, eta baita herritarrak ere. Orduan ez nuen herria bere osotasunean ezagutzen, eta herri txiki guztietan moduan, azpiko istorio asko daude: maniak, herritarren arteko urteotako gorrotoak... Herri txiki batek handi batek besteko arazoak ditu, baina errazago ikusten dira, gertuago daudelako.

**Peter Pan**  
musikala



DVDa SALGAI 12€

Goienako Arrasateko eta Aretxabaletako egoitzetan eta Bergarako Musika Eskolan.  
**Erosi agortu aurretik!**

# HERRIAK

ARRASATE

## San Felipe Apostol, hil osteko lehen laguntzarako sortua

- ▶ Elkartea 1898ko apirilaren 13an sortu zen, Arrasaten; borondatezkoa eta irabazi asmorik gabekoa da
- ▶ Bazkidea hil ostean hainbat zerbitzu eskaintzen ditu eta 24 orduko telefono zerbitzua dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

1898ko apirilaren 13an sortua, Arrasateko elkarrekin zaharrenean artean dago San Felipe Apostol Elkarlaguntzako Elkartea. Borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundea da, irabazi asmorik gabekoa. Eusko Jaurlaritzako Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzan legez ezarrita eta erregistratuta dago.

Bere hedadura eremua Arrasate eta inguruko herrietako bazkideengana mugatzen bada ere, Euskal Herri osoan zein Espainian bizi diren bazkideak ditu elkarrekin: Donostia, Gasteiz, Bilbo eta, Malaga, Cadiz zein Tenerife, besteak beste.

### Bizirik, inongo zerbitzurik ez

Eguneroko lanean, helburu nagusia da heriotzaren osteko lehen laguntza eskaintzea: "Bazkidea hil ostean eskaintzen dugu zerbitzua. Hau da, bizirik dagoen

bitartean ez dugu inolako zerbitzurik eskaintzen", adierazi du Alberto Ojanguren elkarrekin maizterrak. 1983ko uztailaren 29a ezkerre dihardu lan horretan; bere ardura da, besteak beste, telefonora adi egotea 24 orduz.

### 24 orduko zerbitzua

Izan ere, 24 orduko zerbitzua eskaintzen du San Felipe Apostol Elkarlaguntzako Elkarrekin, 943 79 16 82 telefonoz. Horrez gain, Zigarrola auzoko bulegoa -Gipuzkoa etorbidearen 33. zenbakian- zabalik dago astelehenean egu-bakoitzera: 09:30etik 12:00etara eta 16:30etik 19:00etara.

Honakoak dira zerbitzu nagusiak: Espainia barruan hil denari hil den tokitik bizi den edo erroldatuta dagoen herrira eramatea, hilgutxa eskaintzea, herrian zehar eskelak jartzea, auzitegi-tako tramite guztiak egitea, mediku ziurtagiria egitea eta, era

berean, hildako bazkide bakoitzari 750 euroko diru-laguntza ematea. Heriotzagatik ematen den laguntza 700 eurotik 750 eurora igotzea erabaki zuten azken Batzar Orokorrean, urtarrilaren 27an.

### Zuzendaritza talde berria

Batzarra joan den urtarrilaren 27an egin zen. 1986a ezkerreko elkarrekin idazkaria den Jose Ignacio Elorzak jakinarazi digu "oso motza" izan zela batzarra, ordu erdi eskasekoa. 155 bazkidek hartu zuten parte: hasteko, azken batzarreko akta, urteko memoria zein diru-kontu balantzea irakurri eta onartu zuten. Gero, diru aldetik elkarrekin osasuntsu dagoela berretsi zuten -2011n baino 100 bazkide gehiago ditu- eta, azkenik, zuzendaritza batzorde berri izendatu zuten.

Urteroko kuota 25 eurokoa izango da titularrendako eta ezkontideendako; onuradunendako, berriz, 12 eurokoa. Bazkide izateko tarifak berriz, adinaren arabera dira: 40 urtetik beherakoek sarrera dohainik dute eta 70 urtetik gorakoek, berriz, 1.350 euroko ekarpena egin beharko dute.



Alberto Ojanguren elkarrekin bulegoaren atarian, Zigarrolan. | JOKIN BEREZIARTUA

DATUAK

# 13.287

BAZKIDE 2012AN

Elkarrekin 13.287 bazkide zituen 2012 amaieran, 2011n baino 100 gehiago: 5.876 titular, 2.957 ezkontide eta 4.454 onuradun.

# 115

BAZKIDE HIL ZIREN 2012AN

Elkarrekin 115 bazkide hil ziren 2012an. Horietatik 73 arrasatearrak ziren. Bigarren lekuan, Gasteiz; Arabako hiriburuan bizi ziren 17 bazkide hil ziren 2012an.

DATUAK

# 47,21

URTE BATEZ BESTE

Elkarrekin bazkideen arteko batez besteko adina 47,21 urtekoa da. Bazkide izan gura duten 40 urtetik beherako herritarrek sarrera dohainik izango dute.

# 750

EUROKO DIRU-LAGUNTZA

Bazkideren bat hiltzen denean 750 euroko laguntza ematen zaio. Aurten onartu du Batzar Orokorrek 50 euro gehiago ematea.

## Zuzendaritza batzordean sartuko direnei ongietorria

Batzar Orokorrek onartu zuen zuzendaritza taldea. Urtero kide berriak sartzen dira, trantsiziorako tartea egon dadin. 2013rako honakoa izango da zuzendaritza taldea: Juan Jose Pagaldai (presidentea), Ramon Azkarate (presidenteordea), Jose Ignacio Elortza (idazkaria) eta Santiago Garai (diruzaina). Era berean, zuzendaritzako batzordekide izango dira Josu Axpe, Mikel Iturbe, Alberto Laskurain, Aitor Ormaetxea, Kepa Ormaetxea eta Juan Rodriguez. Otsailaren 23an egingo dute urteroko bazkaria, datozenei ongietorria egin eta joango direnei egindako lana eskertzeko.



Zuzendaritza, Kulturaten, batzarraren ostean. | MONDRABERRI

## ARETXABALETA

# Txapela buruan jantzita eman zioten ongi etorria Txapel Txin berriari

Nahiz eta eguraldiak ez lagundu, herritarrek txapela jantzi eta plazara irten ziren Txapel Txin berria ikustera

**ANDER MONEDERO** | ARETXABALETA  
Bazegoen Aretxabaletan Txapel Txin berriaren irudia ezagutzeko gogoia eta, nahiz eta etxean gertatzeko moduko eguraldia egin, herritar asko txapela jantzi eta kalera irten ziren Aratusteak datozela ospatzeko. Aurten, lehenengo aldiz, Txapel Txin eguna

goizetik hasi zen, izan ere, Txapel Txin berria, koadrilekin batera, eguerdiko txikiteoan ere izan zen.

Txikiteoaren ostean, Txapel Txinek siesta egiten zuen bitartean, giroa berotzeko, Begira antzerki taldeak *Txirla beltzaren piratak* kale ikuskizuna eskaini

zuen. Bertan, piratek herriko umeekin batera *Jon Txipiron*-en altxorraren bila joan ziren.

Kale antzerkiaren ostean, euriak etena egin zuen eta Kurtezbarri herri eskolako balkoian agertu zen Txapel Txin. Artaxoako klinikatik pasa ostean, itxura berria du. Han, Belen Estabanekin

batera ebakuntza egin ziotela esan zuen eta bera baino hobeto gertatu dela ziurtatu zuen. Aratusteei ongi etorria eman ostean, herriko plazara jaitsi zen herritarrekin batera argazkiak egitera; baita afaldu aurretik txistorra mokadutxoa eta sagardoa dastatzera ere.

**Atxuridin, torraren maisu**

Laugarren urtea da Txapel Txin egunean torrada lehiaketa egiten dela eta, laugarrenez, Iker Altuna *Atxuridin*-ek irabazi du txapelketa. *Atxuridin*-ek esan zuenez, Mesik lau urtez jarraian urrezko bota irabaztea bezain garrantzitsua dela laugarren aldiz torrada txapelketa irabaztea. *Atxuridin*-ek, gainerako parte hartzaileek bezala, epai-mahaiko kideentzat etxean egindako zortzi torrada eraman zituen eta onenak izateagatik 100 euroko saria jaso zuen.

Lehiaketako bigarren sailkatuak, Basabek, 50 euro eron zituen eta hirugarrenak, Aitor Garcia-Etxabek, 30 euroko saria jaso zuen.



Txapel Txin umeak agurtzen. | IMANOL SORIANO



2. eskuko mozorro azoka egin zuten egubakoitzean. | IMANOL SORIANO

## Mozorroak eta torrarak, Eskoriatzan


Guraso talde batek antolatuta Aratuste-jaia egin zuten egubakoitz iluntzean Eskoriatzako plazan. Aratusteetarako mozorrorik ez zeukanak, han izan zuen mozorro on bat erosteko aukera, 2. eskuko mozorroen azoka egin zuten-eta. Azokarekin batera txokolate-jana egon zen eta gazteenek aurpegia margotzeko aukera ere izan zuten. Torrada tailerrak ere egin zituzten eta txikitxoak gustura ibili ziren ogi eta irin artean.

**IKER  
ALTUNA**  
ARETXABALETA




"Torrarak bihotzarekin eta maitasunez egiten direnean erantzuna izaten dute. Sekretua ezin da esan, bestela datorren urtean ez dut nik irabaziko".

**ASIER  
MERINO**  
ARETXABALETA



"Txapela jantzi eta lagunekin kalera irteten gara Txapel Txin ikustera. Eguna polita da. Gainera, piraten antzezlanak gustatu egin zait".

**BEÑAT  
ZAMALLOA**  
ARETXABALETA




"Goizean goizetik txapela jantzi eta Txapel Txin eguna ospatzen hasi gara. Eguraldiak asko lagundu ez arren, jende dezente bildu da plazan".

**UNAI  
BENGOA**  
ARETXABALETA



"Txapel Txinen irudi berria asko gustatu zait. Buru handi berria erosoagoa eta arinagoa da eta erabilera handiagoa emango zaiola uste dut".

**JOSE ANTONIO  
ZANGITU**  
ARETXABALETA



"Sagardoa probatzeko astirik ere ez dut izan, orain arte txistorra prestatzen egon garelako, eta, orain, Txapel Txin berria ikustera etorri naiz".

## ARETXABALETA

## Spinning gela beteta Jose Luis Kortarekin batera pedalkadak emateko

**ANDER MONEDERO** | ARETXABALETA  
Jose Luis Korta patroia, entrenatzaile eta *showman*-ak 60 minututako spinning saioa egin zuen Ibarra kiroldegian. Spinning saioa hasi aurretik, Ibarra kiroldegia ezagutzeko aukera izan zuen eta baita aspaldiko lagunekin egoteko aukera ere: bisita gidatua hasi eta berehala, Alberto Iñurrategirekin elkartu zen.

Ibarra kiroldegia eskaintzen dituen aukerekin harrituta gertatu zen, eta Aretxabaletan kirola

ez egiteko aitzakiarik ez dagoela nabarmendu zuen. Bere gaztaroan kirola egiteko horrenbeste aukerarik ez zegoela ere adierazi zuen.

Ohikoa den bezala, Kortaren bisitak ikusmina piztu zuen eta batek baino gehiagok argazki bat egiteko eskatu egin zion.

Spinning saioari dagokionez, ordubeteko saioa izan zen eta Dabid Berezibarrek zuzendu zuen. Kortarekin batera, 30 bat lagun izan ziren bizikleta estatikoaren gainean pedalei eragiten.



Jose Luis Korta zapatuko spinning saioan. | ANDER MONEDERO



Aranzadi Ikastola-Moises Azpiazu taldeko neska-mutikoeek ikuskizun polita eskaini zuten Bergaran. | JOSETXO ARANTZABAL



Elgetako elizan domeka goizean opilak bedeinkatzen. | JOSETXO ARANTZABAL

## ELGETA ETA BERGARA

# Eztarriko minik ez izateko opilak bedeinkatu dira han eta hemen

San Blas Eguna ospatu da Bergaran, Elgetan eta Antzuolan, besteak beste

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

San Blas eguna tradizio handiko eguna da gurean eta han eta hemen opilak bedeinkatzeko mezak egin ziren atzo. Meza horiek nola ez, salda, txorizo eta ospakizunekin lagunduta etorri ziren.

Bergaran esaterako, urtero moduan, giro ederra izan zuten Buruñoa auzoan. Jende dezente gerturatu zen ermitara besteak beste, Jon Molina parrokoak opilak bedeinkatu zitzaizkien. Egin beharrekoak eginda, ospakizunak

etorri ziren gero. Aranzadi Ikastola-Moises Azpiazu taldeko neska mutikoeek dantza ikuskizun benetan ederra eskaini zuten. Ondo gaztetxoak ziren asko eta asko, baina lan bikaina egin zuten guztiek; ikurrin dantzak eta agu-

rrak sekulako txalo zaparrada jaso zuten. "Benetan hunkigarria da horrelako neska-mutiko gazteak euskal dantzak egiten ikustea. Gozatu egin dut", zioen bergarar batek. Dantzen osteko herri kirolek ere jende dezente erakarri zuten.

## Elgetan ere egun handia

San Blas eguna Elgetan ere oso errotuta dago eta bat baino gehiago izaten dira opilak bedeinkatzeko aukerak. Zapatu iluntzean esaterako herritar asko batu ziren

herriko elizan eta domeka eguerdian ere talde polita. Horrez gain, Arantzeta auzoko San Blas ermitan ere atzo goizean izan zen opilak bedeinkatzeko aukera.

## Antzuolan Besalde auzoan

Antzuolan ere ospatu zuten San Blas eguna; kasu honetan zapatuan. Besalde auzoko San Blas ermitan meza egin zuten eguerdian eta ondoren salda eta txorizoa banatu zuten. Trikitilarien laguntza izan zuten giroa berotzeko.



AMAIA RUIZ ETA MIREN TXURRUKA  
BERGARA

"Fandangoa, arin-arina, agintari-dantza, koreografia eta agurra egin ditugu. Pozik gaude nahiko ondo irten delako emanaldia. Beste batzuetan urduri egoten gara, baina gaur oso lasai geunden. Beste plaza batzuetara baino jende gehiago etortzen da San Blasera. Horrek urduri ipintzen gaitu, baina era berean gustatzen zaigu".



M. LUISA UNZURRUNZAGA  
BERGARA

"Oso egun polita izaten da gaurkoa, ikusi besterik ez dago zelako giroa dagoen. Herritik oso gertu dago eta horregatik jende dezente etortzen da. Nire ilobak dantza egin du, eta besteak beste, bera ikustera etorri naiz".



MIREN GURUTZE ARANA  
BERGARA

"Urtero-urtero etortzen gara. Oso egun polita izaten da eta gaur gainera eguraldia lagun izan dugu. Meza egoten da opilak bedeinkatzeko eta ondoren oso polita izaten da dantza ikuskizuna eta baita herri kirolak ere".



BEÑAT AGINA ETA MIKEL ZEZIAGA  
BERGARA

"Esku-dantza, Oskorri eta Txulalai dantzak egin ditugu gaur eta gure ustez Oskorri da ondoen egin duguna. Ez gara batere urduri ipintzen, gustatu egiten zaigu jendea guri begira egotea, beraz gustatzen bazaie etorri daitezela nahi duten guztietan. Argazki mordoak atera dizkigute gaur. Orain, dantzan egin ostean, txorizoa eta salda hartzera joango gara".



ONATI

IMANOL SORIANO

## Kandelariaren bedeinkapena

Oñatiko San Migel parrokoa umez beteta ikusi genuen zapatu iluntzean. Askorendako ezezaguna izango da tradizio hori, baina Oñatin nahikoa indar daukan erritua da. Aurreko urtean bataiatutako neska-mutikoeek Kandelariaren bedeinkapena jasotzen dute. Joxean Larrañaga parrokoak kandelak eta umeak bedeinkatu zituen eta ondoren urtero moduan talde argazkia atera zuten.



IMANOL SORIANO



Etorkinak Ekin emakumeak elkartearen atarian, gastronomiarekin lotutako ikastaro baten. | ARTXIBOA

## Etorkinendako harrera plan berria onartu dute

Udalak 6.000 euro bideratuko ditu zerbitzurako; Ekin elkarteari esleituko zaio

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Ekin emakumeak elkartea, Udalarekin elkarlanean, zortzigarren urtez jarriko du martxan etorkinendako harrera zerbitzua. 2012-ko irailetik abendura bitartean 38 etorkinek erabili zuten eta erabiltzaileek oso egokitzat baloratu zuten zerbitzua. Hala, Udaleko Ongizate Sailak konpromisoa hartu du 2013ko urtarriletik abendura bitartean harrera zerbitzua ezartzeko, horretara 6.000 euro bideratuz. Zerbitzu hori, noski, Ekin elkarteari esleituko zaio. Erabiltzaileei arreta zuzena eman gozaie astelehen, eguazten eta egubakoitzetan 15:00etatik 18:00etara.

Ekineko Tamara Perezek azaldu digu gaur egun zertan egiten duten lan: "Orain bertan, gure baliabideak oso mugatuak direnez, harrera plana egiten dugu. Lehen pertsona bat zegoen kontratatuta ekintzak antolatzeke, Lanbidetik jasotako diru-laguntza bati

esker. Orain ez, Lanbidek ez du laguntza hori aurreikusten. Horregatik egin dugu hitzarmena Udalarekin". Sei hileko proiektua izan zen hura eta Perezen arabera, hainbat ekintza egin ziren.

### Ekin, etorkinendako erreferente

Orain bertan emakume musulmani euskararen eta euskal kulturaren gaineko klaseak ematen ari dira. Asteon bilera egingo dute Udaleko ordezkariekin beste ikastaroren bat aurrera eramanez.

ahal den erabakitzeke: "Ahal dugun heinean laguntzen dugu, askotan boluntario moduan ere bai", dio Perezek. Dagoeneko erreferente bihurtu da Ekin etorkinendako, Arrasaten zein bailara osoan: "Arrasateko etorkinen %80a pasa da gure elkartetik gutxienez. Saretxoa egin genuen eta orain sarea handitzen doa". Etorkinei dagoeneko, gehienak Espainiatik kanpo datozenak dira: iaz gehienak Pakistan, Kolonbia, Sahara eta Nigeriatik etorri ziren.

### ESANAK

**"Arrasateko etorkinen %80a pasa da gure elkartetik"**

TAMARA PEREZ | EKIN ELKARTEA

### DATUA

**38**

ETORKIN IRAILETIK ABENDURA

2012ko azken txanpan 38 etorkinek jo zuten Ekinera: 11 emakume eta 27 gizon.

## Udal Gobernuak dei egin du Korrikako aferan auzipetuen aldeko elkarretaratzean parte hartzeko, gaur

J.B. | ARRASATE

Arrasateko Udal Gobernuak prentsa ohar bidez babesa erakutsi gura izan die, 2011ko Korrikan presoan argazkiak erakutsi izanagatik, gaur bertan Madrilgo Auzitegi Nazionalen deklaratu beharko duten lau lagunei.

Udal Gobernuaren arabera, Euskal Herrian "garai berriak" bizi ditugu: "Denon eskubideen errespetuan oinarritutako etorkizunaren alde ari gara lanean, geroz eta sentsibiltate politiko eta sozial ezberdin gehiagok elkar hartuta. Gure aburuz, presoan argazkiak erakustea haiekin

elkartasuna adierazteko modu bat besterik ez da, sentsibiltate baten adierazpena eta ez delitu bat, inoren eskubiderik urratzen ez duenez gero".

### "Elkartasuna ez da delitua"

Gaineratu dute euskal presoan argazkiak erakusteagatik inori terrorismoa goraipatu izana leporatzeak "zentsurik ez" duela: "Era berean, gisa honetako prozesu judizialek akusatutako pertsona ez ezik, Euskal Herriaren aldaketa politiko eta sozialaren aldeko lanari ere kalte egiten diote, gure iritziz. Elkartasuna ez da

delitua eta guk elkartasuna adierazi nahi diegu, kasu honetan, otsailaren 4an [gaur] Auzitegi Nazionalera deklaratzera joan beharko duen Joseba Garitaonaindia arrasatearrari eta bergarako beste hiru akusatuei".

Hala, herritar guztiei dei egin diete gaur Herriko plazan egingo den elkarretaratzean parte hartzerako (19:00).

### ESANAK

**"Sentsibiltate baten adierazpena ez da delitu bat"**

ARRASATEKO UDAL GOBERNUA

## Santa Ageda bezpera: ohiturari muzin egin barik, kanturako eguna

40-50 parte-hartzaile espero ditu koroak; 14:00ak aldera udaletxean abestuko dute

Z.V.D.M./J.B. | ARRASATE

Santa Ageda bezpera da gaur, Euskal Herriko eguna. Aspal-diko tradizioari utsiz, koroak herriko zein auzoetako bazterrak kantuz alaituko ditu.

### Kantuan, goizetik gauera

08:00etan, 40-50 bat lagunek meza entzungo dute parrokiaren eta, ondoren, bi talde egingo dituzte. "Bata Bedoñara joango da eta, bestea, Musakolara". Hala esan digu Jesus Mari Zabala koroko kideak. Goizean zehar sakaba-

natuta arituko dira eta 14:00ak inguruan udaletxean elkartuko dira abeslari guztiak saio ofizialerako. Bazkalostean, San Viator eta Erguingo ikasleak bisitatuko dituzte; 16:30ak baino lehenxeago izango da.

Kalea ere girotuko dute; 19:00etan Monte taberna kanpoan abestuko dute, eta ondoren, talde bat Erdiko kaletik abiatu bitartean, bestea Iturriotzetik joango da. Eguna amaitzeko, 21:00etan, Herriko plazan abestuko dute.



Santa Ageda koroa 2012an, udaletxeko saioan. | JOKIN BEREZIARTUA

## Gurasoei zuzendutako sexualitatearen gaineko bi saio antolatu ditu Udal Sexologia zerbitzuak

Gurasoendako bi saio eskainiko ditu asteon Udal Sexologia Zerbitzuko Montse Velascok. Bihar, 2 eta 6 urte arteko seme-alabak dituztenen gurasoendako, *Sexualitate aske eta osasuntsu baterako oinarriak eraikitzen*. Beste saioa hilaren 7an izango da, 6 eta 12 urte arteko seme-alabak dituztenentako: *Sexu identitate sendoak eraikitzen*. Bi saioak, Kulturategi Loramendi gelan (18:00).

## Asfaltatze-lanek eragina izango dute autoen zirkulazioan eta autobus urbanoaren zerbitzuan

Agerre kalean gaur igarriko dira lanak. Garibai kalean berriz, bihar egingo dituzte lanok eta egun osoan zehar itxita egongo da erreil bat. Bestalde, autobus geltokietan ere etena egongo da. Gaur, Santa Teresa kalean 14:00ak eta 18:00ak bitartean ez da geltokirik egongo. Garibaian, 17:00etatik aurrera eta bihar egun osoan zehar; erlojuaren eraikinaren ondoan geldituko da.

## Ospitale inguruan auzo konposta egin gura duten bizilagunekin bilera irekia egingo du Udalak

Arrasateko Udalak auzo konposta egin gura duten bizilagunekin bilera berri bat deitu du. Oraingoan Nafarroa etorbidean, ospitale inguruan, bizi diren herritarrengana jo dute. Etzi da hitzordua, hilak 6, Aspace eguneko zentroaren ate aurrean (18:30). Udalak jakinarazi duenez, Ingurumen batzordeak gaurko izango ditu Uribe auzoko datuak.

## 'Zuzeneko Instanteak' erakusketa ikusteko aukera asteon Kulturaten, Korrika Kulturari esker

Korrika Kulturaren barruan, *Zuzeneko Instanteak* izeneko erakusketa ikusteko aukera egongo da gaur hasi eta hilaren 10era arte. Argazki erakusketa da, 20 argazkilari ezberdinen lanekin: "Ez dira profesionalak, argazkilaritza eta musika uztartzea gustuko duten argazkilariak baino ez dira", dio erakusketa iragartzeko eskuarriak.

# Epeleko ibai-ekosistema aberatsa desagertzeaz dagoela salatu dute

- ▶ Basabelar eta Besaide elkarteek eman dute biodibertsitatearen aurkako erasoaren berri
- ▶ Helburua da halako jokabideak ez errepikatzeko neurriak hartzea, legedia errespetatuz

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Epeleko ibai-ekosistema desagertzeaz dela salatu dute Basabelar Ingurugiro elkarteak eta Besaide mendizale elkarteak. Arrasateko biodibertsitatearen aurkako eraso larria ei da -oso gune aberatsa da-eta- eta ekintza horien berri eman dute aurrerantzean jokabide horiek errepika ez daitezela. Besaideko Aitor Zubiaga eta Basabelarko Urtzi Mendizabalek eraman gaituzte bertara; kaltea *in situ* ikusteko aukera izan dugu.

Ibai-ekosistema osoaren kontrako eraso da: ibaiaren ibilbide naturala kaltetu dute, haltzadi ederra inongo eskrupulu barik bota dute eta olio-isuriak ere izan dira. Zubiagak ez du ulertzen hau nola gerta daitekeen oraindik: "XXI. mendean, Arrasaten, hau oraindik gerta daiteke? Jarraibide batzuk ditugu halako kasuetarako eta ez dira betetzen. Sentsibiltate apur bat duen pertsona bat ez bada pasatzen eta honen berri ematen, hurrengoan ere modu berean jokatuko da", dio oraindik interbentziorik jasan ez duen erreka ondoan, paraje natural ederrean: "Finean, helburua da inguru eder honek horrela jarrai dezala".

## Eskaera zehatzak

Urtzi Mendizabalek, bestalde, legeak babesten duen eremua dela nabarmendu du: "2006ko Uraren Euskal Legeak zehazten du uraren kalitatearekin zerikusia daukan ibai-ekosistema ondasun publikoaren barruan dagoela eta beraz, babestu egin behar dela". Era berean, babes-banda bat zehaztea eskatu du: "Zehatz-mehatz jakiteko non amaitzen den jabetza pribatua eta non hasten den guztio den ondasuna, metrotan".



Zubiaga Epele errekan. Hodi bat jarri dute ibaiaren ibilbide naturala kaltetuz.



Interbentziorik jasan ez duen erreka tartea. Helburua, hori hala mantentzea.

Besteak beste, eremu hori Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean (HAPO) zehaztea eskatzen du Mendizabalek.

Gainera, herritarren osasunaren aurkako eraso dela dio: "Jokoan ez dago bakarrik toki polit bat galtzea, ez. Jakina da kontsumorako ura gero eta eskasagoa dela; halako ekintzek joera hori handitu baino ez dute egiten".

Horren harira, Barakaldoko kasua aipatu du: "100.000 pertsona ur barik geratu ziren kontrolik gabeko hondakin isuri baten ondorioz. Estrategikoki Epele errekek, bere uraren kalitate onagatik, garrantzia handia dauka Arrasaterendako. Hala jarraituz gero, helduko da eguna noiz ezingo dugun ur onik edan bere garaian babes ez genuelako".



Baso-moztaileak, haltzaldia botatzean, ez du erreka kontuan hartu.



Zubiaga saihesbidera irtetear. Erreka hor bertan dago. | ARGAKZIAK: JOKIN BEREZIARTUA

## ESANAK

**"Helduko da eguna noiz ezingo dugun ur onik edan bere garaian babestu ez genuelako"**

URTZI MENDIZABAL | BASABELAR ELKARTEA

**"Ez bada honen berri ematen hurrengoan ere modu berean jokatuko da"**

AITOR ZUBIAGA | BESAIDE ELKARTEA

## Udaltzainek, ibilgailu hibridoak

Bi ibilgailu erosi ditu Udalak udaltzainendako. Hibridoak dira, hots, motor elektrikoa eta gasolinaduna konbinatzen dute. Azken urteetan autoak alokatu egin dituzte baina ikerketa baten arabera, merkeagoa irteten da erostea. Bat konpaktu erakoa da eta bestea, berriz, lur orotarakoa. Otsailaren 1ean heldu ziren.





Neska-mutiko koadrila ogitartekoa jaten, lan gogorra egin eta gero. | GOIENA

## 'Zure motxilan bokata bat' kanpaina Bergarara dator

Ariznoa gimnasia erritmiko taldeko neskek hartuko dute parte bertan

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Eguaztenean aurkeztu zuten *Zure motxilan bokata bat egunero* izeneko kanpainaren bigarren edizioa Donostian, iazko "arrakastaren" ondotik. Bigarren aldia berrikuntzekin dator, gainera: iaz soilik Gipuzkoako hiriburuko ikastetxeetan egin bazuten ere, aurten Irun, Lasarte-Oria, Andoain eta Bergarara zabalduko dute, eta kirol elkarteetan ere egingo dute. Modu horretan helduko da, hain justu, Bergarara: gimnasia

erritmikoko Ariznoa Elkarteak esku hartuko du kanpainan; eguna zehaztea falta da. Merienda osasungarri baten alde egitea da helburua, tradiziozko ogitartekoaren aldeko jarduera da, azken finean. "Super Amara enpresa da gure babeslea eta kanpainaren bultzatzaileetako bat da. Bergarara etortzeko proposamena egin ziguten eta oso ondo iruditu zitzaigun. Apirillean edo maiatzean etorriko dira. Asmoa da entrenamendu saio batera etortzea eta

bukatu ostean neska-mutikoei bokatak banatzea", kontatu digu Ariznoako Lorea Alberdik.

### Betiko ogitartekoaren alde

Kanpainaren bultzatzaileek dei egiten diete gurasoei ogia zatitu eta barruan txorizoa, gazta, txokolata, urdaiazpikoa eta tanke-rako jangaiak jar ditzaten. Umeen artean opil industrialen kontsumoa jaitsi eta betiko ogitartekoaren alde egiteak onurak ekartzen dituela diote.

## Mikel Mitxelenaren erakusketa ikusteko azken egunak dira; otsailaren 10era arte dago zabalik

A.B. | BERGARA

Mikel Mitxelena errenteriarraren erakusketa azken txanpara iritsi da. Otsailaren 10ean itxiko ditu ateak, beraz, interesa dutenek gaur hasi berri dugun astea duten Aroztegi aretora hurbiltzeko azken aukera.

### Jaizkibelgo haitzak

Sabino Gomezek erakusketarako egindako sarreran honela aurkezten du erakusketa: "Mikel Mitxelena Otegik ustekabeen harrapatu gaitu, Jaizkibeleko amildegieta mundu osoan bakar-rak diren ahitzen argazkiak aurkeztu dizkigunean. Jaizkibelen, oso leku zailetan zeuden haitz izugarri ederren berri izan zuenean, Mikelek bere ekipamendua hartu eta haitz miresgarri ahietan erosiak hitz gabeko poesia zintzelkatu zuela ikusi zuten, hain ziren erakargarriak


amaigabeko bisitak egin dizkie Mikelek, ia aspertu arte".

Aranzadi Zientzia Elkarteak espeleologo Carlos Galanek ere aipatu du Mitxelenaren erakusketa: "Argazki ibilaldi honetan ikusiko dituzuen kolore eta diseinu harrigarriak erakusten digute Jaizkibeleko Pseudokarst-ean orain arte ikusle gehienentzat ezezagunak diren inguru eta nolako altxor geologikoak eta biologikoak gordetzen diren".

Argazkilaritza, geologia edo biologia gustuko dutenendako erakusketa ezin aproposagoa beraz, Aroztegiakoa.

### Aroztegi aretoko ordutegia

Barrenkaleko aretoa zabalik dago astelehenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era eta domeka eta jai egunetan 12:00etatik 14:00etara.



Erakusketako irudi bat. | MIKEL MITXELENA



Erakusketako irudi bat. | MIKEL MITXELENA

## Erentxunen eta Irazokiren kontzertua, besteak beste, otsaileko kultura agendan

'Confidencias de un futbolista' bakarriketa aurkeztuko du Zabalotegin Zuhaitz Gurrutxagak

A.B. | BERGARA

Aratusteeek pisu handia izango duten arren, otsaileko kultura eskaintza ez da Inauterietara eta moztarotara mugatuko. Udalak agenda oparora antolatu du, beste behin ere.

Musikari dagokionez, aipatzekoa da otsailaren 15ean Mikel Erentxunek eta Joseba Irazokik Zabalotegi aretoan emango duten kontzertua. Izan ere, abeslari donostiarra Irazokiren laguntzarekin ikusi dugu azkenaldian taula gainean. *En privado* izeneko bira egiten dihardute. Sarrera hamabost euro ordaindu beharko da.

### Futbolzaleendako hitzordua

Azkenaldian han eta hemen bakarriketak egiten dihardu Realeko jokalaria ohi Zuhaitz Gurrutxagak. Bada, Bergaran izango da otsailaren 22an. Zabalotegi aretoan izango da emalaldia eta sarrera zortzi euro ordaindu behar da. Futbolzaleek asko gozatuko duten hitzordua izango da, seguruenik.

### Ikastaro eta tailerrak

Makillatzea gustuko dutenek nola egin ikasteko aukera aparta daukate hilabete honetan. *Makilajea, zaindu zure azala* izeneko ikastaroa eskainiko da otsailaren 20tik 27ra Migel Altuna institutuan. Teknologia berriak gustuko dituztenek, bestetik, GPS eta ordenagailu ikastaroa ere izango dute otsailaren 11tik 14ra. Bi ikastaro horiek Bizikasik antolatzen ditu eta izena emateko 943 76 93 94 telefono zenbakira deitu behar da.

Bertako euskara ikasteko ikastaroa ere egingo da otsailan. Egunak zehazteke daude oraindik, baina interesa dutenek 943 76 44 53 telefonora deitu behar dute.

### Hizkuntza ekologia

Jardunek antolatuta azkenaldian boladan dagoen gai baten inguruko hitzaldia egingo da otsailaren 20an: hizkuntza ekologia. Hitzaldia 19:00etan izango da kultura etxean.



Mikel Erentxun abeslari donostiarra Bergaran izango da. | GOIENA

## Goizean eta arratsaldean Santa Ageda bezperako koplak entzungo dira gaur Bergarako kaleetan

Hiru ikastetxeetako neska-mutikoak kantuan egitera irtengo dira gaur, astelehena. Aranzadi ikastolako eta San Martin eskolako ikasleek arratsaldean abestuko dute eta Mariaren Lagundikoeak, berriz, goizean (LH eta HH) eta iluntzean (DBH). Horrez gain, azken hamar urteotan egin duten moduan, Aranzadi ikastolako gurasoek kalejira egingo dute, 19:00etan hasita. Erretiratuek goizez jardungo dute kantuan eta Alai Taldekoek iluntzean giro-tuko dituzte Bergarako kaleak.

## Ohitura zaharrak berreskuratuz, egueneko sorgin-dantzarekin hasiko dira aurten Aratustek

Xamatx dantza taldeak eskainita eta Bergarako Txistulari Bandaren laguntzarekin sorgin-dantza egingo dute eguenean, hilak 7, 18:00etan. Modu honetan, azkenaldian desagertuta egon den ohitura berreskuratu nahi izan da. Dantzariak ondorengo ibilbidea egingo dute: San Martin plaza, Barrenkale, Simon Arrieta, Fraiskozuri eta Martinez de Irala. Horrez gain, Bergarako Musika Eskolako trikitilariak kalejira egingo dute. Eguenetik aurrera, beraz, festa giroa iritsiko da herrira.





Madrilgo Perras salvajes taldea, kontzertuan. | FOTOKURO.WORDPRESS.COM

## Entzumenari ostikoa ematera dator osteran Tapoifest jaialdia

Otsailaren 22an eta 23an egingo dute hardcore-punk jaialdia, gaztetxean

XABIER URZELAI | BERGARA

Bergarako Txapa Irratiko *Jaritzazu tapoiak, mesedez* irratsaiko Txinbo, Kepa eta Raul burubelarrak dabilta lanean, datorren otsailaren 22ko eta 23ko asteburuan egingo duten hardrock-punk

jaialdia prestatzen, Tapoifest. Hain zuzen, hitzordua iritsi aurretik hiru saio izango dituzte irrastian (21:00-22:00 artean), eta saio horiek Tapoifesterako gonbidatu dituzten taldeen berri emateko erabiliko dituzte: "Euren musika

jarriko dugu, taldeko kideak elkarriketatu... Asmoa da talde horiek apur bat ezagutaraztea".

Hiruko horrek iaz antolatu zuen lehenengoz Tapoifest, eta esperientzia ona izanda, aurten errepikatzea erabaki dute: "Ingu-

### TAPOIFEST-EKO EGITARAUA

OTSAILAK 22, EGUBAKOITZA, 22:30

Managaitz (Zarautz).

Hardflip (Bergara).

HHD (Gipuzkoa eta Bizkaia).

Kaosarenasoak (Eibar-Soraluze).

OTSAILAK 23, ZAPATUA, 18:00

Lukas Prest (Eskoriatza).

Layo Raser (Irun).

OTSAILAK 23, ZAPATUA, 22:30

Hernia (Zarautz).

Humilitate (Zarautz).

Perras Salvajes (Madril).

ru honetan musika estilo honek ez ditu horrenbeste jarraitzaile, eta halako jaialdiekin dugun hutsunea betetzera dator Tapoifest. Zarautz, Mutriku... Ingu horretan musika estilo honek zale gehiago ditu", adierazi digu Raulek.

Iaz bezala, aurtengo jaialdian ere belarrietarako tapoiak banatuko dituzte ikusleen artean, entzumenak babesteko: "Kontzertu guztiak agertoki txikian egingo ditugu. Egubakoitzeko sarrera 3 euro izango da, eta herriko DJak izango dira ondoren. Eta zapatu arratsaldeko kontzertuen artean iazko jaialdiko irudiak erakutsiko ditugu".

## Imersoko 2.000 lagun izango ditugu aurten bisitan

M.B. | BERGARA

Azken urteetan Imersorekin bidaiatzen duten erretiratu asko etorri da bisitan Bergara Debagoieneko Mankomunitatearen eskutik. Bide horretan, aurten ere bisita ugari espero dira. Hain zuzen, Imersoko 40 bat autobus etortzea aurreikusten da; 2.000 pertsona inguru.

### Bisita atseginagoa egiten

Zalantza barik bisitari kopuru esanguratsua da hori eta, bidaiarion egonaldia atseginago suerta dadin -eta bisitari gehiago erakartzeko- zentzuzko erabakia proposatu dizkiote Udalak eta Mankomunitateak bidaia agentziari: besteak beste, san Martin plazan bertan jaisteko aukera eta bisita gidatua egitea.

Horrekin batera, herri giro berezia sortzeko eta inguruko dendetan zein tabernetan mugimendua sustatzeko ahalegina ere egingo du Udala.

Bai bisitariak bai bidaien antolatzaileak pozik daude esperientziagatik eta herrian izandako harreragatik.

## Plaza libreak Miguel Altunan Hobetuz-en ikastaroetarako

LAIDA BERISTAIN | BERGARA

Hobetuzek lagundutako hainbat ikastaro antolatu dira Miguel Altuna institutuan. Oraindik plaza libreak daude ikastaro horietan izena emateko; batez ere, langileentzat. Ikastarook, salbuespenik ezean, astelehene-etik eguenera 18:00etatik 20:30etara izan ohi dira. Plazen %60 langileei zuzendurik daude eta %40, langabeei.

### Zortzi ikastaro

Zortzi ikastaro dira guztira: Txirbil harrotze bidezko mekanizazio lanetarako makina eta erreminten prestakuntza (80 ordu, otsailaren 19tik apirilaren 16ra); Lan arriskuen prebentzioa (30 ordu, otsailaren 4tik otsailaren 28ra; txirbil harrotze bidez

mekanizatutako produktuen egiaztapena (30 ordu, otsailaren 4tik otsailaren 28ra); automatismo elektrikoen muntaia eta konponketa (60 ordu, otsailaren 4tik martxoaren 21era); etxebizitzetako tentsio baxuko instalazio elektrikoen muntaia eta mantentzea (80 ordu, otsailaren 4tik martxoaren 26ra); ikuspen artifiziala (30 ordu, otsailaren 18tik martxoaren 7ra); oinarriko elektronika (50 ordu, otsailaren 4tik martxoaren 14ra); eta zubi garabien erabilera (17 ordu, otsailaren 18tik otsailaren 27ra)..

Informazio gehiagorako edo izena emateko 943 76 70 49 telefono zenbakira dei daiteke edo [ikastaroak@imaltuna.com](mailto:ikastaroak@imaltuna.com) helbidera idatzi.

## Arautuste-kontzerturako eta Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoak ikusteko sarrerak salgai

Gaur, astelehena, 18:00etan jarriko dituzte salgai kontzerturako sarrerak eta eguenera arte eskuratu ahal izango dira. Pailazoan ikuskizunerako sarrerak, berriz, bihar, martitzenean jarriko dituzte saltzen eta egubakoitzera arte erosi ahal izango dira. Biak ala biak kultura etxean eta [www.bergara.net](http://www.bergara.net) atarian eskuratu ahal izango dira. Sarrerok zenbakituak izango dira, eta, ikuskituz eguna baino lehen guztiak salduz gero, emanaldiaren egunean ez da leihatila irekiko.

## Zabalik dago Koldo Eleizalde literatura lehiaketan lanak aurkezteko epea

Bost generotan parte hartu ahal izango da: ipuin idatzia, bertsoak, komiki-tira, ipuin kontaketa edo antzerkia eta txisteak eta umorezko pasadizoak

M.B. | BERGARA

Bergarako Udaleko Euskara batzordeak kaleratu ditu dagoneko Koldo Eleizalde literatura lehiaketaren 2013ko edizioan parte hartzeko oinarriak. Urtero bezala, lehiaketan, Bergaran jaio edo bizi direnek zein bertan ikasi edo lan egiten dutenek har dezakete parte, bakarka zein taldeka.

Aurtengoan bost generotarako aurkeztu ahal dira lanak: Ipuin idatzia, bertsoak, komiki-tira, ipuin kontaketa edo antzerkia eta txisteak eta umorezko pasadizoak. Lehenengo 3 generotan lanak paperean aurkeztu beharko dira. Ipuin kontaketa, antzerkiak, txisteak eta pasadizoak, berriz, ikus-entzunezko euskarrietan aurkeztuko dira. Kasu guztietan gaia librea da eta lanak originalak eta aurrez saritu gabeak izan beharko dira.

### Adinaren arabera sarituko da

Adinaren arabera, genero bakoitzaren baitan kategoria desberdinak sarituko dira eta kategoria bakoitzean emango diren sariak ere desberdinak izango dira.



Iazko irabazleak, saria jaso ondoren. | GOIENA

DATUA

27

URTE

1986. urtean hasi zen Udala literatura lehiaketa antolatzen eta 2001ean Koldo Eleizalde herriko euskaltzale ezagunaren izena hartu zuen.

Sarien gaineko informazio gehiago zein lanak aurkezteko modua honako helbidean kontsulta daiteke: <http://www.bergarakoeuskara.com/koldo-eleizalde-lehiaketa>.

Koldo Eleizalde lehiaketa Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatzen du urtero. 1986. urtean hasi zen Bergarako Udala literatura lehiaketa antolatzen eta 2001n eman zitzaion izen hau euskaltzale bergarar ezagunaren omezez.

## Euskara mintzagai Elkar Hezi ikastetxearekin

Mahai ingurua egingo dute Alex Sardui, Jon Maia eta Peio Ospitalekin batera hilaren 8an

M.B. | OÑATI

Elkar Hezi ikastetxeak, "euskarekiko eta euskal kulturarekiko dugun konpromisoarekin jarraitzeko" helburuarekin, euskara oinarri izango duen mahai ingurua antolatu du hilaren 8rako. Mahaiaren bueltan egongo dira Jon Maia, Peio Ospital eta Alex Sardui. "Hiru euskararen gainean paper garrantzitsua jokatu dute eta jokatzeko dihardute, nork bere esparruan", esan dute Elkar Heziko ordezkariak. Santa Anan izango da, 19:00etan.

Parte-hartzaileek euskararen erabilera eta hizkuntzaren bikaintasunaz egingo dute berba, baina bestelako une hunkigarriz ere jantziko da ekitaldia. Ildo hori abiapuntutzat hartuta, erabilera maila, kalitatea,

egokitasuna, zuzentasuna eta euskalki batuaz jardungo dute.

Ekitaldi berean *Euskara ixuketan* sariak banatuko dituzte. Sari horiekin, "gure inguruan esparru ezberdinetan euskararen suspertze lanetan aritu diren eragileei gure esker ona adierazi gura diegu", esan zuten. 11 sari banatuko dituzte, eta, besteak beste, Natur Eskolak eta Euskaltegiak egindako lana aitortuko dute.

### Urrezko Bikain ziurtagiria

"Gure ikastetxeak euskal kulturaren eragile izatea du helburu nagusietako bat, eta Urrezko Bikain ziurtagiria eskuratu izanak frogatzen du", esan zuten aurkezpenean.



Auzo-konpost guneetako bat Ugarkalden ipiniko dute. | MIREIA BIKUÑA

## 415 herritarrek parte hartu dute auzo-konpostako batzarretan

Interesatuak oraindik izena eman dezakete Kale Zaharreko eta San Lorentzoko informazio bulegoetan, otsailaren 5era arte

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Auzo-konposta egiteko Udalak egindako deialdiak "erantzun zabala" izan du herritarren artean. 415 herritarrek parte hartu dute aurreko asteko bileretan. "Zifra polita da. Oso gustura gaude emaitzarekin", esan digu Leire Egañak, Ingurumen batzordeko buruak.

Aurreko astean, informazioa banatzeko lau bilera egin zituzten udal ordezkariak. Auzo-konposta zer den eta zer onura dituen azalzteaz gain, konposta egiteko interesa duten herritarren datuak batu zituzten. Oraindik, dena den, izena eman daiteke, otsailaren 5era arte: Kale Zaharreko eta San Lorentzoko informazio bulegoetan. Era berean, konposta egiteko guneak zeintzuk izan daitezkeen azaldu zuten.

Euren asmoa da martxoko bigarren asterako martxan egotea gune horiek.

### Bigarrenean, formazioa

Informazio batzarrak egitea auzo-konposta martxan ipintzeko lehen pausoa izan da. Bigarrena formazioa izango da. Orduan, gune bakoitzerako arduraduna eta funtzionamendu arauak adostu,

eta konposta egiteko kontuan hartu beharrekoak azalduko dizkiete.

Une horretan, eta auzo-konposta egingo duten herritarren

bizilekuak aintzat hartuta, zehaztuko dituzte eremuak. "Artelatzek hainbat gune proposatzen dizkigu, baina formazio bileretan zehaztuko ditugu. Guztiak lorategietan ipiniko ditugu", dio Leire Egañak.

### ESANAK

**"Formazio bileretan zehaztuko dira guneak"**

LEIRE EGAÑA | ZINEGOTZIA

### Jarraipen lanak egingo dituzte

Udalak, berriz, jarraipen lana egingo du auzo-konpost guneetan. Eta zalantzak argitzeko edo sortzen diren arazoei irtenbidea emateko, aholkularitza zerbitzu bulegoa zabalduko du. Horrez gainera, urtean zehar egokituko diren eremuen ikuskaritza lana ere egingo du.

### Bigarren faseko batzarrak atzeratuta

Gaur hastekoak ziren atekoaren bigarren fasea bertan behera utzi dute. "Jaso ditugun ekarpen pila aztertzeke denbora gehiago behar dugu. Horregatik atzeratu ditugu bigarren faseko batzarrak. Aurrerago jakinaraziko dugu noiz izango diren hurrengo bilerak", esan dute udal ordezkariak.

Lehenengo batzarretan 1.398 herritarrek parte hartu dute, eta ordezkartuta egon diren bebarrak %87 izan dira. "Gobernu Taldetik oso balorazio positiboa egiten dugu parte-hartze prozesuko datuengatik, jasotako ekarpen pilagatik eta bileretan izandako eztabaida-giro baketsuagatik", adierazi dute.



Elkar Heziko irakasle eta ikasleak aurkezpenean. | TXOMIN MADINA

## Herriko ikastetxeetan haur abesbatzak bultzatzeko ekimena

Ganbara Txiki abesbatzak urria ezkererako dihardu lanean herriko 150 neska-mutikorekin

M.B. | OÑATI

Ganbara Txiki abesbatzak eta herriko ikastetxeek elkarlanean dihardute, musika koral indartzeko asmoz. Hori horrela, Errekalde Herri Eskolan, Elkar Hezin eta Txantxiku Ikastolan haur abesbatza bana osatu dute. Guztira, Lehen Hezkuntzako 150 neska-mutikorekin lanean dihardute. Entseguak ikastetxeetan egiten dituzte eta abesbatza bakoitzaren arabera egokitu dituzte ordutegiak.

### Hiru irakasle

Musika arloan eskarmentua duten hiru irakasle dute haur abesbatzen arduradunak: Josu Zubia, Ganbara Gazteko kidea, Txantxiku Ikastolako kantu tailerretako bi taldeen eta Elkar Heziko abesbatzaren arduraduna

na da; Miren Gurutze Plazaola da Errekalde Herri Eskolako zuzendaria; eta Araceli Guridi izango da piano-jotzailea hiru abesbatzekin.

Abesbatza bakoitzak, bere ikastetxeko ekintza berezietan emanaldiak egiteaz gain, Ganbara Txikiko taldeekin batera ere emanaldi bat eskainiko du udaberrian.

### Talde berriak bi urtean behin

Ikastetxeetako abesbatzak sortuta, sorreran planteatutako proiektua osatu du Ganbara Txikik. Bi urtean behin taldeak sortu dituzte: 2004an, Ganbara Txiki eta Ganbara Txikitxoak; 2006an tailerretako taldeak; eta 2008an Ganbara Gazte. Datorren ikasturtea Ganbara Txikiren hamargarrena izango da.

### Ospederiako langile ohien bazkaria hilaren 24an

Arantzazuko Ospederian lan egin duten langileek bazkaria egingo dute. Hilaren 24an elkartzeko dira, mahaiaren bueltan, garai bateko kontuen gainean berba egiteko. Dagoeneko zabaldu dute izena emateko epea. Interesatuak 661 05 99 91 (Edurne) telefonora deitu beharko dute lekua hartzeko.

### Matrikulazio epea zabalik ikastetxeetan egubakoitzera arte

2013-14 ikasturtean eskolan hasi behar duten umeen gurasoek zabalik dute izena emateko epea. Txantxiku Ikastolan, Elkar Hezin eta Errekalde Herri Eskolako idazkaritzetan eman behar da izena hilaren 8a, egubakoitza, baino lehen.

Orain izena ematen duten neska-mutikoei irailan hasiko dituzte eskolak.

### Udal zerbitzuen gaineko inkesta egiteko azken egunak

Udal zerbitzuen gainean herritarrek duten iritzia jakiteko inkesta abiarazi zuen Udalak urtarrilean. Bada, herritarrek galdetegi egiteko aukera dute otsail bukaera arte. Besteak beste, udaletxearen, kultura etxearen, kiroldegaren, gizarte zerbitzuen eta Udaltzaingoaren lanari buruzko iritzia eman behar dute.

## ARETXABALETA / ESKORIATZA

# 1994. eta 1995. urteetan jaiotakoak dabilta eskean

- ▶ Santa Agedaren bueltan, baserriz baserri ibiliko dira gaur bi herrietako gazteak
- ▶ Bihar, 19:00etan, dantza egingo dute neska-mutikoek herriko plazetan

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Zapatuan egindako Kinttada Egunaren ondoren, koplari kopla eskean ibiliko dira datozen bi egunotan Eskoriatzako kintoak Santa Agedaren harira. Aurten, 1995 urtean jaiotako txanda da. Betiko moduan, gaur, otsailak 4, baserriz baserriko joango dira abesten; eta bihar, Santa Ageda Eguna, herriko kaleetatik ibiliko dira kantuan, eta 19:00etan, dantza egingo dute plazan. Ohiturari jarraituz, domekan dantzaldia errepikatuko dute, ordu eta toki berean.

**Aretxabaletan, hiru hitzordu**

Aretxabaletan ere kaleak hartuko dituzte Santa Ageda neska-mutilek. Han 1994 urtean jaiotakoak irtengo dira aurten; hain justu, 40 gazte inguru. Eskoriatzan bezala, gaur, baserriak bisitatu dituzte, eta bihar, oster, herriko kaleetan ibiliko kantuan eta eskean. Eta 19:00etan, dantzan egingo dute Herriko plazan.

Kintoena, dena dela, ez da Santa Agedaren bueltan antolatutako ekimen bakarra. Leizarra musika eskolako ikasleak eta Aretxabaleta Abesbatzako kideak

ere kantuan ibiliko dira gaur, 18:30etik 20:00etara, kalean. Eta Kurtzebarriko ikasleak kantuan aterako bihar; 09:20an udaletxe aurrean abestuko dute, eta jarraian, kalejira egingo dute herriatik.

**Urdelardero Eskoriatzan**

Bestalde, egunean, Urdelardero egingo dute Eskoriatzan: 10:30ean kalejira irtengo dira umeak, eta ordubete beranduago, txistorra jango dute plazan. 17:00etan, *MagiClow* ikuskizuna hasiko da pilotalekuan, eta hori amaitzean, txokolate jana izango da.



Joan den urteko Eskoriatzako kintoak, plazan dantza egiten. | GOIENA

## ARETXABALETA

## UDAKo zuzendaritza osatzeko kanpaina abiaraziko dute

M.B. | ARETXABALETA

Joan den astelehenean egindako ohiko batzarrean, Aretxabaleta Kirol Elkartearen, UDAREN, zuzendaritza berria osatzeko prozesua martxan jartzea adostu zuten. Uztailean egingo duten batzar orokorrean izendatuko da zuzendaritza berria.

UDAKo presidente Juan Mari Enekotegik bidalitako prentsa oharraren bidez, bazkide guztiei jakinarazi gura izan zaie 2012-13 denboraldia amaitzean elkartearen estatu-

tuen araberako zuzendaritza berria osatu beharra dagoela, eta interesa dutenak dagoeneko hautagaitzak prestatzen has daitezkeela.

Horrekin batera, jakinarazi dute zehazteke daudela oraindik kanpainaren nondik norakoak, eta, erabakiak hartzen doazen heinean, horien berri ematen joango direla; esate baterako, hautagaitzak aurkeztu ahal izateko informazio osatua eta uztailean egingo den batzarrari buruzko datuak.

## OHARRAK

**ODOL ATERATZEA**

Gaur, astelehena, odola eman ahal izango da Aretxabaletako osasun etxean, 16:30etik 20:00etara. Arabako odol bankukoek jakinarazi dute azken bi astelehenetan egindako odol aterazteetara 92 lagun joan zirela,

horietatik 78k eman zutela odola eta bi berriak izan zirela.

**KONPOST IKASTAROA**

Bihar, martitzena, auzo eta auto-konposta egiteko formazio saioa egingo dute. Hitzordua Arkupe kultura etxean da, 19:15ean.

## Aretxabaleta Lanbide Eskolakoek elikagai bilketa jarriko dute martxan

M.B. | ARETXABALETA

Egunean, otsailak 7, elikagai bilketa solidarioa abiaraziko dute Aretxabaleta Lanbide Eskolakoek. Antolatzaileek jakinarazi dute bilketa horretan jasotako guztia Gipuzkoako elikagai bankura eroango dela, inguruan krisi ekonomikoa gogor jasaten ari direnei laguntzeko.

Aretxabaletako Lanbide Eskolako ikasleak gaur egungo arazo sozialen aurrean sentsibilizatzeko egiten dabilta "esfortzuaren" harira dator asteon martxan jarriko duten kanpaina. Horren harira, nabarmendu dute edonork parte har dezakeela, bertako ikaslea izanda edo ez. Honakoa azaldu dute: "Laguntza eman nahi duen edonork ikastetxe sarreran prestatu den txokoa utzi ahal izango ditu elikagaiak; besteak beste, arroza, lekaleak edo pasta bezalako behar-beharrezko elikagaiak". Hain justu ere, galkorrak ez diren produktuak eroateko eskaera egin dute.

**300 kilotik gora**

Horretaz gainera, jaso daitekeen aurreikuspena ere egin dute. Horretarako, Aretxabaleta Lanbide Eskolaren tamaina izan dute kontuan. Antolatzaileek azaldu dute 300 kilo biltzeko helburuarekin ekin diotela kanpainari; dena dela, gaineratu dute aretxabaletarren elkartasunak 300 kilo horiek "aise" gaindituko dituela.



Galkorra ez diren jakiak batzen. | GOIENA

## ESKORIATZA

## Koadrilaka eman behar da izena Aratusteetako mozorro lehiaketan

M.B. | ESKORIATZA

Mozorro lehiaketarik ez da falta izango aurtengo Aratuste-zapatuan. Parte hartu ahal izateko izena eman behar da aurrez edo egunean bertan herriko pilotalekuan, 16:30etik 17:00etara; eta jarraian, 17:30ean, Luis Ezeizako patioan hasiko den desfilean parte hartu.

Lau lagunetik gorako taldeak izan beharko dira; lehiaketa hasi aurretik koadrila bakoitzari zenbaki bat emango zaio, desfilerako ordena adierazteko, eta, hori bukatutakoan, epaimahaia elkartuko da irabazleak aukeratzeko. Honako hau izango du kontuan: desfilean erakutsitako umorea, sortzen duten giroa, originaltasuna, janzkera, eszenografia eta mozorroak egiteko birziklatutako materialak erabiltzea.

Sari banaketa plazan egingo da. Adinaren arabera egingo dira horiek sailkatuta: Helduen artean 300, 200 eta 100

euroko bina sari banatuko dira eta 16 urtetik beherakoen artean, 100 euroko hiru merienda.

**Txartelak salgai gaur arte**

Lehiaketaz gain, herri bazkaria ere izango da egun berean; txartelak salgai egongo dira gaur arte Inkernu, Goxotxiki eta Aldatz tabernetan. Helduenak 15 euro balio du; eta 14 urtetik beherakoenak, 10 euro.

Menuak ere bi eratakoak izango dira. Helduenak patatak errioxar erara gertatuta, txahal gisatua, tarta, ardoa, sagardoa, kafea eta pattarra izango ditu; eta umeenak makarroiak tomatearekin, txitxi-burruntziak, jogurta, ura eta freskagarriak izango ditu.

Bestalde, Udaletik jakinarazi dute mahaiak erreserbatzeko aukera egongo dela 943 71 46 88 telefono zenbakira deituta, edo [aintzane@eskoriatza.net](mailto:aintzane@eskoriatza.net) postara idatzita. Bazkaria 14:30ean hasiko da, pilotalekuan.

## Torrada lehiaketa zaharren egoitzan

Lehiaketa berria gertatu dute aurten Eskoriatzan: hain justu ere, torrada lehiaketa. Otsailaren 11n, astelehena, egingo dute ekimen hori, zaharren egoitzan. Torrada etxean egin eta 17:00etan egoitzara eroan beharko dira; parte-hartzaile bakoitzak 8 torrada eramango ditu gutxienez. Horrekin batera, kartazal itxi bateko kanpoko aldean ezizena idatziko dute, eta barruan egilearen datuak: izen-abizenak, adina, helbidea eta telefono zenbakia. Torrada antolatzaileen eskuetan geratuko dira dastatzea egiteko.

Sari banaketa hurrengo egunean, hilak 12, egingo dute plazan. Hiru sari banatuko dira: irabazleak 75 euro jasoko ditu; bigarrenak 50; eta hirugarrenak 25 euro. 18:00etan hasiko da ekitaldia.

## 'Hesia gainditzan' estreinatuko dute etzi

M.B. | ARETXABALETA

Aretxabaletako Loramendi euskara elkartearen eskutik *Hesiak gainditzan* izeneko ikus-entzunezkoa estreinatuko da etzi, otsailak 6, Arkupeko Zaria aretoan. 19:00etan hasiko da emanaldia, eta horretarako sarrera irekia da.

Dokumentalak 50eko, 60ko eta 70eko hamarkadetan Euskal Herrira etorri ziren etorkinen hizkuntza joerak aztertzen ditu, horietako askok euskararako jautsia egiteko hartu zuten erabakiaz hitz egingo dute, eta orduko politika linguistikoa ere aipatzen da. Egungo etorkinen egoeraz ere jarduten du. Zuzendaritza, gidoigintza eta produkzio zein post-produkzio lana Artemanek egin du; gidoia, oster, Jon Maiaren kolaborazioarekin idatzi da.



2012-2013 denboraldia hasi zuten Aramaixo taldeko jokalariek. Argazkia 2013ko egutegiendako atera zuten. | GORKA FERNANDEZ

## ARAMAIO

## Aramaixo taldea, laguntasunean eta konpromisoan oinarritutako proiektua

Arabako areto futbol txapelketako Zilarrezko Mailan dago talde aramaioarra, iaz maila galdu zuelako; martitzen eta eguenetan elkartzen dira kiroldegian

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Zazpi urte bete dira dagoeneko areto futbol talde batek Aramaio ordezkatzat duenetik. Laguntasuna, konpromisoa eta futbolarekiko zaletasuna ditu oinarri Aramaixo areto futbol taldeak eta hori aintzat hartuz, martitzen eta eguenetan elkartzen dira kiroldegian aste bukaerako partidua prestatzeko. Jokalarien artean, aramaioarrak eta arratsatearrak dira guztiak, antzeko kopuruan.

Arabako Zilarrezko Mailan dago taldea, iaz Ohorezko Mailatik jaitzi zelako. Lehiakortasunean oinarritzen den talde baten dako lehen helburua mailaz igotzea izan beharko litzateke baina hori, Andoni Elejalde koordinatzaileak dioenez, ez da lehentasuna: "Lagunarteko taldea gara eta guztion babesarekin taldea aurrera eramatea izan zen nire lehen helburua. Izan ere, batuta eta ikasteko gogoz bagaude, badaikit emaitzak etorriko direla". Oraindik aukera dute Ohorezko Mailara igotzeko baina ondo

borrokatu beharko dute, liderra nahiko urrun dago-eta. Horrez gain, taldearen etorkizuna bermatu gura du Elejaldek: "Ni ez banaiz egoten beste batek har dezala lekukoa".

**Motibazioari eustea, zaila**

Elejalde taldearen lehen hiru urteetan aritu zen koordinatzaile moduan eta etenaldi baten ostean 2012-2013 denboraldirako bueltatu da: "Eskoriatzan atezain moduan aritu nintzen urte eta erdiz. Egia esan, ez zuten fedelari izan nigan eta gainera, lesioek ez zidaten batere lagundu;

gero, taldea desagertu egin zen eta orduan erabaki nuen nire herriko taldera bueltatzea". Elejaldek aitortu digu lagunaren arteko talde bat aurrera eramatea ez dela erraza: "Motibazioa mantentzea zaila da, baina aurten oso gustura gabiltza. Intentsitatea eta gogoia badago, eta baita hobetzeko gaitasuna ere. Horrek asko errazten du nire lana".

**Bataz beste, 30 zale leial**

Aurten kanpora egin beharreko irteerak Gasteizera izango dira bakarrik. Etxeko partiduetara, bestalde, gero eta jende gehiago hurbiltzen da: "Zaleak erakartzea izan da nire helburuetako bat eta lortu dugu. Ordutegiak asko eragiten du, baina bataz beste 30 bat jarraitzaile etortzen dira. Oso kopuru polita da hori. Noski, gehiago etor daitezela, taberna zabalik egongo da-eta!".

Aurrerantzean, egubakoitzeko GOIENA paperean jarraipen berezia egingo diogu taldeari, azken emaitza, sailkapena eta hurrengo jardunaldia iragarritz.

## ESANAK

**"Intentsitatea eta gogoia badago; horrek lana errazten du"**

ANDONI ELEJALDE | KOORDINATZAILEA

## ANTZUOLA

## Epea zabalik dago gaztetxoek Bertso Eskolan izena eman dezaten

Ikasturtea otsailaren 6an hasiko da, gazte txokoa, eta eguaztenetan eskainiko dute

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Bertso Eskola martxan da eta eguazteneko 19:00etatik 20:00etara bitartean egingo da. Ume zein gazteendako ikastaroa da -3. mailatik DBHko 2. mailara.

Txomin Alberdi eta Hodei Lete antzuolarrak izango dira Bertso Eskolako irakasle lanetan arituko direnak. Izena emateko:

udaletxean, [kultura@antzuela.net](mailto:kultura@antzuela.net) edo 676 78 66 49 telefonora dei daiteke. Eguaztenean, otsailaren 6an, hasi eta ikasturte bukaera arteko iraupena izango du. Ikastaroaren prezioa: 25 euro.

**KZgunea, orain, eguenetan**

Otsailetik aurrera KZguneko tutoria eguenetan etorriko da, eta ez

martitzenetan. Gainera, ez da astero etorriko, hilean hiru astez baizik, hileko azkeneko astean Elgetako KZgunera joango da-eta tutorea.

Hala, otsailaren 7an, 14an eta 21ean izango da KZguneko dinamizatzailea 09:00etatik 13:00etara bitartean.

**Santa Ageda**

Gaur otsailaren 4a dugu, Santa Ageda eguna. Eta ohitura den legez, kintoak goizeko seietan hasita baserriz baserri ibiliko dira kantuan. Erdigunera ere jaitziko dira eta herriko kale eta auzoetan Santa Agedako koplak kantatuko dituzte.

## ELGETA

## Erretiratuen tute eta briska txapelketek badituzte irabazleak

Hogeitaz aritu ziren karta jokoan Ozkarbin; emakumezkoak 17, eta gizonezkoak 3

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Erretiratuek eguaztenean, urtarilak 30, jokatu zituzten herri mailako briska eta tute txapelketak. Hogeitaz aritu ziren jokoan; emakumezkoak hamazazpi, eta gizonezkoak hiru. Arratsalde pasa egin zuten karta jokoan, eta txapeldunak ere izendatu zituzten. Tutean Arantxa Arrieta eta Jesusita Retolaza bikotea nagusitu zen; briskan, berriz, Juanita Beretxinaga eta Antonia Elkoroberezibar bikotea. Irabazleek ardo botila bana eta gazta erdi bana eraman zuten etxera.

Elgetako txapelketan nagusitu ostean Elgoibarren jokatuko den Debabarrena mailako txapelketan parte hartzeko

aukera dute orain bi bikoteek. Arantxa Arrietak eta Juanita Beretxinagak badute eskarmen-tua, izan ere, 2011an Debabarrena mailako briska txapelketa irabazi zuten elkarrekin. Oraingo honetan ez dira bikote eta Arrieta tutean dabil, baina karta jokoan ondo egiten dutela zalantzarik ez dago.

**Erretiratuen Aratustek**

Inauteri-martitzenerako, otsailak 12, txokolate-jana eta bingo saioa iragarri dute Xalbadorpe erretiratuen elkartetik. Ozkarbi elkartearen egin dute hitzordua 17:00etan. Jakinarazi dute herriko erretiratu guztiak daude ospakizunean parte hartzera gonbidatuta.



Arrieta-Retolaza lehen mahaian; Beretxinaga-Elkoroberezibar atzean. | L.Z.

## LEINTZ GATZAGA

## Aratusteen ostean dira auzo-konposteko bilerak

Parte-hartze bilerak egingo ditu Udalak herritarrekin; jatetxeekin hasi da egiten

OIHANA ELORTZA | LEINTZ GATZAGA

Auzo-konposta egiteko proiektua eginda dute dagoeneko Leintz Gatzagan, eta horren inguruko informazioa ematen hasiko da Udala datozten asteotan. "Herriko jatetxe batzuekin egon gara dagoeneko, iritzia eskatzen eta informazioa ematen. Falta diren jatetxeekin laster egongo gara eta herritarrekin ere egingo ditugu bilerak, informazioa emateko. Hori, baina, Aratustek pasa eta gero izango da", argitu du Eugenio Otsoak, Leintz Gatzagako alkateak.

**Bat edo bi**

Auzo-konpostaren gaia herritarren ahotan badabilela aurreratu du alkateak, eta eztabaida puntu batzuk ere zabaldu direla. "Adibidez, auzo-konposta egiteko gune bat edo bi jarri

behar ditugun herrian, horixe da eztabaida nagusia. Egin beharreko galdera, gainera", dio Otsoak. "Asmoa da, aurrekontuekin egin dugun moduan, bilera parte-hartzaileak egitea herritarrekin auzo-konpostaren inguruan, eta bilera horietan argituko ditugu zalantzak. Horretarako, litekeena da beste herri batzuetan egiten dituzten ereduak ikusi eta datuen azterketa egitea".

Auzo-konposta egiteko gunea edo guneak herri barruan jarriko dituzte; goiko jatetxeek konpostagailu bana izango dute eta baserriarrek ere, nork berea. Hori da, behintzat, hasierako asmoa.

Epei buruz galdetuta, alkateak aurreratu du asmoa dela apirilaren bigarren hamabostaldian jartzea martxan.

# Bazkideentzat abantaila eksklusiboak



## Eraman ezazu beti txartela aldean!



### DESKONTUAK



**Ninika Loradenda**  
Ramon Maria Lili, 8 - Bergara

- %10eko deskontua artikulu guztietan.



**Alzu, S.L**  
Arantzazuko Ama, 2 - Oñati

- Arropetan %10eko beherapena.



**Naren Fisioterapia Zentroa**  
Belorrieta 5 behea - Aretxabaleta

- %15a zerbitzu guztietan.



**Imprespal, C.B Imprimategia**  
Komenio 2 - Bergara

- %5eko deskontua egiten den edozein lan edo erosketetan.



**Biotika**  
Iturriotz 21 - Arrasate

- Hauschka kosmetika etxearen makillaje produktuetan %10 beherapena.



**Estacion Servicio Arrasate**  
San Andres 7 - Arrasate

- % 2a gasolindegian erregaia erositara.
- % 2a dendako produktuetan.



**Begiando Optika**  
Belorrieta, 11 - Aretxabaleta

- %15eko produktu guztietan.
- Kontsulta doan.



**Etxe-Aundi Hotela/Jatetxea**  
Torreazua Auzoa 10 - Oñati

- %10eko deskontua menu berezian (asteburuetaoan) eta kartan.



**Gahir Fisioterapia/Osteopatia**  
Aranburuzabala 6 behea - Eskoriatza

- %50eko deskontua lehenengo kontsultan.

**Gutziz Eder**  
Kalebarria 29  
Oñati



- %10eko deskontua Termason tratamenduan 10 saio hartuz gero.
- Drelimpur tratamendua: 10 bono: 100€. Sesioko: 12€.
- %5eko deskontua\* argizari epelarekin eta beroarekin egindako depilazioetan.

\* Bekainak eta ezpain gainekoa izan ezik.



**Kuttuna Estetika**  
Aranburuzabala 19, behea - Eskoriatza

- %5eko deskontua\* zerbitzu guztietan.

\* Beste promozio batzuk izan ezik



**Caravanas Oñate**  
Otañu Zuhaiztia, 25 - Oñati

- 50€-ko erosketaren egiteagatik, %10 deskontua stockean dauzkaten oinetako eta ehun-gaietan. (ez du balio beste promoziotarako).
- %20-ko deskontua lineako patinetan.



**Oñati Garajea**  
Goribar Auzoa 9 - Oñati

- %5 beherapena egiten diren konponketetan.



**Multiópticas**  
Juan Carlos Guerra, 1 behea - Arrasate  
Ibargarai, 16 Bergara

- %15eko deskontua\*.

\* Ez metagarria beste eskaintza batzuekin.



**Esko Sport**  
Intxaurtueta 5, Eskoriatza

- Arropa eta zapatiletan %10eko deskontua.

### OTSAILEKO SARIAK ETA PROMOZIOAK

**GOIENA Klubeko bazkideei honakoa dugu eskaintzeko. Parte hartu!**



**Nafarroako (Lizarra) Aroa Upategian**

- 4 pertsonarendako bisita gidatua eta bazkaria upategian (2 sari)
- 12 ardo botila ekologiko sorta



- **Arrikruz** kobetarako 10 sarrera
- Amaia Antzokian, otsailaren 10ean izango den **Full Monty** antzerkirako sarrerak (Epea, otsailak 6)
- Espaloia Kafe Antzokia:  
**Pedro Llamas eta Dani Lopez**-en monologo saiorako 4 sarrera (Otsailaren 15 eta 16an)  
**Dani Mateo**-ren monologo saiorako 4 sarrera (Otsailaren 23 eta 24an)

**Sarien izenak**  
**Aroa**  
**Arrikruz**  
**Full Monty**  
**Espaloia**



SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, hain zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

**Parte hartzeko**

**SMS:** KLUBA [sariaren izena]  
[bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira  
**Telefonoz:** 943 25 05 05  
**E-postaz:** kluba@goiena.com  
**WhatsApp bidez:** 688 69 00 08 zenbakira, saria adieraziz

**Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.**

Eskaintza gehiago:  
[www.goienakluba.com](http://www.goienakluba.com)

**Beste abantaila batzuk:**

- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.
- Zozketa eta promozio berezietan parte hartzeko aukera.



Urteko kuota: 50 €.  
Tel.: 943 25 05 05  
[kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)  
[goienakluba.com](http://goienakluba.com)

**goienakluba**  
Abantailaz betetako klubak!



# KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

## Derbiko puntuak, urrezkoak Aloñarendako

- ▶ Gaizka Irizarrek sartu zuen gola 82. minutuan
- ▶ Merezitako garaipena lortu zuten oñatiarrek
- ▶ UDAk ez zuen jaurtiketa bat bera egin lehia osoan

MIREIA BIKUÑA | ARETXABALETA

Derbiko puntuak garrantzitsuak ziren bi taldeendako: Aretxabaletarendako, sailkapeneko goiko lekuei begira jarraitzeko; eta Aloñarendako, lasaitasuna ematen duten postuetan kokatzeko. Oñatiarrek irabazi zuten Ibarako derbia, eta puntuak zuten garrantziaren erakusle, harmailetan zeuden zaleekin besarkatu ziren partidu amaieran jokalaria.

Izan ere, derbiaren amaiera izan zen aipagarriena. Aloña Mendik gola egin zuenetik, partidua bukatu arte. 10 minutu, baina intentsitatez beterikoak.

Lehia osoan zehar bezala, bigarren baloi bat aprobetxatu zuen Aloñak kontraerasoa antolatzeko. Ibai Morenok baloia ondo gidatu zuen eskuin hegaletik, eta garbi erdiratu zuen Gaizka Irizar

zegoen lekura. Oñatiarrek baloia atezainaren gorputzaren azpitik bidali zuen sarera.

Golak eskemak apurto zizkion Aretxabaleteri. Ordurako bi aldaketa eginak zituen Albistegik, eta taldea berrantolatzeko aukera barik geratu zen. Bihotzarekin buruarekin baino gehiago, jokaldiak antolatzen ahalegindu ziren. Batez ere, hegaletatik. Baina ez zuten asmatu. UDAk ez zuen jaurtiketa bat bera ere egin, 90 minutuetan.

### Baloi luzeak zelai erdian

Partidu bukaerako emozioa eta intentsitatea falta izan ziren gainerako minutuetan. Bi taldeak ondo kokatu ziren zelaian, baina baloiak ez zuen jaberik izan. Aloñak baloi luzeak baliatu zituen areatik irteteko, eta UDAk erraz galtzen zuen baloia.

Aldaratzeak aprobetxatu eta bigarren jokaldiak antolatzen hobeto moldatu ziren oñatiarrek. Lehen zatian pare bat aukera egin zituzten, eta besteren bat bigarrenean.

Aloñak gauza gutxi egin bazituen, UDAk askoz gutxiago. Baina talde indartsua du Albistegik eta markagailuan abantaila izan zutenean ere, ondo defendatu zuen Aloñak.

### Atzerapausoa igotzeko bidean

Derbia galtzean, atzerapausoa eman du UDAk Hirugarren Mailarako igoera lortzeko bidean. Bolada ona izan dute, baina atzokoan galduta, eta Real Unione, Hernanik eta Oiartzunek kale egiten ez dutela ikusita, zailago jarri zaie igoera postuetan sartzea. Hori bai, denbora izan badute: 14 jardunaldi aurretik.



UDAk Aitor Arroitauregi eta Aloñako Jon Lertxundi, baloia menderatzeko lehian. | JOSETXO ARANTZABAL

Aloñak bestalde, urrezkoak bihurtu zituen Aurreraren kontra lortutako puntuak. Seitik sei, azken bi jardunaldietan. Hori horrela, salto handia egin dute

sailkapenean. Erdi inguruko postuetan egonda, lasaia jokatu dituzte aurreragoko partiduak. Azkargortak etorkizun handiko talde gaztea dauka.

### EMAITZA

ARETXABALETA

# 0-1

ALOÑA MENDI

### FITXA TEKNIKOA

**Aretxabaleta:** Castellanos, Amutxastegi, Etxabe, Arroitauregi, Azkarraga, Igartua, Eraña, Mar, Perez, Hernandez eta Badillo.

**Aloña:** Agirre, Olalde, Endika, Lazkano, Garmendia, Zubia, Moreno, Uribetxeberria, Irizar, Gaizka eta Lertxundi.

**Besteak:** Harmailetan giro polita egon zen. Oñatiko zale dezente egon zen Ibarra futbol zelaian.

KERMAN AZKARRAGA | UDAKO JOKALARIA

## "Ez dugu jaurtiketa bat bera egin 90 minutuetan; horrela ezin dugu irabazi"

Burumakur zegoen Kerman Azkarraga derbi bukaeran.

### Jokogutxiko derbia izan da.

Bai. Nahiko parekatua izan dela esango nuke. Baloi luzeak erabili ditugu. Biak ala biak partidua ez galtzeko asmoz irten gara. Aloña ondo kokatu da zelaian eta bigarren jokaldietan, gu baino hobek izan dira.

### Merezimenduz irabazi du Aloñak?

Bai. Ez dituzte gol aukera gehiegi sortu, baina bat aprobetxatu



JOSETXO ARANTZABAL

dute gola sartzeko. Atearen aurrean hobeto egon dira, eta merezimendu osoz irabazi dutela esango nuke. Guk ez dugu jaurtiketarik egin, eta jaurtiketa barik ez dago golik, eta gol barik ezin daiteke irabazi.

### Porrotak, igoerarako bidea zailtzen dizue?

Bolada onean geunden, eta gehiago espero genuen. Goiko taldeak hurbil ditugu oraindik, baina eurek ez dute punturik galtzen, eta guk bai. Ezin dugu huts gehiago egin, bestela...

IKER OLALDE | ALOÑAKO JOKALARIA

## "Etorkizunerako konfiantza emango diguten urrezko puntuak dira"

Aloñaren kapitaina, harmailetan zeuden zaleekin besarkatu zen partidu bukaeran. Lortutako puntuak oso garrantzitsuak zirela bazekien.

### Zorionak. Garaipen garrantzitsua lortu duzue.

Azken minutuetara arte sufritu dugu, baina merezi izan du. Iaz, UDAk irabazi zigun azken minutuetan. Oraingoan, guk irabazi dugu.

### Nola bizi izan duzu derbia defentsako lerroan?

Atzeko lerroan ondo kokatu gara. Elkarren ondoan egon, eta bage-



JOSETXO ARANTZABAL

nekien kontraerasoren bat topatu behar genuela. Halako jokaldi batean egin dugu gola. Aukera batzuk sortu ditugu, baina gol bakarra sartu.

### Pozarren ospatu duzue garaipena, zuen artean eta zaleekin. Taldea gorako bidean doa?

Aurrerari irabazi ostean, pozik geunden. Baina derbia irabazita, askoz gehiago. Urrezko sei puntu lortu ditugu. Aurrerantzean lasaia jokatu dugu. Garaipenak konfiantza emango digu.

## SASKIBALLOIA | Natra Oñatik 11. garaipena lortu zuen, bigarrenaren etxean | 24



JOSETXO ARANTZABAL

### ERREGIONAL PFE.

## Antzuolak lider sendoa dela erakutsi zuen Anaitasunaren kontra Estalan: 2-1

Azkoitiarrek berdinketa egin eta berehala sartu zuten bigarrena Juanina Garairen mutilek, sailkapeneko lehenengo lekuan jarraitzeko puntuak batuz

MIREIA BIKUÑA | ANTZUOLA

Partidu gogorra, kontrario zaila eta eguraldi petrala. Horiek ziren zapatuan Antzuola eta Anaitasunaren arteko lehiaren ezaugarrietako batzuk. Beste bat sailkapena zen: biak ala biak parekatuta. Antzuolarrek garaipena behar zuten lehenengo lekuan jarraitzeko, eta Anaitasunarekin zuten abantaila handitzeko. Juanina Garairen taldeak ez zuen hutsik egin: hiru puntuak batu zituen eta azkoitiarrak –igoera lortzeko kontrarioetako bat– bederatzi puntura daude orain.

Gainera, erreakzionatzen badakiela erakutsi zuen. Anaitasunak berdinketa egin zuenean, berehala sartu zuen bigarren gola. Azkoitiarrek penaltiz sartu zuten banakoa, 50. minutuan. Etxekoek berehala eman zioten buelta partiduari Ander Aranak egindako golari esker. Aurretik, lehenengo gola, lehia hasi eta



Anaitasuna eta Antzuolako jokalariek, lehia. | IMANOL SORIANO

segidan egin zuten antzuolarrek. Ikusleak zelaira sartzen zeudela Imanol Arantzabalek aurreratu zuen Antzuola, hankarekin egindako errematearekin.

11 partidu geratzen dira liga bukatzeko, baina zapatuko puntuekin, askoz gertuago dauka igoera Antzuolak. Lehenengoak zuzeneko igoera dauka.

## Osasunak hobeto jokatu zuen: 2-3

Mondrako neskek ezin izan zuten Osasuna menderatu Mojategin. 20. minuturako 0-2 zeuden aurretik nafarrak, eta atsedenean 1-3. Arrasatearrak nahi eta ezin ibili ziren.



JOSETXO ARANTZABAL

### OHOREZKO ERREGIONALA

## Bergarak irabazi Ondarroan eta Mondrak galdu Oiartzunen

M.B. | ARRASATE

Oso bestelako emaitzak lortu zituzten aste bukaeran Bergarak eta Mondrak. Mahoneroek, ondo jokatu barik, irabazi egin zuten Ondarroan (0-2); eta Mondrak, itxura ona emanda, galdu egin zuen Oiartzunen (1-0). Azken horretan, zelaiaren egoerak zeresan handia izan zuen: oso

lokaztuta zegoen eta kontraerasoak antolatzeko eta pase zuzenak emateko arazoak izan zituzten. "Defentsan sendo egon gara, baina baloia ondo mugitzea oso zaila izan da", esan zigun Lutxo Iturrinok. Gainera, Oiartzunen gola Mondrak bere atean egin zuen. 80. minutuan, areaz kanpo jaurtiketa egin zuten, eta

Aitor Zabaletak, aldaratzea, bere atean sartu zuen.

### Bergarak, hiru puntu

Bestalde, Bergarak goiko lekuetan jarraitzeko puntuak batu zituen Aurreraren kontra. Lehen zatian joko ona egin barik, markagailuan aurreratu ziren Erik Aranbururen golarekin. Abantailak, lasaitasuna eman zien, eta presio barik, baloia hobeto mugitu zuten, Eloy Crespok bigarren gola sartu arte. 70. minutua zen.



Aloñaren jarraitzaileak, taldea animatzen. | JOSETXO ARANTZABAL



Andoni Azkargorta eta Alberto Albistegi aginduak ematen. | JOSETXO ARANTZABAL

## ERRUGBIA

# Gutxi entrenatzearen eraginez galdutako partidua

Arrasateko errugbi taldeak lesionatu eta baja asko ditu eta ondorioz, ezin dute fundamentuz entrenatu



MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

"Lesionatu asko ditugu. Hori horrela, ez dugu fundamentuz entrenatzen. Egueneko entrenamenduan 13 jokalarik bakarrik egon ginen, eta zapatuko partiduan 19 bakarrik. Dena den, ez ditut lesioak aitzaki moduan ipini gura, baina, ezin dut ukatu, eragin handia duela partiduen planteamenduetan". Hitz horiekin laburtu zigun Arrasateko errugbi taldearen norgehiagoka Igor Isasi entrenatzaileak.

**Jarrera ona, baina joko eskasa**  
Entrenamenduetan jokalarik gutxi elkartzen direnez, ez dituzte estrategia jokaldiak lantzen. Zapatuan, horien falta igarri zuen entrenatzaileak, Uribealdeak abantaila hartu zuenean. "Jarrera ona erakutsi dute jokalariek, baina hori baino gehiago behar dugu emaitza bati buelta emateko", zioen Isasik.



ARTko eta Uribealdeko jokalariek mele bat antolatzen. | IMANOL SORIANO

Uribealdea ezer gutxi egin barik, aurretik ipini zen, erasoan egindako jokaldi apurrak aprobetxatu. Atsedenean 3-6 ziren aurretik. "Eurek ez dute gauza handirik egin, baina egindakoak balizkoak izan dira", esan zigun entrenatzaileak.

Bigarren zatian, gogo handiarekin irten ziren arrasatearrak: atzeko lerroetan sendo mantenduz, aurrean min egiteko asmoz. "Baina, kontrarioak ere jokatzen du, eta erasoan gu baino apur bat hobeto izan dira", esan zuten amaieran.

Gogoarekin irtenda ere, arrasatearrek ez zuten punturik egin. Uribealdeak hiru egin zituen.

## Bi astetan atsedena?

Aste bukaeran atsedena dute arrasatearrek, eta, akaso, bi aste barru ere bai. "Real Unionen kontra jokatu beharko genuke bi aste barru. Baina, partidu batera ez zen aurkeztu, eta akaso txapelketatik kanporatuko dute. Tarte hori lesionatuak sendatzeko eta fundamentuz entrenatzeko erabiliko ditugu", esan zuten entrenatzaileak.

## SASKIBALOIA

# Igoera faserako txartela bideratu du Natra Oñatik

M.B. | OÑATI

Natra Oñatik garbi utzi zuen zapatuan, bere multzoko talde indartsuena dela. Bigarren itzulia, lehenengoa bezala hasi zuen, irabazten. Oraingoan gainera, sailkapeneko bigarren taldearen kantzaxan: 54-64 irabazi zuen Easo Pastas Arruabarrenaren kontra.

Hori horrela, hiru garaipen eta puntu-aldea dituzte alde oñatiarrek; eta liga bukatzeko hamar jardunaldi geratzen dira. Orain arteko zenbakiak eginez gero, igoera jokatuko dute. Bidea behintzat, markatu dute.

## Ander Gartziazen lana

Zapatuko norgehiagokan Natra Oñatik helburu bakarra zuen: irabazi. Hori lortzeko, partidu geldoa planteatu zuen Eneko Blancok: baloia jabetza bukatu arte mantendu, eta joko estatikoa egin. Donostiarrek kontraerasoan jokatzen dute, eta puntu asko sartu. Horren kontrako

neurriak planteatu zituzten oñatiarrek. Baina lehen laurdenean, Easok joko azkarra egin zuen eta Aloña motel ibili zen. 18-14 aurreratu ziren donostiarrek.

Bigarren tartean apurtu zuten partidua oñatiarrek. Ander Gartzia egindako lanari esker 8-20ko partziala egin zuen bigarrenean, eta zortzi puntuko abantaila hartu zuten: 26-34.

## Hiru puntura, azken tartean

Hirugarrena parekatua izan zen. Baina, Natrak, baloi jabetza luzeak eginez, abantaila mantentzea lortu zuen.

Azken tartean, guztia ematera irten zen Easo. Euren dako azken aukera zen. Epailerek utzita gogor jokatu zuten, eta bost minutu falta zirenean, hiru puntura ipini ziren. Oñatiarrek urduri ipini ordez, lasai jokatu eta jaurtiketa onak eginez, hamar puntura zabaldu zuten aldea.



Eskoriatza eta Eraso taldeetako jokalariek, baloiarekin. | IMANOL SORIANO

## ARETO FUTBOLA

# Ezustean, garaipen erosoak lortu zuen Eskoriatzak: 4-0

M.B. | ESKORIATZA

Areto futboleko Euskadiko txapelketan diharduten Eskoriatza eta Eraso taldeek indarrak neurtu zituzten zapatuan, Manuel Muñoz kiroldegian. Sailkapenean duten puntu aldea aintzat hartuta -Eskoriatzak zazpi puntu eta Erasok 23-, etxekoek ezusteko garaipena lortu zutela esan daiteke. "Ni ere harrituta nago emaitzarekin. Taldeak jarrera ona erakutsi du, eta ezusteko garaipen zabaldua lortu dugu", esan zigun Patxi Nevado entrenatzaileak.

## Atsedenera, abantailarekin

Eraso taldearen nagusitasunaz jakitun, gogo handiarekin hasi zuten partidua etxekoek. Joko ona eginez, lehia menderatu zuten, baina ez zuten lehen gola egin atsedenerako sei minutu falta ziren arte. Abantailarekin joan ziren aldagelara eta aldeko gol horrekin planteatu zuten

bigarren zatia. Eraso taldeak aurrera egin zuen berdinketaren bila, eta fisikoki lan handia egin zuten. Nekatzen hasi zirenean, egin zituzten Eskoriatzak beste hiru golak. Urrea, Aratz, Ritzar eta Jorge izan ziren gole-gileak.

## Krisiaren eraginez

Zapatuko puntuekin hamar ditu Eskoriatzak, eta azken aurreko lekuan dago sailkapenean. Jaitzierako postuetan. Arriskuan. "Berez, bi taldek galtzen dute maila. Baina liga hasi gurenetik bi taldek txapelketa utzi dute, diru arazoak tarteko. Krisiak ere gogor astindu du areto futbola. Hori horrela, igoera lortzen duten taldeek ez dute mailaz gora egin gura. Gorago mailan gastuak handiagoak dira", esan digu Nevadok.

Dena den, sailkapeneko zulutik irteteko 12 partidu ditu aurretik Eskoriatzak.



## ATLETISMOA

JONATHAN PEREZ

## Zilarrezko dominak, Euskadikoetan

Arrasateko atleta Malen Ruiz de Azua eta Istar Dapenak zilarrezko dominak jantzi zituzten Euskadiko txapelketan. Ruiz de Azuak 3,95eko pertika jauziarekin, Naroa Agirre (4,30 metro) txapelduaren atzetik geratu zen, eta gazte mailako Europako txapelketarako minima egin zuen. Maialen Axpe (3,90) hirugarren sailkatu zen. Dapenak, aldiz, 4,50ko jauzia egin zuen eta gazte mailako Euskadiko errekorra ondu zuen. Jonathan Perezek -bere entrenatzailea- distantzia bereko jauzia egin zuen.



## GIMNASIA ERRITMIKOA

# Erdizka geratu zen zapatuan gimnasia txapelketa argi mozketa izan zelako

- ▶ A mailako eskola arteko txapelketa hasi zuten zapatuan Bergarako Labegaraietan
- ▶ Gipuzkoako 19 taldek hartu zuten parte, baina bakarrik goizeko txanda jokatu zen

**MONIKA BELASTEGI** | BERGARA  
Gipuzkoako Gimnasia Erritmikoko federazioak eta Bergarako Ariznoa elkarteak antolatuta, zapatuan A mailako eskola arteko txapelketa jokatzekoa zen Bergaran, Labegaraieta kiroldegiko kantzian. Eta hasi bai, baina ezin izan zuten txapelketa guztiz jokatu, 13:00etan argia joan egin zen-eta. Telleriako azpiestazio elektrikoan egondako matxura batek eragin zuen argi mozketa eta konponketa berehalakoa izan-

go ez zela ikusita, txapelketatik jokatzeko geratzen zena bertan behera lagatzea erabaki zuten. Hain zuen, jokatu ez ziren saioak Gimnasia Erritmikoko federazioak erabakiko du non eta noiz jokatuko diren, Ariznoa taldeko lehendakari Joxean Robledok azaldu duenez.

**19 gimnasia talde batu ziren**  
Gimnasta mordoa batu ziren zapatuan Labegaraietan, tartean, Arrasateko Dragoi eta Bergara-

ko Ariznoa taldekoak eta baita Gipuzkoa osotik etorritako beste hainbat herritakoak ere, Donostia, Tolosa, Irun, Hernani, eta Ordiziatik etorritakoak, beste batzuen artean; guztira 19 gimnasia talde. Talde anfitrioiari dagokionez, aipatzekoa da bergararrekin batera Oñatiko eta Aretxabaletako gimnastak ere badirela taldean, bertako ordezkariek azaldu dutenez.

Txapelketa amateur, federatu eta eskola artekoak zuzendutakoak

zen, eta ikusle ugari batu ziren Labegaraietako harmailetan.

Txapelketa bi txandatan zegoen aurreikusita. Goizekoan alebinek eta infantilek hartu zuten parte, taldean zein banakako saioetan, eta kadeteen taldeko lana ikusteko aukera ere egon zen.

Baina argia joan, eta goizeko txandako kadeteen banakako lehiaketa eta arratsaldeko bigarren txandako guztiak –jubenil eta senior mailako taldekako eta banakakoak– jokatzeko geratu ziren.

## Txapelketaren lehen fasea

Gimnastek ikasturtearekin batera hasten dute denboraldia eta hilabeteotan entrenatutako guztia erakusteko lehen saioa izan zuten zapatukoa. Txapelketako lehenengo fasea izan zen, hain zuzen. Hurrengo fasea apirilaren 20an izango da –zehaztu gabe dago lekua–, eta maiatzean egingo dute finala. Hori A mailari dagokionez, izan ere, B mailakoek, otsailaren 23an jokatuko dute txapelketaren lehen fasea, Arrasaten.

### JOXEAN ROBLEDO ARIZNOA TALDEKO LEHENDAKARIA

"Ariznoa taldea, tradizioz, beti egon izan da nahiko goian"

Txapelketan Ariznoa taldeko lehendakariarekin berba egin genuen.



**Goiza ondo hasi eta pena izan da lehiaketa bertan behera laga behar izana.**

Bai, halaxe da. Ondo zihoan, baina halakoak ere gertatzen dira eta ez daudenez gure esku...

**Noiz jokatuko dira bertan behera geratu diren txapelketak?**

Oraindik ez dakigu. Federazioak erabakiko du non eta noiz.

**Bestalde nola ikusi dituzu Ariznoako gimnastak?**

Ondo ikusi ditut, dena den, lehen lehiaketa izatera urduritasuna ere nabaria zen bai Ariznoa taldeko zein gainerako taldeetako gimnastengan. Jokatu diren mailen artean, taldekako lanean Ariznoako alebinak laugarren sailkatu dira; infantilak, hirugarren; eta kadeteak, bosgarren.

**Bidea luzea da oraindik, baina nola ikusten duzu txapelketa?**

Gure helburua beti da finaleira iristea. Ariznoa taldea tradizioz beti egon da nahiko goian, urtero lortzen dugu goiko posturen bat, baina hasi besterik ez gara egin, eta hori guztia ikusteko dago.



Ariznoako infantil mailako neskatok uztaiarekin. | IMANOL SORIANO



Neskatok askotariko irudiak osatzen dituzte euren koreografietan. | I.S.



Gorputzarekin batera, aurpegiaren espresioa ere lantzen eta zaintzen dute neskatok emanaldietan. | IMANOL SORIANO



Baloiarekin egindako ariketa. | IMANOL SORIANO



Banakako lanean izugarritzko jauziak ikusi ziren. | IMANOL SORIANO

## SNOWBOARDA

# Manex Azula riderra zortzigarren, Portugalen egindako txapelketan

Bergarakoa Iberic Snowboard Tour txapelketa barruan dagoen probako finalean izan zen; hurrengo hitzorduak Katalunian izango dira

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Neguko denboraldian buru-belarri sartuta, Alpe edo Pirinioetan beharrean, Portugalak bigarren urtez protagonismoa bereganatu nahi izan du snowboard txapelketen barruan. Hala, Europako FIS Txapelketa barruko hitzordua egin zuten joan den asteburuan 40.000 biztanle dituen Covilha herrian. Txapelketa hori rider amateur eta profesionali bideratuta dago, eta Iberic Tour barruan dago.

Herrian bertan snowpark artifiziala eginda, txapelketan izena eman zuten 40 riderrek ikuskizun ederra eskaini zuten Snowboard Urban Fest saioan, eta Europako bazter guztietatik etorritako lehiakideen artean zen Manex Azula bergararra.

## "Nahiko gustura amaitu dut"

Zapatu arratsaldean hasita, trazatuari poliki-poliki eskua hartzen joan ziren riderrak, eta saltoaren inguruan batu ziren ikusleek truku ederrez gozatu ahal izan zuten. Bergarakoari dagokionez, entrenamendu saioetan min hartu bazuen ere Azulak aurrera jarraitu zuen, eta 12 onenen artean sailkatuta finalerako sailkatu zen. Fase erabakigarria 22:00etan hasi zuten, eta denetik egon zen: egin beharreko ariketan rider batzuek gutxi arriskatzea erabaki zuten eta beste batzuek ausart jokatu zuten. Azula dena ematera irten zen, eta gutxigatik ez zuen *Backflip* bikoitz bat ondo osatu. Hala ere, ariketak jendea altxarazi zuen eserlekuetatik, eta zaleen errekonozimendua jaso zuen Bergarakoak.



Covilha egindako Urban Fest-en rider bat saltoa egiten. | SNOWPLANETMAG.COM

Gauza bera gertatu zitzaion, esaterako, Yannick Boudjelal riderrari. Faboritoen artean egonda ere behar baino gehiago arris-

katu eta ohorezko postuetatik kanpo geratu zela. Orokorrean, baina, txapelketaren nondik norakoak pozik geratu zen Azula :

### ESANAK

"Entrenamenduan min hartu arren dena ematera irten nintzen"

"Hasieran uste nuen trazatuari ez niola eskua hartuko"

MANEX AZULA | SNOWBOARD RIDERRA

"Nahiko gustura geratu naiz egindakoaz. Hasierako egunetan pentsatzen nuen trazatuari ez niola eskua hartuko, baina salto batzuk egin ostean gustatu zait zelan geratu den", adierazi zuen.

Portugalekoa Iberic Snowboard Tour txapelketako lehenengo hitzordua izan da, eta datozen hitzorduak Pirinioetan egingo dituzte. Gutxienez beste bi txapelketa izango dira, Vallnord-en eta Vall de Nurian egingo ditzutenak, eta baliteke laugarren txapelketa bat ere egotea, baina oraindik ez dute zehaztu non izango zen.

## MENDIA

## Antzuolako lasterketa, arrakastatsu

X.U. | ARRASATE

Ikustekoa da otsailaren 17an egingo duten Antzuolako 8 Miliak izeneko lasterketa ze arrakasta izaten dabilen: lehenengo urtea izan eta dagoneko parte-hartze kopurua handitu egin behar izan dute antolatzaileek.

Hasiera batean asmoa zen 200 korrikalari onartzea, baina jende askok erakutsi du proban parte hartzeko interesa, eta gehienezko muga 300 korrikalaritan jarri dute (dagoeneko 234 lagunek eman dute izena).

Izena aurrez eman nahi duenak *kirolprobak.com* webgunean izango du bidea (8 euro), eta egunean bertan 10 euro gehiago ordaindu beharoko dira.

## MENDIA

## Mendi eski ikastaroa GMFren eskutik

X.U. | ARRASATE

Gipuzkoako Mendi Federazioak antolatuta mendi ikastaroa egingo dute otsailaren 23an eta 24an. Ikastaroan, hastapenean edo trebakuntzan har daiteke parte, eta ikasle bakoitzak bere mailari dagozkion honako edukiak landuko ditu: jaisteko teknikak, foka larruekin ibiltzeko eta igoeran norabide aldaketak egiteko teknikak, bilatzeko eta erreskatatzeko teknikak (ARVA), eta azkenik, alpinismoan erabilitako korapiloak, ainguralekuak eta elkarguneak prestatzeko teknikak.

Ikastaroa Frantziako Pirinioetan emango dute. Izena emateko: 943 461 440.

## TXIRRINDULARITZA

## Euskadi Fundazioa aurkeztuta, Aristirekin

Euskadi Fundazioa taldea proiektu izatetik errealitate izatera pasa da, eta joan den astean egin zuten aurkezpena. Migel Madariagak zuzenduko duen taldean lau gipuzkoar egongo dira, eta tartean izango da Mikel Aristi bergarra -eskumatik laugarrena-. Lerrook irakurri orduko, Aristik Mallorcan debuta egina izango du.



TXIRRINDULARITZA

# Aretxabaletako kirol elkarteak omendu du Gipuzkoako Federazioak

Federazioko 26 klubek 2013rako erronkei buruz jardun zuten Zاراia aretoan

**ANDER MONEDERO** | ARETXABALETAKO  
Gipuzkoako Txirrindulari elkargoak Aretxabaletako kirol elkarteak (UDA) urte guzti hauetan txirrindularitza bultzatzeko egindako lana plaka batekin saritu zuten

zapatuan. Aretxabaletako kirol elkarteko presidente Juan Mari Enekotegik eta txirrindularitza saileko Manolo Zubillagak jaso zuten onarpenera. Aurten, Aretxabaletan Andramariko lasterketak

75 urte beteko ditu eta, dagoeneko, 23 urtez azpiko eta elite mailako ziklistentzat lasterketa klasikoa bihurtu da. Aurtengo Andramariko lasterketan ez da ibilbide aldaketarik izango, baina antola-

tzaileek sorpresa bat edo beste egongo dela adierazi dute.

**Egindako lan onaren onarpenera**  
Gipuzkoako Txirrindulari elkargoak 2013. urteko batzar orokorra ospatu zuten zapatuan Aretxabaletako Zاراia Aretoan.

Han, Gipuzkoako Federazioko kideek, 2013. urteko lan jardunari buruzko hainbat gai garrantzitsu jorratu zituzten, baina aurretik 2012. urteko kontuak errepasatu zituzten. Bertan, 2012. urtean superabitarekin bukatu zutela nabarmendu zuten. 2013. urteari dagokionez, nahiz eta diru-laguntzek behera egingo dutela aurreikusitako –Diputazioak ekarpena murriztuko du–, urteko programak aurrera egingo duela adierazi zuten. Ekonomia gaiak alde batera utzita, denboraldi honetarako kirol ekintza eta lasterketen egutegia finkatu zituzten, eta baita denboraldi berrirako lasterketa eta teknika araudia ere.

**MANOLO ZUBILLAGA**  
TXIRRINDULARI SAILEKO  
ARDURADUNA

**"Andramari lasterketan sorpresaren bat egongo da"**

Manolo Zubillagak 47 urte daramatza Aretxabaletako Andramari lasterketa antolatzen eta urte guzti hauetan egindako lanaren errekonozimendua pozik jaso zuen.



**Federazioak Aretxabaletako kirol elkarteak egindako lana eskertu du. Pozik?**

Oso pozik. Detaile polita izan da. Plaka UDAko presidenten Juan Mari Enekotegik eta nik hartu dugu.

**75 urteren ostean, Aretxabaletako Andramari lasterketa klasiko bat da.**

Bai, 75 urte jarraian antolatatu dugu lasterketa eta elite mailako txirrindularientzat lasterketa klasikoa bihurtu da.

**Aurten zerbait berezia egingo duzue?**

Lasterketaren ibilbidea ez dugu aldatuko baina, seguruenik sorpresaren bat edo beste izango da, baina, oraingoz, ezin dut ezer aurreratu.



Juan Mari Enekotegi eta Manolo Zubillaga Gipuzkoako Txirrindulari elkargoak emandako plakarekin. | A.M.

DATUA

**75**

URTE

Aretxabaletarrek urte kopuru hori daramatzate Andramari lasterketa antolatzen eta horixe aitortu die Federazioak.

FUTBOLA

**OHOREZKO ERREGIONAL MAILA**

EMAITZAK	P	J
Berio-Urola	1-0	
Hondarribia-Real Union	1-2	
Lagun Onak-Tolosa	1-1	
Ostadar-Hernani	1-1	
Aurrera-Bergara	0-2	
Aretxabaleta-Aloña Mendi	0-1	
Trintxerpe-Touring	3-1	
Oiartzun-Mondra	1-0	
Beti Gazte-Zarautz	1-0	

**SAILKAPENA**

TALDEA	P	J
1 Hernani	44	20
2 Real Union	43	20
3 Oiartzun	41	20
4 Aretxabaleta	37	20
5 Berio	36	20
6 Bergara	35	20
7 Hondarribia	31	20
8 Touring	29	20
9 Aloña Mendi	26	20
10 Tolosa	26	20
11 Ostadar	23	20
12 Trintxerpe	23	20
13 Mondra	21	20
14 Beti Gazte	20	20
15 Lagun Onak	19	20
16 Urola	19	20

17 Zarautz	17	19
18 Aurrera	17	19

**HURRENGO JARDUNALDIA**

Zarautz-Berio	
Urola-Hondarribia	
Real Union-Lagun Onak	
Tolosa-Ostadar	
Hernani-Aurrera	
Bergara-Aretxabaleta	
Aloña Mendi-Trintxerpe	
Touring-Oiartzun	
Mondra-Beti Gazte	

**ERREGIONAL PREFERENTEA**

Antzuola-Anaitasuna	2-1
---------------------	-----

**I. ERREGIONAL, IGOERA**

Dunboa Eguzki-Aretxabaleta B	2-0
------------------------------	-----

**I. ERREGIONAL KOPA**

Arizmendi-Ikasberri B	0-1
Bergara B	Atsedena

**OHOREZKO GAZTEAK**

Bergara-Ostadar	3-2
Aloña Mendi-Ordizia	2-3
Amaiak Bat-Mondra	6-4

**GAZTEEN I. MAILA, IGOERA**

Aretxabaleta B-Trintxerpe	3-2
---------------------------	-----

**GAZTEEN I. MAILA, KOPA**

Bergara B-Euskalduna	2-2
Aloña Mendi-Arizmendi	3-0

**OHOREZKO KADETEAK**

Arrasate-Lagun Onak	2-1
Lazkao-Aloña Mendi	7-2
Real Sociedad-Bergara	2-1
Beasain-Aretxabaleta	3-0

**EMAKUMEAK BIGARREN MAILA**

Mondra-Osasuna	2-3
----------------	-----

ESKUBALOIA

**LEHEN NAZIONALA**

Escolapios-Ford Mugarri	22-36
-------------------------	-------

**GIPUZKOAKO I. MAILA**

Donibane-Izarraitz Aloña Mendi	21-21
--------------------------------	-------

**GIPUZKOAKO 2. MAILA**

Talleres Ondo-Bergara	31-38
-----------------------	-------

Arrasate-Elgoibar	21-30
-------------------	-------

**GAZTE MUTILAK**

Bergara-Leizaran	32-32
------------------	-------

Aloña Mendi-Urola	17-14
-------------------	-------

SASKIBALOIA

**EBA LIGA**

Easo Pastas-Natra Oñati	54-64
-------------------------	-------

**LEHEN NAZIONAL MAILA**

Askartza-MU	80-76
-------------	-------

ARETO FUTBOLA

**EUSKADIKO TXAPELKETA**

Eskoriatza-Eraso	4-0
------------------	-----

ERRUGBIA

**SENIORRAK**

ART-Urbealdeia B	3-9
------------------	-----

# GURE KIROLA

GOIENA TELEBISTA | HARMAILATIK  
ASTELEHENERO, 20:45, 22:30





Neskatila motxilarekin eskola atarian. | KARINA IBARRA

## Haur eskolak familiaren osagarri izan behar du

Rosa Vidiella Badell hezitzailea elkarrizketatu dute 'Hik Hasi' aldizkarian

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Haurrari erabateko askatasuna eta segurtasuna emango dioten espazioak antolatzen eta diseinatzeko laguntzen du Rosa Vidiella Badell hezitzailea eta pedagogo kataluniarrak. Kritiko da gaur egungo egoerarekin. Uste du haur eskolek familiaren osagarri izan behar dutela, ez ordezko. "Ez gara gauzak ondo egiten ari. Familien eta haurren arteko harremana murriztea da lortu duguna".

**Lotura sendoa helburu**

"Umeak eskolara bidaliz familien arazoak konpontzen ari ginela pentsatu dugu, baina ez dira haurren beharrak kontuan hartzen", adierazi du Vidiella Badellek. "Haur eskolaren defendatzailetzat dut nire burua, baina ez eskola gisa, familiaren espazio osagarri gisa baizik". Gogoeta egitea merezi duela dio. "Lehenengo urratsa da familiarekin lotura sendo bat eraikitzea. Bigarrena, beste ume-

kin egotea bizitzaren lehenengo hilabeteetatik, ondo zainduta, beste haurrekin pasatzen dituzten ordu horiek atseginak izan daitezen familiarekin haurrak nola ukitu eta nola bizi hitzartu duten profesionalek lagunduta". Haur eskolek nolakoak beharko luketen adierazten du Vidiella i Badellek artikuluan. Beste gako garrantzitsu bat ere ematen du: "Familiak ulertu behar dute hura ere beren etxea dela".

## Txantxarrik eragiten ez badute ere, okasio berezietarako bakarrik

L.Z. | ARRASATE

Valentziako Unibertsitate Politeknikoko ikertzaile talde batek haurrendako gozoki berria sortu du. Txantxarrik eragiten ez duen azukrea darama—isomaltulosa—, eta hesteetako iragotzea errazteko zuntza gehitu diote; oligofruktosa izeneko zapore gozoko zuntza, hain zuzen ere. Gainera, glizemiko edo insulinemiko kopuru txikia du gozoki berriak. Hala, sortzaileen esanetan, ez du odolean glukosa pikorik eragiten.

Gozoki "osasungarria" esan diote hainbat hedabidetan, eta horrek zenbait dietistaren erantzuna eragin du. Dietistek esan dute haurren elikaduran gozokiak noizean behineko produktuak behar dutela izan, osasuntsuagoak izanagatik ezin direla egunero kontsumitu.

**Elikagairik ez**

Aurrerapausoa da gozokiak txantxarrik ez eragitea, baita zuntz ekarpen interesgarriagoa egitea, baina gozokiak gozokiak dira, eta ez dute elikagairik ekartzen. Gehienbat, azken puntu hori azpimarratzen dute dietistek. "Kaloria ekarpenak hor jarraitzen du, eta baliorik gabeko kaloriak dira", jakinarazi dute. Azaltzen dute ez direla kaloria interesgarriak hazten dagoen haur batendako. "Ekarpen energetikoa badago, baina balio nutritiboa oso eskasa da. Gainera, gehigarriak dituzte eta otorduen aurretik janean gero gosea kentzen dute". Dietisten esanetan, gozokiak okasio berezietarako dira eta txikien organismorako frutak, esnekiak eta zerealak osasungarriagoak dira.



Sortu berri duten gozokia. | RUBEN BASTON

## Ipuina, intseminazio artifiziala eta bakarkako amatasuna 4 urteko ume bati azaltzeko

L.Z. | ARRASATE

Intseminazio artifiziala eta bakarkako amatasunaren gaia nola azaldu 4 urteko ume bati? Ipuin bat idazteko eskatu zion egoera horretan dagoen Elgoibarko ama batek Maite Franko ipuin kontalari irundarrari, eta *Aitarik gabeko printzea* sortu zuen Frankok. Printzesa, errege-erreginak eta sorginak ditu ipuinak.

**Mai printzesa**

Ipuina printzesa baten istorioa da. Debarren aldean jaiotako Mai printzesarena. "Mai hazi zen, libre hazi ere. Erresuma hartako mendi eta bailara, ibai eta erre-kasto, txoko eta zirrikitu guztiak arakatu zituen, haren jakin-min aseeginak gidatuta", dio ipuinak. Printzesa ez zen inoiz ezkondu, baina ama izateko grina sortu zitzaion, eta ondorioz galdera:

"Ba ote dago umea sortzerik aitarik gabe?".

**Loreen sorgina**

Bere ibilbidean Loreen sorginarekin egingo du topo Mai printzesak, eta diru truke hazi bat hartu eta landatuko dio Mairi. "Gizon batena da, bai, baina ez duzu inoiz norena ote den jakin-go", esan dio sorginak. "Handik bederatzi hilabetera, Maik bere ametsa bete zuen: noizbait ume-txo zoragarria ekarri zuen mundura (...) Mai printzesari gogorra egin zitzaion bakarkako amatasuna, baina laster gauza batez jabetu zen. Bat izanda lan bikoitza egin behar zuen arren, trukean jasotzen zuen errekonpentsa ere neurri berekoa zen". *Guraso.com* atarian aurkituko duzue ipuina irakurtzeko lotura: *Ttiklik.com* ataritik ekarri dugu gurera.

## Jakin-nahi sexuala, guztiz naturala haurtzaroan ere

L.Z. | ARRASATE

Eduarne Simon haur psikologoak umeen sexualitateari buruzko hainbat galdera erantzun ditu *BebesMas* atari digitalean. Elkarrizketan adierazi du jaiotzen garenetik garelako gizaki sexualak, eta naturaltasunez erantzun behar ditugula haurrek egindako galderak.

**Etapaz ezberdinak**

Simonen esanetan, lehenengo urtean kontaktu fisikoa eskatzen du haurrak. Oso garrantzitsua da afektu adierazpen hori jasotzea. Apur bat geroago, haurra bere gorputz atalak deskubritzen joango da, eta esperimentazioa izango da ikasbide nagusia. Adin horretako umeek ez dituzte eremu publikoa eta pribatua ezberdintzen. Horregatik, exhibizionismo jarrerak ere antzeman daitezke. "Aukera paregabea da

norberaren zainketa eta pribatutasun kontzeptuak lantzen hasteko".

Pribatutasun kontzeptuari garrantzi berezia ematen dio adituak. "Haurrak dira, baina euren gorputza euren da. Pribatutasun kontzeptua ondo barneratzen badute babestuago egongo dira sexu-abusu egoeren aurrean". Jakin behar dute euren gorputza zainketa eta osasun arduradunek soilik maneiatu dezaketela.

**Auto-esplorazioa**

Simonen esanetan ez dago heziketa sexualarekin hasteko adin konkreturik. "Lehen minututik hasten da, eta ez du etenik", dio. Bere ustez egokiena da haurren ezaugarrietara eta jakin-nahiera egokitzea. "Batuetan jarrera exhibizionistak agertzen dira, edo jolasak beste ume

batzuekin, eta genero ezberdintasunak deskubritzen hasten dira". Auto-esplorazioaren inguruan dio ez dela zentsura jarraia eduki behar. "Kasu honetan ere interesgarria da haurrari azaltzea gauza batzuk pribatuan egin behar direla. "Nahikoa da azaltzea gauza batzuk pribatuan egiten direla". Simonen esanetan zazpi urteren bueltan interes hori jaitsi egiten da, eta berriz agertzen da nerabezaroran.

**Alarma seinaleak**

Estimulazio konpultsiboa, lengoia lar sexuala, jolasean jarraia lar sexualak... iritzi profesionala eskatzeko motiboa izan daitezke. Aldi berean, gaiari buruz inoiz galderarik egiten ez duen umearen kasua ezohiko moduan ikusi behar dugu. Kasu horretan ere laguntza profesionala eskatu behar da.



# KULTURA



Iturrieta sagardotegira iritsi eta mahaian jarri aurretik kantuan egin zuten guztiak elkarrekin. | IMANOL SORIANO



Maria Izaga eta Xabier Igoa bertsolariak txotx egiten. | IMANOL SORIANO



Txingor zaparradak bota arren, ez zioten abesteari utzi. | IMANOL SORIANO

## Euripean ere eztauriz sano dabilzala erakutsi zuten aramaioarrek zapatuan

ARRITXU BARRUSO | ARAMAIO

Santa Ageda bezperako koplak han eta hemen entzungo ditugu gaur egun guztian. Bada, Aramaion aurreratu egin ziren eta zapatuan egin zuten Santa Ageda eskean. Aspaldiko Santa Ageda eske jendetsuena izatea zen helburua eta baita lortu ere. 50 pertsonatik gora elkartu ziren auzorik auzo eta baserriz baserri kantuan egiteko.

**Bertsolariek girotuta**

Jendetsuena izateaz gain berezia izatea ere nahi zen eta hori ere lortu zuten. Bertsolari eskolako lagunek sekulako giroa ipini zuten ibilbidean barrena. Taldeak koplaren leloak abesten zituen bitartean bertsolariek bat-batean jardun zuten geldialdi guztietan. "Aretotan eta toki itxietan ibiltzen gara gehienetan eta horrelako egunak oso bereziak izaten dira

guretako. Baserrira iritsi eta etxeko andreari edo gizonari aurrez aurrez abestea oso polita da", kontatu zigun Manex Agirre bertsolariak.

Dena dela, bertsolariek bakkarririk ez, eskean ibili ziren herri-tar guztiak lan bikaina egin zuten. Bizente Goikoetxea abesbatzatik sortutako ekimena izan da eta bertako presidente Bittor Kortabarría pozik baino poziago zegoen:

"Ez genuen espero horrenbeste jende batuko zenik. Oso gustura gabiltza. Entseuetan ere fin ibili dira guztiak eta lan txukuna egiten ari garela uste dut", zioen.

**Txotx egiteko geldialdia**

Goizeko jardunaldiaren ostean indarrak hartzeko Iturrieta sagardotegian bazkaldu zuten, baina han ere kantuan ibili ziren geldi-

tu ere egin barik. Arratsaldean gero, aurreikusitako ibilbidea jarraituz Basagoitia, Errota Berri eta Zalgo inguruan ibili ziren, besteak beste. Iluntzean Ibarren egin zuten azken saioa.

Atzo San Blas eguna izan zen eta eztauriko minen eta katarroen zaindaria ei da San Blas. Bada, zapatuko euri, hotz eta txingorrek baserriz baserri ibili ostean guztia beharko dute.



**JOSE LUIS MADINA**  
SOINU-JOLEA

"Goizean-goiz uste genuena baino eguraldi hobea egiten ari da, tarteka-tarteka atertu egiten du behintzat. Soinua jotzen gustura nabil. Horrelako egunak politik eta bereziak izaten dira niretako disfrutatutako egiten dudalako".



**BITTOR KORTABARRIA**  
ABESBATZAKO PRESIDENTEA

"Ikaragarri gustura gaude. Santa Ageda batze hau antolatzeke egin genuen lehenengo bileran ezin genuen pentsatu ere egin horrenbeste jende batuko zenik. Bertsolariak ere oso ondo dabilzta, giroa bikaina ipintzen ari dira".



**GURENDANE ETXEBERRIA**  
ABESLARIA

"Oso eguraldi txarra egiten ari da, baina benetan gustura gabiltza. Niretako lehen aldia da eta pozik nabil. Hurrengo urtean errepikatzea espero dut. Taldean giro polita sortu da. Uste dut horrelako gehiago egin behar direla".



**MARTIN, AITOR ETA UNAI**  
ABESLARIAK

"Entseuetan ere oso ondo pasatzen genuen eta gaur ere gustura gabiltza. Hasieran koplak buruz ez genekizkienez paperarekin kantatzen genituen, baina horrenbeste errepikatu eta gero dagoeneko ikasi ditugu. Apur bat nekatuta ere badaude, goiz guztian baserriz baserri ibili gara eta eguraldiak gainera ez du batere lagundu. Euririk apur bat izorratu egin gaitu. Dena dela, orain makarroi platerkada on bat jan eta tripa beteko dugu eta arratsaldean berriz kantuan jarraituko dugu indaberrituta".

# 'Peter Pan' musikalak ez du hutsik egin eta Elgetan ere arrakasta itzela izan du

- ▶ Bi emanaldi eskaini zituzten zapatu arratsaldean eta bietan ere Espaloia bete egin zen
- ▶ Aretoa Bergarako baino txikiagoa izanda, pertsonaiak gertu-gertuan ikus zitezkeen

ARRITXU BARRUSO | ELGETA


Bergarako Musika Eskolaren *Peter Pan* musikalak beste arrakasta bat gehitu du bere emanaldien zerrendan. Gabonetan Bergaran hiru emanaldi egin ostean, Elgetako Espaloira iritsi zen zapatuan. Bi emanaldi eskaini zituzten eta bietan ere aretoa bete egin zen. Eibar eta Elgoibarko jende dezente gerturatu zen Elgetako antzokira eta gehienak aho zabalik gelditu ziren musikalaren mailarekin. "Nabari da lan handia eta entsegu ordu asko daudela atzean. Asko gustatu zait", kontatu zigun amaieran Eibarko Arantza Leizak.

Espaloiko agertokia Bergarako pilotalekuan erabilitako espazioa baino txikiagoa izanda, egokitzapen txiki batzuk egin behar izan zituzten dekoratua eta musikariak, esaterako, goiko solairuan kokatu ziren oraingo honetan. Dena dela, beharbada aretoa txikia izateak abantailak ekarri ditu, eragozpenak baino gehiago. Umeek gertu-gertuan ikusi eta sentitu ahal izan zituzten pertsonaiak eta hori nabari zen beraien aurpegietan. Bestetik, soinuaren kalitatea askoz hobea izan zen eta hobeto ulertzen ziren abestiak eta baita antzezpenak ere.

Aktore, musikari eta parte-hartzaileak txalo zaparrada luze batekin agurtu zituzten. Laburbilduta, laugarren emanaldia eta laugarren arrakasta.

**DVDak harrera oso ona**

Goienak eta Bergarako Musika Eskolak elkarlanean Bergarako frontoian egindako *Peter Pan* musikalaren DVDa kaleratu dute eta Elgetara gerturatutako askok aprobeztatu zuten erosteko. Bestela honako tokietan eskura daiteke, 12 eurotan: Goienak Aretxabaletan eta Arrasaten dituen egoitzetan eta Bergarako Musika Eskolan.



**IRENE ETA MIREN**  
AKTOREAK

Irene Jauregik pirata papera egiten du musikalean eta Miren Gutierrezek, berriz, Wendyrena. Oso pozik zeuden egindako lanarekin: "Bergaran baino askoz lasaiago egon gara, dagoeneko ohitu gara taula gainean egotera".



**ANE OLAÑETA**  
EIBARKO IKUSLEA

"Kartel bat ikusi nuen Eibarren kalean eta atentzioa eman zidan. Egiten duen eguraldiarekin plan ezin hobea da. Neska-mutikoak oso gustura daude eta niri ere harrigarria iruditzen zait atzean dagoen lan guztia".



**OIHANE ETA MIREIA**  
AKTOREAK

Oihane Etxeberria ume galduen taldeko kidea da eta Mireia Arietaleanizbeaskoa piraten taldekoa. "*Peter Pan* musikalarekin konturatu gara asko gustatzen zaigula antzeztea, abestea baino gehiago".



**ARANTZA LEIZA**  
EIBARKO IKUSLEA

"Kalean entzun nuen *Peter Pan*-en inguruko musikala egiten ari zirela eta Bergarara joaterik izan ez genuenez hona etorri gara. Lan bikaina egin dute eta ikusten da lan asko eta entsegu ordu asko daudela atzean. Zoriontzekoa da".



Peter Pan indioekin Elgetako emanaldian. | ARRITXU BARRUSO

## Rock doinu gogorak Gaztelekuan Sharon Stoner eta Eraso! taldeekin

Debagoieneko rock eta metal zaleak ez zuten kale egin bi taldeen emanaldira

ANDER MONEDERO | OÑATI

Sharon Stoner eta Eraso! taldeen doinu gogorrek bete zuten egubakoitz gauean Oñatiko Gaztelekua. Kontzertuak ikusmina piztu zuen, eta nahiz eta Gaztelekua goraino bete ez, ohikoa baino jende gehiago izan zen.

Oholtza gainera igotzen lehengoak Sharon Stoner izan ziren. Oñatierrek etxean jotzen duten guztietan bezala, euren zale amorratuen aurrean ez zuten kale egin eta taldearen eta publikoaren artean elkar ulertu han-

dia sortu zen. Oñatierrek beraien hiru diskoetako abestiak jo zituzten, abesti berriak eta zaharrak tartekatuz; hori bai, *Puntu bakar batean elkartzen diren ertzak* azken lanari errebaso handiagoa egin zioten. Doinu gogor eta errepikakorrek eta taldeak oholtza gainean transmititzen duen indarrak publiko bereganatu zuen eta behin publiko poltsikoan zutela, emanaldia bukatzeko, besteak beste, taldearen klasikoak eta Deep Purple 70. hamarkadako taldearen

*Pictures of Home* abestiaren bertsioa egin zuten.

Bestetik, Eraso! talde zarautarra eraberrituta ikusteko aukera izan genuen, izan ere, *Ez gara inoiz hilko* lana kaleratu zutenetik, Sergiok, taldeko gitarra jole eta abeslariak gitarra alde batera utzi eta, orain, soilik abestu egiten du. Ikuskizun handia eskaini zuten, metal eta hardcore doinuak nahastuz eta zaleak poltsikoan sartu ostean, *Bizitza zein gogorra* eta *Erantzunik gabe* klasikoekin bukatu zuten emanaldia.



Sharon Stoner taldeak emanaldi bizi eta gogorra eskaini zuten. | IMANOL SORIANO

# Tooth, Willis Drummond, Safety Pins eta Los Separatistas Arrasaten

- ▶ Otsaileko Kooltur ostegunak ekimenaren barruan egingo dute kontzertua Arrasateko gaztetxean
- ▶ Gernikako Tooth hirukoteak irekiko du egitaraua egunean, hilaren 7an, 22:00etan, ohi bezala

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Otsailerako egitarau indartsua prestatu dute Kooltur ekintzak taldekoek. Datozen lau eguetan, egongo da bai, musikaz gozatzeko aukera Arrasateko gaztetxean Kooltur Ostegunak eskaintzaren baitan. Tooth, Willis Drummond, Safety Pins eta Los Separatistas taldeak igoko dira oholtza gainera. Ohi bezala, 22:00etan izango dira emanaldiak, 5 euroren truke.

Otsaileko eskaintza Tooth taldeak irekiko du datorren egunean, hilaren 7an. Gernikako hirukotea 2009an sortu zen eta Edortak –gitarra eta ahotsa–, Mirrik –baxua eta ahotsa– eta Arzakek –bateria– osatzen dute gaur egun. Post-hardcorea egiten dute eta euren eraginaren artean Dut, Lisabö, Helmet edota Unsane taldeak daude. 2012ko martxoan taldearen izen bera daraman diskoa kaleratu zuten.

## Willis Drummond bigarren

Otsailaren 14an iparraldeko Willis Drummond taldearen txanda



Willis Drummond taldea duela bi urte ere izan zen Arrasateko gaztetxean. | GOIENA

izango da. Duela bi urte ere izan ziren baionarrak Arrasaten, eta datorren astean errepikatu egingo dute bisita, *A ala B* disko berria aurkezteko.

Euskal Herrian dagoen zuzeneko indartsuenetakoa dute eta horregatik, entzule asko erakartzen dituzte euren kontzertuetara.

Otsailaren 21ean Safety Pins bilbotarrek euren punk rocka ekarriko dute Arrasateko gaztetxera eta otsailaren 28an, berriz, hainbat taldetako musi-

kariek Bilbon kontzertu bat emateko sortu duten Los Separatistas taldearen txanda izango da. Bilbokoaz gain hortaz, bigarren kontzertu bat ere egingo dute Arrasaten.

## Martxoan, Esne Beltza

Otsailekoa oraindik hasi ez, eta dagoeneko martxokoa borobiltzen ere badihardute. Hain zuzen, Kooltur ekintzak taldeko kide Iker Barandiaranek, martxoko egitarauaren aurreapena egin du. Esne Beltza etorriko dela aurreratu du, baina salbuespen moduan kooltur egubakoitz baten izango dela ere azpimarratu du, egunean ezingo direlako etorri.

Martxoko Kooltur eguetan parte hartuko duen bigarren talde baten izena ere aurreratu du Barandiaranek: Waxy, Californiako desertuan kokatuta dagoen Palm Springs hirian sortutako taldea, hain zuzen ere.

## Talde asko pasatu dira

Duela hiru ikasturte ekin zien Kooltur ekintzak taldeak ostegunetako kontzertuei eta dagoeneko mordoxka bat antolatu dituzte. Arrasateko gaztetxetik pasatu diren taldeen artean daude Lisabö, Kerobia, Matxura, Sumision City Blues, Bastards on Parade, Nuevo Catecismo Catolico, Lobo Electrico, Hesian, Los Carniceros del Norte, Porco Bravo, Xabi San Sebastian Band, Iheskide, Atom Rhumba eta Siroko Ska, beste batzuen artean.



Bergarako Belceblues taldeko kideak Elvis Presley-ren etxearen kanpoaldean. | BELCEBLUES

# Belceblues taldea final laurdenetara iritsi da Memphyseko lehiaketan

Bergarako euskarazko bluesak ikaragarritzko harrera izan du AEBetan

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Egindako lanarekin "oso pozik" eta "harro" daude Bergarako Belceblues taldeko kideak. Memphisen (AEB) izan dira egunotan. Hondarribian egin zen *Road to*

*Memphis* lehiaketa irabazi eta gero, bergararrek Memphisen ospatzen den bluesaren munduko jaialdi edo lehiaketa entzute suenean parte hartzeko aukera izan dute.

## Final laurdenetara

Lan bikaina egin zuten lehiaketan eta final laurdenetara iritsi ziren. Horretarako bi kanporaketatan parte hartzeko aukera izan dute: "Ez dugu finalerdietarako txar-

## ESANAK

"Amerikarrek esan digute 'You've got it', sentimendua eta arima dugula. Barrura iritsi zait hori"

IBON LARRAÑAGA | BELCEBLUES

tela lortzerik izan, baina harro gaude bi kanporaketatan parte hartzeko aukera izan dugulako. Oso puntu gutxigatik ez gara hurrengo fasera iritsi. Pozik gaude uste genuena baino urrunago iritsi garelako", kontatu zigun Oihan Vegak zapatuan. Gaineratu du Bergarako bluesak sekulako harrera izan duela: "Gure musika defendatu dugu. Euren kulturaren murgildu dugu bluesa euskaraz eta errekonozimendua lortu dugu euren artean".

Ibon Larrañaga ere pozik da lortutako erantzunarekin: "Amerikarrek esan digute *You've got it*. Hau da, sentimendua, arima daukagula. Hori izan da niri barruraino iritsi zaidana".

Bidaia aprobetxatuta Elvis Presleyren etxea ere bisitatu zuten. "Rockaren erregearen hilobian gure abesti bat kantatu genuen eta pua bat ere utzi dugu".

## 'Zuzeneko instanteak' erakusketa irekiko dute gaur Arrasaten

Korrika kulturalaren baitako ekitaldia da eta Kulturaren egongo da ikusgai hilaren 10era arte, 17:30etik 20:30era. Musika argazki erakusketa kolektiboa da, *musikazuzean.com* atari digitaleko kideen –argazkilariak, afizioz-lanez osatua. 2011 eta 2012 urteetan zuzeneko kontzertuetan ateratako 40 argazki, 20 argazkilarirenak; tartean daude, adibidez, Josu Txintxurreta eta Arnaitz Eraso debagoiendarrak. Audio gunea ere badago.

## Neguko jaien gaineko berbaldia bihar Aretxabaletan

*Alizia Stürtze historialariak Neguko jaiak: paganoak ala kristauak* delako berbaldia egingo du Aretxabaletako Kurtzebarri eskolako liburutegian bihar, martitzena, 17:00etan. Bestalde, Kuku Miku elkarteak antolatuta, *Errespetuzko komunikazioa* izeneko hitzaldia ere izango da gaur, astelehena. Nerea Mendizabal psikopedagoak egingo du berbaldia. Kuku Mikuk Durana kalean duen egoitzan izango da, 17:30ean.

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



## AKUPUNTURA

### INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

### ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

## ALBAITARIAK

### ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

### ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.  
943 79 13 68

### AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

### ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

### ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

### ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

### BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

### CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

### GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

### IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

### IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealde 2 behe ezk. / 943 76 80 06

### LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

### MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

### SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

### TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe

620 12 48 43 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

### INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

### GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

### AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

### LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

### AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

### ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

## OPTIKAK

### BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

### MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

### UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

### BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

### ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

### ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

### IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

### OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

### GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. esk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

### ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA

Bergara / 646 06 28 18

arkaitz.irazabal@gmail.com

### BEITIALARRANGOITIA ALZELAI, IONE

Arrasate / Uarkape kalea 14, behe / 657720049

### GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

### NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## YOGA

### SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe

943 76 11 38 / 639 23 57 53.



## GURE MUSIKA TALDEAK

DEIFUS

# "Eskuko grabagailua erabiliz hasi nintzen nire kantuak egiten"

- ▶ Donostian bizi den arrasatearrak ia hamar urte eman ditu rap munduan buru-belarri
- ▶ Musikaren eta hitzen bitartez mezu bat zabaltzea da Deifus-en helburua

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Eskuko grabagailu batekin hasi zen raparia da Deifus. 29 urteko arrasatearra 2004an murgildu zen hip-hop kulturaren barruan; rap musikan, hain zuzen. Orduetik, bere bizitzan ezinbesteko bihurtu da pertsona askorentzat ezezagun edo arrotz den musika estilo hau. Bi maketa kaleratu ondoren, gutxi barru argia ikusiko duen lan berriarekin indarberrituta dator kigu Deifus.

## Nola murgildu zinen rap musikaren munduan?

Rap musika entzutea oso gustuko nuen gaztetatik eta egun batean letra bat idatzi eta eskuko grabagailu bat erabiliz base erritmiko baten gainetik nire ahotsa grabatzeari ekin nion. Hasieran, egia esan, edukiak eta kalitatea nahiko pobreak ziren, baina, gogo handia nuenez, aurrera jarraitzea erabaki nuen.

## Eta orduetik hona zein izan da zure ibilbidea?

Ba, urteak pasa ahala ikasiz joan naiz, eta 2006an nire lehen maketa kaleratu nuen. 2006 zuen izena eta 10 abestik osatzen zuten. Kantuen baseak eta hitzak nik neuk konposatu nituen eta guztiz autoekoiztua izan zen; egia esan, soinua trakets samarra zen. Urte eta erdi pasatu ondoren, *El retorno del poeta* maketa argitaratu nuen 13 abesti propioekin, eta soinu aldetik hobera salto egin nuen. Garai hartan soinu bikaina zuela uste nuen; gaur egun, hau entzutean beste era batera pentsatzen dut. Orduetik aurrera kontzertuetan eta kantuak konposatzen ibili naiz. Hala ere, 2010. eta 2012. urteetan nahiko geldi ibili naiz, bizitzako gorabeherak tarteko. Baina 2012a aurrera joan ahala, indarrak batu eta material guztia berritu ondoren, denbora gutxi barru entzun ahal izango duzuen maketa prestatzeari ekin nion.

## Konta egiguzu lan berriari buruz gehiago.

*Habla hasta la muerte* izango da lan honen titulua eta 15 abestiz osatuta egongo da. Kantuetan gai ezberdinak jorratzen ditut; *Carta al señor presidente*-n, adibidez, gizarteari kritika zorrotza egiten diot; *Años 90* kantuan, ostera, beste garai batzuk ekartzen ditut oroimenera eta *Crema para tus oídos*-en, gaur egun rap musika nola ikusten dudana azaltzen saiatzen naiz. Oraingo honetan, soi-

nua askoz ere profesionalagoa da, grabaketa material hobearikin egin dut lan eta masterizazioa eta nahasketa Ander Ferro soinu teknikari bilbotarrarekin elkarlanean egin dut. Kantu gehienak gazteleraz eginda daude; hala ere, euskarazko kanturen bat ere izango da maketa berri honetan; *Arimaren garraxia*, esate baterako.

## Non eta nola grabatu duzu?

Lan handien etxeko estudioan egin dut. 2012an inbertsio nahiko garrantzitsua egin nuen grabazio materiala erosteko; besteak beste, mikroa, soinu txartela eta ordenagailua erosi nituen, eta, horrekin, nire etxean estudio txiki bat muntatu nuen, ez da estudio profesional bat, baina ondo grabatzeko adina dela uste dut. Beraz, etxean baseak eta ahotsa grabatu ondoren, esan bezala, Ander Ferrerori bidali dizkiot eta bion artean azken emaitzara heldu gara. Egia esan, emaitzarekin oso pozik nago.

## Zeintzuk dira zure influentziak konposatzeko momentuan?

Urteak daramatzat rap estilo ezberdinak entzuten, batez ere gazteleraz egindako rapa; hala ere, euskaraz egindakoa edo Frantzia eta AEBetatik datorren rapa ere oso gustuko ditut. Influentzia asko barneratzen ditut, baina, guztien gainetik, Ignacio Fornes *Nach* Alacanteko raparia dut mundu honetan ispilu. Nik atsegin dudana eta egin nahi dudana rap estiloa rap poetiko samarra da, puntu kritikorekin. Ez dut askorik estimatzen rap *hutsa*; nire ustez, abesti bat entzuterakoan zerbait transmititu behar du. Nire raparen bitartez mezu bat zabaltzea nahi dut, ez da erri- ma hutsak egitean oinarritzen den rap mota. Azken finean, gutako askok egunerokoan pentsatu baina adierazten ez ditugun egoera eta sentimenduak salatzen eta helarazten saiatzen naiz nire kantuak erabiliz.

## Zure karrerako zein momentutan zaude orain?

Momentu helduenean nagoela uste dut. Asko ikasi dut bizitako esperientziez, egindako abestiez, emandako kontzertuez... Nire raparekin adierazi nahi dudana oso argi daukat, baita nola egin nahi dudana ere. Soinu kalitateari dagokionez ere aurrerapauso handia eman dut eta orain profesionalen laguntza izan ohi dut,



Deifus, hurrengo diskoan pentsatzen. | ANE ALARCIA

gainera. Beraz, hau guztiau adinari eta esperientziari gehituz, momentu onean nago.

## Zerk bultzatzen zaitu aurrera jarraitzea?

Ez daukat erantzun argirik. Hone- tan ematen dudana ordu piloa kontuan hartuz... kontzertuak, grabaketak, idaztea... eta nire lanaren orduak batuz, askotan, zer pentsatu ematen du. Gainera, atzetik ez dut diskoetxerik; beraz, nire poltsikotik egiten ditut inbertsio guztiak. Beraz, hau entzunda badirudi honek guztiak ematen didana baino gehiago kentzen didala. Baina hor sartzen dira

sentimenduak; idazteak eta gero hori kantu bihurtzeak norbait naizela gogorarazten dit, egoerak salatzeke zerbait egin dezakedala. Gainera, beste batzuegana heltzea eta haiekin *feedback*-a lortzea azaldu ezina da.

## Zein da raparen egoera gurean?

Rap musikaren indarra gaur egun *underground* eszenan dago. Interneten ehunka gaztek euren kabuz egiten duten lana entzun daiteke eta horietako batzuek kalitate handia dute. Baina hauen arazoa bultzada falta da, diskoetxe gutxi editatzen dute rap musika eta ez dira asko arriskatzen. Hala ere, rap negargarria egiten duten pertsonaia kopuru bat badago; adibidez, letra penagarriekin bi kantu egin eta izar moduan jokatzen dutenak. Denetarik dago, nik rap zentzudun eta erreala gustuko dut, asko dago eta.

"Gustuko dudana rapa poetiko eta kritikoa da"





# DNAn informazio digital kodetua gordetzea lortu dute zientzialariek

Zuntz mikroskopikoetan informazio eskerge gorde daiteke oso luzaroan

JON BEREZIBAR | ARRASATE

DNAn informazio digitala gordetzeko ikerketak egiten dabilta Cambridgeko European Bioinformatics Institutuan eta Harvardko Wyss institutuan. Ikerlari taldeek diote nahiko aurreratu daukatela teknologia eta egungo biltegitratze sistema garesti eta hondatzeko errazen aurrean, diote genetikak biltegitratzeko askoz aukera handiagoak eskaintzen dituela. Dagoeneko datuak gordetzeko %99,9ko zehaztasun maila lortu dute zientzialariek urte gutxian.

## 10 urte barru, prest

EBI DNA dauka izena DNA erabiltzen duen sistemak. Ikerlariak Shakespeareren soneto guztiak eta MP3 fitxategiak, adibidez, landare eta animalietan aurki daitezkeen DNaren antzeko zuntzetan gorde dituzte. Zuntz mikroskopiko horietako bakoitzean mila milioi liburu gorde daitezke, esate baterako, eta zuntz hori, hondatu barik, saio-hodi baten mantendu daiteke milaka urtetan zehar. Uste dute 10 bat urte beharko direla teknologia berri hori guztiz garatu eta errenagarria izateko baina ikerlariak diote disko gogor ala zinta magnetikoen sistemak baino merke eta iraunkorragoa izango dela DNA erabiltzea, batez ere gobernuentzako eta datu kopuru eskerge gorde behar izaten duten



Cambridgeko Nock Goldman ikerlaria. | BBC

erakundeentzako. Abantaila ez ei da hori bakarrik, izan ere, disko gogor ala zintek ez bezala, DNak ez du mantenurako argindarraren beharrik eta mikroskopikoa eta dentsitate handikoa da euskarria.

Emandako azalpenen arabera, DNA lagin bateko G, A, T

eta C letra kimikoak erabili dituzte informazio digitalaren 0 eta 1 digituak kodifikatzeko. Antzeko metodoarekin Harvard Unibertsitateak ere arrakasta handiarekin lortu du DNA euskarri moduan erabilia biltegi digitala eratzea. DNA gramo bakarrean 700 terabyte gordetzea

lortu dute Wyss institutuan, datu binarioekin eta giza genomaren sekuentziazioa imitatuta. Informatika eta biologiaren arteko ikerketa eremu honetan interes handia piztu da azken urteetan, "ordenagailu biologiko" kontzeptua erabiltzen hasiak dira jada.

## 50 milioi fitxategitik gora igo dira Mega-ra

J.B | ARRASATE

Abiatze egunetik bi aste besterik ez dira igaro, eta honezkerok, Kim Dotcom-en datuen arabera, 50 milioi fitxategi inguru igo dira Mega-ra. Epe horretan bertan copyright hausteengatik 150 salaketa jaso ditu Megaupload-en sortzailearen ekimen berriak.

Urtarrilaren 20tik – zabaldu zutenetik – orain arteko datuak zabaldu ditu Kim Dotcom-ek Twitter bidez. Horrekin batera, zerbitzu berriaren egile eskubideak urra ditzaketan edukien aurkako jarra irmoa erakutsi nahi duten zifrak ere atera ditu informatikari alemaniar polemikoak argitaratu. Hala, azaldu du egunean 50 fitxategi galazten dituztela copyright urraketa susmopean. Dotcom-ek berak azaldu du dagoeneko 150 abisu jaso dituztela herrialde ezberdinetatik egile eskubideen urraketa salatuaz. Dotcom-ek esan du igota dauden 50 milioi fitxategietatik %0,001 bakarrik direla egile eskubidedunak. Honekin batera argitu dute atzemandako eduki hori kentzen dihardutela.

## Saria, 'cracker'-entzat

Datu hauekin pirateriaren aurka gogor dihardutela frogatu nahiko lukete Dotcom-ek eta haren lantaldeak. Zerbitzu berriaren segurtasunaren sendotasunaz hain seguru daude Megakoak ezen zifratzea deskodetu eta haustea lortzen duenarentzat sari bat eta guzti ipini duten. 10.000 euroko saria jasoko du. Izan ere, erabiltzaileari pasahitza aldatzeko aukera ematen zaio orain eta baita fitxategiak berreskuratzeko aukera eta, horregatik, kritikatu egin dute Mega-ren segurtasun maila, "hasteko" erraz moduan jota. Saria jasotzeko bi baldintza bete behar ditu *cracker*-ak: akatsa atzeman eta, aldi berean, frogatu beharko du erraz lortu duela zulo horretatik sartzea.



Z10 modelo berria, zurian eta beltzean. | GIZMODO

## Blackberry 10 sorta berria aurkeztu dute, hegaldatzeko itxaropenarekin

J.B | ARRASATE

Makalalditik ateratzeko esperantza jarria du BlackBerryk modelo berrietan. Etxe kanadiarraren 2013ko apustu nagusiak dira Z10 eta Q10 telefonoak, BlackBerry 10 seriearen barne. Konektibitatea eta lanerako produktibitatea bilatzen duten erabiltzaileendako bereziki diseinatuta daude, diotenez. Z10 modeloa (kolore zurian)

pantaila ukigarri duna da eta Q10-ak BlackBerryren ikur bilakatu den teklatura dauka, 3,1 hazbeteko eta 320 pixeleko erresoluziodun pantailarekin. Z10a da, baina, apustu nagusia, pantaila ukigarria duen modeloa, 4,2 hazbeteko pantailarekin eta 1280x768 pixeleko erresoluzioarekin, 1,5 GHz-ko nukleoa dauka eta 2 GBko RAM memoria.

## Fitxategi ilegalen deskargarengatik 140 euroko isunak ezarri gura ditu Frantziako Gobernuak

J.B | ARRASATE

Pirateriaren aurka gogor eta bide askotatik egin du Frantziako Gobernuak. Hadopi legea eranskin batekin osatu gura dute, legez kanpoko fitxategien deskarga 140 euroko isunekin zigortuta. Sistematikoki ezarriko litzateke neurria eta batutakoa entretenimenduaren industriaren poltsi-

koetara joango litzateke zuzenean, zenbait hedabideren arabera. Neurri berri honen iragarpena baliteke Hadopik berak izandako eraginkortasunik ezak eragin izana, lehen zehapenetatik erabateko etete gutxi egon baitira azkenean, aurkako errekurtsioen gaineko epailearen azken erabakia tarteko.

## Bluetooth lokalizatzaileak, dena aurkitzeko

Giltzak, telebistako kontrola, kartera... non uzten duten ez dakitenendako soluzioa gertatzen dabil MeterPlug etxea. Bluetooth bidez lokalizatzen diren fitxak dira, gauzei atxiki eta mugikorretik aurkitu ahal direnak. Fitxek soinua eta argia egiten dute.








**JAIOTAKOAK**



**Xuban Arrizabalaga Azkargorta**

Antzuola. 3,200 Kilo. Urtarrilaren 27a. Gurasoak: Rakel eta Iban. Argazkian, Xuban aitarekin.



**Peru Muruamendiaraz Agirre**

Bergara. 3,850 Kilo. Urtarrilaren 28a. Gurasoak: Oihana eta Aitor. Argazkian, Peru jaioberria sehaskan.



**Ganix Gomez Iturbe**

Aretxabaleta. 3,800 Kilo. Urtarrilaren 28a. Gurasoak: Eider eta Txarli. Argazkian, Ganix jaioberria familiarekin.



**Eder de la Mata Eguidazu**

Elorrio. 2,900 Kilo. Urtarrilaren 30a. Gurasoak: Maribel eta Estibalitz. Argazkian, Eder jaioberria familian.



**Maidier Rodriguez Tejero**

Arrasate. 2,640 Kilo. Urtarrilaren 30a. Gurasoak: Virginia eta Jose Ignacio. Argazkian, Maidier gurasoekin.

**Jaio da!**

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.

Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkaritza batera.

OROIGARRIA

**Aitor Azkune Erle**



Oñatin hil zen 2013ko urtarrilaren 31n, 52 urte zituela.

*Beti gure oroimenean izango zara.*

Hire zapatuko lagunak  
Oñatin, 2013ko otsailaren 4an.

**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**

Eskelaren prezioa: 130 euro.  
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.  
Goiena: irakurriena Debagoienean.

Aste barruan, eskelak jartzeko orain arteko ordezkaritzez gain:

**BERGARAN, ABENDUTIK AURRERA**  
**JARDUN ELKARTEA**  
Errotalde (kultura etxean), 94376 08 19



**DENBORA-PASA**

HITZ GEZIDUNAK

1 2 3		* Kirol olimpiar	48 ordu barru	Giza arima
		Belarriko gaitz	Errumaniako hiria	Ikastaldi
		Modu latzean		
		Ekin!		
Nagusi	Itxiturak			
Salatari	Nafarroako udalerria			
			Selenioa	
			Zerutiko ur	
Teoria			Junta-gailua	
Perila			Koordinado-ra abertzalea	
				Bokal errepikatua
Interjekzioa		Lerroa		
Batzarra, bilkura		Fosforoa		

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.




SOLUZIOAK

A	O	I	S	O	P	N	I	S
A	R	A	W	I	O	I		
A	K	U	S	K	R	I	A	R
A	E	T	A	S	I	E	S	
S	E		A	L	A	T	I	S
K	A	S	I	A	H	E	P	
I	L	A	Z	K	I			
P								

A	K	A	U	R	I	K	R	A
I	A	P	R	A	G	A	U	
A	M	E	O	K	I	K	A	T
K	O	T	R	P	A	R	I	S
A	R	U	E	U	O	K	R	I
U	R	B	E	R	N	A	A	K
I	E	A	I	K	R	A	U	E
S	T	O	C	K	H	O	L	M
R	A	K	E	K	O	U	T	E

3	7	5	9	8	6	4	1	2
4	1	8	2	5	3	9	6	7
9	2	6	7	4	1	8	3	5
2	6	7	3	9	4	5	8	1
1	9	4	5	2	8	6	7	3
5	8	3	6	1	7	2	9	4
6	4	9	1	7	5	3	2	8
8	3	1	4	6	2	7	5	9
7	5	2	8	3	9	1	4	6



Ezetz igarri!  
Bai: 1+1+5+13=20.  
Zu zen.

SUDOKUA

	5			9		4	6
8				2	7		9
			7			2	
		3	6			9	4
		4	5	8			
2	6						1
		6				3	5
		8		5	3	9	7
			8	6			2

HIZKI SALDA

Topa itzazu Europako bost hiriburu

R	A	K	E	K	O	U	T	E
S	T	O	C	K	H	O	L	M
I	E	A	I	K	R	A	U	E
U	R	B	E	R	N	A	A	K
A	R	U	E	U	O	K	R	I
K	O	T	R	P	A	R	I	S
A	M	E	O	K	I	K	A	T
I	A	A	P	R	A	G	A	U
A	K	A	U	R	I	K	R	A

EZETZ IGARRI!

Bost zenbaki bakoitiren batura izan daiteke 20?  
-  
Nor da zure anaiaren ania izanik, zure ania ez dena?

## AI, ENE!

### Dotore, bizikletaren gainean ere bai

Jatetxe dotore batera bizikletan joan nahi duzula baina zure *mailot* laranja ez duzula aproposa ikusten? Hemen konponbidea. [www.nopuedocreer.com](http://www.nopuedocreer.com)



## AHOBERO

### "Arraza-legeak onartu zituen arren, Mussolinik gauza onak egin zituen"

SILVIO BERLUSCONI | POLITIKARI ITALIARRA

Arraza-lege horien ondorio nagusienak judutarrek jasan zituzten. Non bota zuen esaldi hau Italiako lehen ministro ohiak? Holokaustoaren Biktimen Oroimen Egunean. Aspaldion desagertuta egon ostean, ongi etorri berriz ere tarte honetara, Berlusconi! [www.huffingtonpost.es](http://www.huffingtonpost.es)

## EGURALDIA



Max. 11°

Min. 5°

zerua hodeitsu mantenduko da eta euria egingo du. Temperatura minimoak igoko dira [euskalmet.net](http://euskalmet.net)

ASTELEHENKOA

# goiena

2013-02-04

## HAMARREKOA

**Karmele Jaio** Hamabost zauri eta Amaren eskuak bezalako lanei esker ezagun egin ostean, hamabi ipuinez osatutako *Ez naiz ni* da kazetari eta idazle gasteiztarraren azken liburua. | TXOMIN MADINA

## "Ia edozein egoeratan idazteko gaitasuna garatu dut"

### 1. Denboraren joanak zeresan handia du *Ez naiz ni*-n. Zuk zeuk nola daroazu?

Pentsatzen dut jende gehienak bezala. Neu ere heldu naiz adin batera zeinetan benetan konturatzan bainaizen bizitza oso azkar doala. Ez daroat gaizki, baina horren kontziente naiz.

### 2. Ipuinez osatuta dago. Eleberrietan baino erosoago?

Beti diot ni neu gehiago ikusten naizela ipuingile nobelagile baino; ipuinak gehiago idatzi ditut. Agian bai, ipuinetan erosoago nago.

### 3. Amaren eskuak arraskastatsua deskribatzeko, *hunkigarri* hitza darabilte askok. Ez da lorpen makala!

Hori lortu nahi du askotan idazleak: heltzea, irakurleari zerbait sentiaraztea. Idaztean norberak ere hunkitu behar du; fikzioa izan arren, egia balitz bezala idatzi eta sentitu besteek ere sentitzeko.

### 4. Arrakasta baten ostean, beldurra ematen du hurrengo hasteko?

Ez. Uste dut idazten hastean hori guztia ahazten dudala: bestaldean norbait dagoela pentsatzen dut, zerbait kontatu behar diodala, eta beste dena ahazten saiatzen naiz.

### 5. Noiz ikusiko dugu Amaren eskuak-en zinemarako moldaketa?

Data ez dakit, baina aurtan. Jakinminez nago: irakurri dut gidoia, baina zaila zait horrek iruditan zer esan nahi duen jakitea. Pozgarria da zuk idatzitakotik zerbait berria jaiotzen dela ikustea.



AGM

## MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

### "Injustiziak erotik desagerrarazi"

"Munduko injustiziak desagerrarazten baino gehiago, injustizia horiek sortzen dituzten arrazoiak erotik desagerrarazten saiatuko nintzateke. Esaterako, emakumeen kontrako indarkeriaren kasuan, makilarekin errora joango nintzateke, gizartean dagoen matxismoa desagerrarazten saiatuko nintzateke".

### 6. Liburu on bat idazteko, zenbat irakurri behar dira aurretik?

Asko; idazlearen zeregina %50 idaztea da eta beste %50a irakurtzea. Ni beti izan naiz irakurlea, baina denbora falta dut arazo; irakurtzen dudana baino askoz gehiago irakurri nahi nuke.

### 7. Idazteko, musika bai ala ez?

Ez, nahiago dut isiltasuna. Ez dut mania berezirik: ahal dudanean eta ahal dudana bezala idazten dut. Bi ume txiki ditut eta etxean ez da askotan girorik egoten; ia edozein egoeratan idazteko gaitasuna garatu dut.

### 8. Zirrikituetatik begira ibiltzen zara egunkarietan. Espia sena, betidanikoa?

Agian bai; ohartu naiz konturatu gabe garatu dudala adi egoteko gaitasuna: askotan, autobusean noa eta konturatu gabe albokoaren elkarriketa entzuten nabil.

### 9. Kazetari moduan, igartzen dituzu faltan erredakzioak?


Urte asko egin nituen erredakzioetan eta ez ditut faltan igartzen. Erredakzio lanak asko zailtzen du bizitza pertsonala eta profesionala uztartzea: ordutegi ezberdinak, noiz bukatuko duzun ez jakitea, asteburuan lan...

### 10. Kultura sailburu berria duzu aurrean. Zer esango zenioke?

Nire kasuan, euskal literatura indartu eta bere lekua ematea; benetan sinestea gure literatura euskal literatura dela.

## BIHARAMUNA

XABIER ZUBIZARRETA



## Gain-azal-sobre

Elhuyar hiztegiaren arabera, gaztelarazko *sobre-sueldo* hitza euskaraz bi formatara erabili eta ulertu daiteke: bata, *gainsoldata* eta bestea, *gainalokairua*; sinonimo direla, alegia. Eta, harrigarria benetan, ez nuen espero, euskarazko bertsioan, hain kontrajarriak izan daitezkeen bi kontzeptu hitz berarekin adieraziko genituenik. Ez dut uste hiztegia finkatu zutenek bizi dugun egoera imajina zezaketenik, baina jasaten ari garen berri txar bonbardaketa hain larri eta lotsagarria kontuan hartuz, uste dut esan daitekeela *gainsoldata* eta *gainalokairuak* antonimo izatetik hurbilago daudela beste inondik baino. Izan ere, beren etxeetatik kanporatuak edo hartarako arriskuan diren *gainalokairu* dunek jasaten dituzten *gainalokairuek* ez dute sinonimo izaera handirik, ez antzekotasunik, kanporatzaile diren bankuen atzean ezkututzen diren *gainsoldatadunen* *gainsoldatekin*. Korapilatsua? Bai zera!

Testu hau ulertzea ume jaioberri batentzako joko bezain ximplea da; benetan ilun dagoena, *gainsoldatena*, *gainalokairuena*, eta estatu espainoleko egitura instituzional osoan, gainak hartuta dabilzkigun hainbat mertzenario-politikorrena da; ala etxean ere baditugu?!

Hiztegi lagungarria: *sobre* = *azal* esaten da; baina batzue-na gainazala da.

## HABEko azterketak prestatzeko ikastaroak larunbatetan!



1., 2. eta 3. mailak; baita 4. maila ere!

Noiz: Larunbat goizetan, 08:30etik 14:00etara

Informazioa: Aratz Euskaltegia  
945 15 43 41  
[aratz@ikanet.net](mailto:aratz@ikanet.net)  
[gasteiz.ikanet.net](http://gasteiz.ikanet.net)



euskara errazago egiten